

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2013-09-27
EGUBAKOITZA
567. ZENBAKIA
13. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

"Ez ditut ideiak
ezkutatu
lagunen arteko
bakeagatik"

Jon Sarasua
Irakaslea | 6



Arrasate-Oñati
lasterketa,
bidegorritik

Laixaneko lagunak
omenduko dituzte
urriaren 12an | 19

HEMEN DIRA SAN MIGELAK!

Oñatiko eta Aretxabaletako jaiak | 23 eta 39



Euskaltzaileen aldarrikapen
eguna da bihar Soraluzen | 5



Deba ibaia auzolanean garbitzeko
dei egin dute urriaren 13rako | 9

ZERTAN DABILTZA?

Euskaraz dabilta; izan ere, Arrasateko 19
kirol elkartek 'Euskara gure hizkuntza
nagusiaren aldarrikapena' sinatuko dute | 3



Sinatzaileetako batzuk, nork bere elkarteko kirol jarduera adierazten duen kamiseta edo janzkerarekin, Arrasateko Kondekua parkean. | JAGOBA DOMINGO

SINADURAK



Gipuzkoa noraezean | 8
EDUARDO ZUBIAURRE

56 | Lizarra Garazi baino hobea
AGURNE BARRUSO



ASTEKO GAIA 3 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 8
ELKARRIZKETA 6 | HERRIAK 9 | KIROLA 19
KULTURA 21 | ZURE IRAGARKIAK 51
TELEBISTA-IRRATIA 52 | EZKONTZAK 52
ESKELAK 53 | NON-ZER 54

ZUMAIAN ORTIZ BIZIGUNEA

2 LOGELAKOAK
170.000 €-TIK
HASITA

3 LOGELAKOAK
240.000 €-TIK
HASITA



ORTIZ BIZIGUNEA Axular Ibiltokia 18

Urria
31

Urriaren 31 baino lehen kontratua sinatuz gero, duxa integral bat opari.

INFORMAZIOA
606 95 75 32
info@inmoloiola.com
www.zumaiانبizi.com

SUSTATZAILEA:
inmo*loiola*

ERAIKITZAILEA:
ALZURA Y URSUA S.A.

SALMENTA-GUNEA:
Z

Hemen
GARBIKETAK

943 71 48 45

www.hemen-garbiketak.com


Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak,
obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegia, anbulatorioak, eta abar.




Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • hemen@hemen-garbiketak.com



HOTEL JATETXEA SANTA ANA ***

Uribarri 37 (Udala bidean) • ARRASATE • Tel: 943 79 49 39
www.santaanamondragon.com

*Paraje ezin hobean,
goza ezazu gurean...*



Agorrosin ostalaritza

Boni Laskurain 21
BERGARA
Tel.: 943 77 70 30



Eskaintza

- Eguneko menua astelehenetik ostiralera 9 €.
- Asteburuko menua 15 €.
- Bazkariak eta afariak, ostiraletan, larunbatetan eta igandeetan. (Jaiegunetan ere bai).
- Gosariak, ogitartekoak, pintxoak.
- Bazkari eta afariak terrazan emateko aukera.

Plater konbinatuak: ostiral gauetan Ordaindu 1, eraman 2

Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35.
BERGARA
Tel.: 943 76 10 55
www.restaurantelasa.es



Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona min).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera(eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria Mas Gastronomía 2009.

Wok Sheng Xing Yuan

Mugarrieta industrialdea 10,
C-B pab.
San Andres auzoa
ARRASATE
943 79 90 29
629 41 59 58



Eskaintza

- Itsaski-janak.
- Frijituak.
- Plantxa.
- Sushia.
- Parrilladak.
- Menua, postrea barne.

10 menu hartuta, 1 DOAN.

Garaia jatetxea

Garaia Berrikuntza Gunea
Goiru kalea 1
ARRASATE
943 71 02 28
647 83 23 86
ostalaritza@grupogureak.com



Eskaintza

- Self-service bazkari merkeak.
- Urtebetetzeak.
- Taldeentzako eta ospakizunentzako bazkari eta afariak.
- 160 pertsonarentzako jangela.
- Aparkalekua eta terraza.

Arrasateko kirolak euskararekiko konpromisoa sinatuko du zapatuan

'Euskara gure hizkuntza nagusiaren aldarrikapena' izenpetuko dute 19 kirol elkartek

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Bihar, zapatua, Kirolarien Euskara Eguna ospatuko dute Arrasaten. AEDko Bultza taldeak animatuta, herriko eta eskualde osoko 19 taldek hartu dute euskara gehiago erabiltzeko konpromisoa. Hori zapatuan eszenaratu dute, *Euskara gure hizkuntza nagusiaren aldarrikapena* delakoa irakurri eta izenpetuta, Herriko plazan, 13:00etan. Gura duten herritar guztiek ere hori sinatzeko aukera emango dute, mahai batzuetan.

Atxikitu diren talde guztien artean, 5.000 jokalaria inguru, bazkideak, entrenatzaileak eta gurasoak daude. Helburua da batez ere kirolari gazteek gehiago erabiltzea euskara.

Giro ludikoan

Ospakizun giroa izango du bihar-ko egunak; goiz osoan kirol era-kustaldiak eta jendeak ere egiteko moduko ekintzak izango dira; 12:00etatik 14:00etara, txistularien eta gaitarien kalejira izango da; eta arratsaldean, 18:00etatik 19:30era, lasterketa egingo dute, Kontseiluarekin batera.



Sinatzaileetako batzuk, Bultza taldearekin hartu duten konpromisoa irudikatzen duen kartela erakusten. | LEIRE KORTABARRIA

Egun osoan, kirol ekintzak

Ekitaldi nagusia *Euskara gure hizkuntza nagusiaren aldarrikapena* sinatzea izango da, 13:00etan, Herriko plazan. Baina 10:00etatik 12:45era, kirol taldeek erakustaldiak eta jendearendako ekintzak egingo dituzte: Seber Altuben, auto gidatuak eta jinkana; Biteri plazan, errugbia, saskibaloia eta judoa; Zaldibarren, futbola, pilota eta eskubaloia; Herriko plazan, aerobika eta kultur-jinkana.



JOSE RAMON ELORTZA
BULTZAKO KIDEA

"Zapatukoa irteteko pista bat izan dadin gura dugu"

"Zenbait herritan, umeek euskaraz ikasi eta, halako baten, ez kirolean, ez etxean ez inon ez dute euskaraz hitz egiten. Duela urte eta erdi kirol elkarteekin harremanetan hasi ginen, konpromisoa hartuz aurrerantzean euskarak gutxienez gaztelaniak duen indarra izango duela. Eta gura izan dugu egun bat antolatzea, egun hori izan dadin irteteko pista bat. Hortik aurrera, eguneroko lana dator, eguneroko euskaraz egitea".



EUGENIO URIBARREN
AIKIDO TALDEKOA

"Euskaraz egiten dugu gure artean, eta hitz batzuk japonieraz"

"Euskal Herrian gaude eta beti euskarari laguntzeko gertu egon behar dugu; hori da gure lehenengo helburua. Gu Arrasaten hogeitaka gara klubean, eta aikidoa euskaraz ere egin daiteke; euskara eta japonierazko hitzak erabiltzen ditugu. Helburu horrez gain, zapatuan, gure kirola jendeak ikus eta ezagutu dezan gura dugu. Horretarako, erakustalditxoak egingo dugu, eta gure asmoa da jendeak ere, poliki-poliki, parte hartzea".



JON OZAETA
DRAGOI GIMNASIA TALDEKOA

"Neska-mutiko batzuek erdaraz egiten dute kirolean"

"Guk bat egin dugu ekintza honekin konturatu ginelako lagundu genezakeela; gure neskatilek euskaraz egiten dutenez, euskara izan daiteke euren ikasketen edo kirolaren luzapen bat, eta euskara bizitzaren parte ludikora ekar daiteke. Oraindik hutsuneak daude: gure irakasleak euskal hiztunak dira, baina esaten dute neska-mutiko batzuek, segun eta etxean ze ohitura duten, kirola egiterako orduan erdaraz egiten dutela".



JON BASURKO
SASKIBALOI TALDEKOA

"Kirolean dabilen jende guztiak euskararen alde egiten badu..."

"Euskara denona delako eta hura bultzatzearen gaude hemen. Kirolak jende asko biltzen du, eta jende horrek guztiak euskararen alde egiten badu, gehiago hitz egiteko modua izango da. Gure kasuan, saski-eskolan eta 16 taldeen artean, 250 neska-mutil ditugu. Entrenatzaile askok euskaraz badakite eta txikitatik, saski-eskolatik saiatuta, gero eta gehiago entzuten da euskaraz. Ea honekin gehiago entzuten den!"

KONEKTATU UDAZKENEKO MODAREKIN

el Boulevard

Zatoz urriaren 5era arte El Boulevardera eta parte hartu gure lehiaketan, 1.000 euroko sari bat irabazi dezakezu BOULEVARD DIRUTAN! Sartu gure facebook orrian eta jakin ezazu nola izan zaitezkeen irabazle <https://www.facebook.com/elboulevard>



Mugikorrentzako aplikazio berria Intxortan gertatutakoak zabaltzeko

77. urteurreneko ekitaldi sortarekin batera aurkeztu zuten atzo Elgetan

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA
Urte honetarako eta memoria historikoarekin lotuta bi ekintza nagusi zituzten aurreikusita Elgetan: bata, Intxortako borrokaldien inguruan apirilean egindako errekreazioa, eta bestea, atzo aurkeztutako aplikazioa. Euskarri berriak *Elgeta memoria* du izena. Mugikorrendako da, doan da eta hiru hizkuntzatan erabil daiteke. "Aplikazioaren ezaugarri nagusia da oso berritzailea dela. Batetik, gerraren inguruan egiten den lehenengo aplikazioa da, eta bestetik, turismoaren alorrean

NFC teknologian hedapen handien duen aplikazioa da", azaldu du Turismo teknikari Iraitz Lazkanok. "Euskaraz, gazteleraz eta ingelesez erabil daiteke, eta 12 interesguneri dagozkien azalpenak aplikazioan entzun edo jaitz daitezke. NFC zein QR kodeen bidez eskura daiteke, bai iOS, bai Android sistema eragileendako. Gainerako sistema eragileendako *elgetamemoria.com* helbidean dago eskuragarri".
Batura Mobile Solutions enpresak egin du aplikazioa eta eskaintzen duen informazioa Intxorta

1937 kultur elkartearen parte hartzearekin osatu dute. Proiektuak Gipuzkoako Foru Aldundia- ren eta Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza jaso du; 15.700 euroko inbertsioa ekarri du.
Elgetako alkate Oxel Erostarberen esanetan, pauso garrantzitsua da: "Intxortako batailaren inguruko informazioa modu berritzailean eskaintzen zaio bisitariari, eta aurrerantzean nork bere kabuz egin ahal izango du ibilbide tematikoa. Gainera, Elgetaren bestelako baliabide turistikoek berri ere ematen du".



Intxorta 1937 kultur elkarteko zein Elgetako udal ordezkariak agerraldian. | L.Z.

77. urteurreneko ekitaldiak
Urrian beteko dira 77 urte gudariek eta milizianoek Intxortan frankistak gelditu zituztela. Urteurreneko ekitaldien barruan kokatu behar dugu aplikazio berriaren aurkezpena. Elgetako eta Intxorta 1937 kultur elkarteko ordezkariak bestelako ekitaldiak ere iragarri dituzte: Condor Legioak Gernikaren suntsipenean izandako parte hartzearen inguruko erakusketa eta hitzaldia —urriak 2—, *Bergara 1936, gerra eta errepresioa* ikus-entzunezkoaren emanaldia —urriak 3— eta *Con-*

sejo de guerra contra el clero vasco delako liburuaren aurkezpena —urriak 8—.
Kalteak Asentzión
Salaketak ere bere tokia izan zuen atzo. "Salatu gura genuke oraingo astean bertan ezezagun batzuek Asentzioko panelaren kontra egindako erasoak; izan ere, panela apurtu eta eraman egin dute", esan zuen Oxel Erostarbe alkateak. "Ez da lehenengo aldia urteurrenaren inguruan horrelakoak pasatzen direla. Espero dezagun berriro ez gertatzea".

Larraitz Ugarte: "Dagokion seriotasunarekin egingo dugu lan"

Aballa, Antzuola-Deskargako lanetatik baztertuta

GOIATZ ARANA | DEBAGOIENA
Joan den astean Deskargako lanetan gertatutako Lasarteko 33 urteko gaztearen heriotza "kezka" eta "saminez" hartu zutela adierazi dute Aldunditik, eta hasieratik erakutsi dutela "arduraz" eta "zorrotz" jokatzeko asmoa. Horregatik, lehen datuak jaso ostean, eta "kautelazko neurri gisa", langilearen enpresa, hau da, Aballa enpresa (Lapatza Aldi Baterako Enpresa-Elkartek azpikontratutakoa) Antzuola-Bergara errepi- dearen eraikuntza lanetatik baztertu dute; jada ez dago enpresa hori obra horretan.

"Sindikatuarekin elkarlanean"
"Kautela-neurria izan da, ikerketa aurrera joan bitartean ezartzekoa. Oraindik Osalan, Lan Ikuskaritza eta Ertzaintza ikertzen ari dira, eta ez dute ondoriorik plazaratu. Beraz, ondorio horiek izandakoan jakingo da zer gertatu den benetan. Hala ere, Foru Aldundiak ikusi du badaudela enpresa horrek zenbait irregulartasun egin dituela dioten

zantzuak, eta, gauzak baieztatzen joan bitartean, enpresa lan horietatik baztertzea erabaki du", adierazi dute Aldunditik.
Bestetik, joan den astean sindikatuarekin egindako lehen bilaren ostean, Antzuola-Bergara lanen jarraipenerako batzordearen bileran egitekoa zen atzo —eguna— Foru Aldundia, sindikatuarekin batera. "Sindikatuarekin elkarlanean ari gara eta bide horretan jarraituko dugu. Lan-hitzarmena errespetatua izan dadin zorrotz lan egingo dugu, eta albisteak ditugun heinean jakinaraziko dizkizuegu", esan du aldundiko bozeramaile eta Mugikortasun eta Bide Azpiegitura diputatu Larraitz Ugartek.
Ugartek azaldu du erabat faltsua dela Gipuzkoako Foru Aldundiak bazekienik obra horretan irregulartasunak zeudenik; dio "oso argi" dutela "ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten enpresen isuna" jasoko dutela. (...) "Oso gai serioa da eta dagokion seriotasunarekin egingo dugu lan", azpimarratu du.

Zaintza partekatuaren gaineko zalantzak argitu edo informazioa eskuratzeko aukera Antzuolan

Gurasoen eta seme-alaben arteko bizikidetzak apurtzen den kasu- rako, Kide- eta elkartek —Euskal Herriko ama eta aita banatuen federazioa— laguntza eskaintzen du zaintza partekatuari dagokien kontuetarako. Hain zuzen ere, gure ibarrean, Maolo Rodríguez antzuolarra arduratzen da legea zela dagoen azaldu, aholkularitza eman eta zaintza partekatuari buruzko zalantzak argitzeaz. Intere- sa duen edozeinek harengana jo dezake: 627 21 87 49

ARETXABALETA

Lanbide Eskola

GAZTEAK, LANBIDEA, ENPRESAK, ENPREKATZAK

2013/2014 IKASTURTEA

IKASTAROAK DOHAINIK

LANGILE ETA LANGABETUENDAKO

PROFESIONALTASUN

ZIURTAGIRI

BERRIAK

LANGILE ETA LANGABETUEI ZUZENDUA (HOBETUZ)

KATALOGO MODULAR BERRIA

ZIURTAGIRI PROFESIONALAK	PRESTAKUNTZA MODULOAK	PRESTAKUNTZA UNITATEAK	ORDUAK
(FMEH0109) TXIRBI-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA	MF0090_2 Txirbil-harroketa bidezko makina eta sistemen prestaketa eta mekanizazioa	UF0878 Makinen, ekipoen eta erreminten prestaketa txirbil-harroketa bidezko prozesuetan	80
		UF0879 CNC programen elaborazioa txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan	80
	MF0091_2 Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa	UF0882 CNC programen egiaztapena eta optimizazioa txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan	70
		UF0877 Lan arriskuen prebentzioa txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan	30
(FMEC0110) SOLDADURA ELEKTRODO ESTALIEKIN ETA TIG	MF0100_2 Gas babestuan, elektrodo ez suntsitzailearekin soldadurak egitea	UF1640 Planoen interpretazioa soldaduran	60
		UF1622 Ebaketa prozesuak eta ertzen prestaketa	70
		UF1626 Karbono altzairuak soldatzea TIG soldadurarekin	90
		UF1627 Altzairu herdoilgaitzak soldatzea TIG soldadurarekin	90
(FMEC0210) SOLDADURA OXIGAS ETA SOLDADURA MIG/MAG	MF0098_2 Oxigas bidezko soldadurak eta proiektzio termikoak egitea	UF1628 Aluminio eta aleazioak soldatzea TIG soldadurarekin	90
		UF1672 Oxigas soldadura	70
	MF0251_2 Etxeko laguntza eta elikadura familiarra	UF0125 Menpekotasun egoeran dauden pertsonen kudeaketa, hornikuntza eta sukaldea famili unitatean	60
		UF0126 Menpekotasun egoeran dauden pertsonen garbitasuna, mantenua eta antolaketa	40
(SSCS0108) ETXEAN DAUDEN PERTSONEN ARRETA SOZIOSANITARIOA	MF1019_2 Erakundeetan, laguntza soziala eta arreta komunikazioa	UF0129 Erakundeetan, menpekotasun egoeran dauden pertsonen arreta soziala	30
		UF0130 Erakundeetan, menpekotasun egoeran dauden pertsonen mantentzea eta eguneroko aktibitateen hobekuntza	50
		UF0131 Erakundeetan, menpekotasun egoeran dauden pertsonen komunikazio teknikak	50

LANGABETUEI ZUZENDUA (LANBIDE)

ZIURTAGIRI PROFESIONALAK: FMEC0110 Soldadura elektrodo estaliekkin eta TIG

680

DOAN

Altueran lan egitea

Garabietan lan egitea

Eskorgan lan egitea

20

20

20

DOAN

IDAZKARITZAKO ORDUTEGIA

Asteleheneetik ostiralera: 08:00 - 18:00

ETXEBARRI AUZOAN, Z/G / 22 Pk.

20550 ARETXABALETA (GIPUZKOA)

WWW.IARETXABALETA.COM

IA@IARETXABALETA.COM

T. 943 797 900 / 943 797 943

F. 943 770 955

lanbidez

heziketa

formación profesional

2

0

0

6

ASINOR

R

Enpresa

Erregistroa

2013/2014

2013/2014

IKASTURTEA

IKASTAROAK

DOHAINIK

LANGILE ETA

LANGABETUENDAKO

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HOBETUZ

Enpresa

Erregistroa

2013/2014

Europako Gizarte Funtza

Euskaltzaleen aldarrikapen eguna

Bihar, irailak 28, ospatuko dute TopaEguna Sorluzen, eta askotariko ekitaldiak egingo dituzte

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Jose Angel Irigarai idazle eta poetaren eskutik jaso dugu, asteen, bihar Sorluzen egingo den TopaEgunerako gonbita. "Euskalduntasunari, mugimenduari, plazari... emaiou ba lorea. Nokagune, tokagune, ospagune, kalegune, zorogunean... Sorluzeko TopaEgunean". Berba horiekin bukatzen da Irigarairen gonbidapena.

Bihar, irailak 28, egun osoko festa egingo dute euskaltzaleek Sorluzen. Aldarrikapenerako eguna. Euskaltzaleen lana era-kusteko eguna. Hori guztiori kaleratzeko, egun osoko egitaraua antolatu dute (ikus ondoko taula). Adin guztiendako ekitaldiak egongo dira.

Eguneko ekitaldi nagusia 18:00etan hasiko da. Horretan, Euskal Herri osoko euskaltzaleen topaguneetako ordezkariak parte hartuko dute. Horretaz gain, aisialdiko eskaintzak (umeen hiria, hezitzaileen jolasak, berba probak, Irrien Lagunak...), kultura eskaintzak (Xero Xiette taldearen erromeria -haiek egin dute TopaEguneko kantua-, Kokein eta Gose taldeen kontzertua, bertsolariak, Andrabanda feminista,...) eta herri bazkaria egingo dituzte Sorluzen, besteak beste.



TopaEguneko antolatzaileak aurkezpen egunean. | GOIENA

TOPAEGUNEKO EGITARAUA

11:00 Harrera.

Goizean zehar.

- Umeen hiria.
- Berba probak.
- Andrabanda feminista.
- Kantu jira.
- Puzgarriak.

12:00 Jon Sarasuaren azken liburuaren aurkezpena.

14:30 Herri bazkaria.

Bazkalostean.

- Irrien Lagunak.
- Kultur gindak.
- Hezitzaileen arteko jolasak.
- Kalejira.

18:00 Ekitaldi nagusia.

19:00 Xero Xietterekin erromeria.

20:00 Kokein eta Gose.

Euskal literaturak ere bere txokoa izango du bihar: Jon Sarasuaren azken liburuaren aurkeztuko dute; hain zuzen ere, *Hiztunpolisa: euskaltasunaren norabideaz apunteak* delakoa.

Aitzindariak

Sorluzeko Pil-Pilean euskara elkarteak eta Euskaltzaleen Topaguneak antolatu dute biharko festa eguna. Deba bailarako euskara elkarteak -gure bailarako Jardun, AED, Txatxilipurdi, Ekin eta Loramendi, tartean- haiekin elkarlanean ibili dira, eta Goienaren laguntza ere izan dute.

TopaEguna euskaltzaleen jaieguna izatea nahi dutela azpimarratu dute antolatzaileek; euskaltzaleen ekarpenaren eskertze eta aldarrikapena izan dadin nahi dute, baina baita ospakizuna ere: "Euskal Herri osoan elkarreetan antolatuta dauden euskaltzaleen festa eguna, elkar ezagutza eta trukerako eguna izatea nahi dugu", azaldu dute.

Bada, Sorluzen ospatzea ere ez da kasualitatea, antolatzaileen ustetan: "Deba bailarako euskaltzaleak aitzindari izan dira beti euskara elkartearen mugimenduan, eta, oraingoan, Deba ibaitik gertu egingo ditugu gure aldarrikapenak".

Mintzalagunen egitasmoarako izen-ematea zabalik dago

M.B. | ARRASATE

2013-14 ikasturteko Mintzapraktika egitasmoak asteen aurkeztu dituzte Donostian. Egun, 5.000 "superheroi" anonimok dihardute egitasmoan parte hartzen; tartean, debagoiendarrak. Aurten, 22 herri eta eskualdek hartu dute parte kanpainen, eta inoizko bateratuena izan da. Hainbat herritan zabalduko da kanpaina; besteak beste, Arrasaten eta Bergaran.

Dagoeneko zabalik dute izena emateko epea: herriko euskara elkarteetan, euskaltegietan, udaletan edota www.mintzalaguna.org webgunean egin daiteke.

Talde txikiak

Bospasei lagunek osatutako talde txikiak dira eta asteen behin biltzen dira. *Berbalagun*, *mintzakide* edo *solaslagun* izena ere hartzen dute, besteak beste, eta 80 herri eta eskualdetan daude zabaldua. Horietan parte har dezakete euskaltzaleek, hitz egiteko jarioa suna lortu gura dutenek eta hizkuntzaren aldeko alea jarri nahi dutenek.

1. urteurrena ospatzeko PROMOZIO BEREZIA

Ekarri zure lagunak eta abonuan,
%25_{eko} deskontua
aplikatuko dizuegu!

Abonatu berriak ekartzen dituen abonatuarentzat eta baita lagunentzat.

ibarra | ...**merezi**
KIROLDEGIA dau!

• Markole auzoa z/g | 20550 Aretxabaleta
• Tel.: 943 03 98 42 | info@ibarrakiroldegia.com



Jon Sarasua | Irakaslea

"Liburu honetan ez ditut ideiak ezkutatu nahi izan lagunen arteko bakeagatik"

- 'Euskaltasunaren gaineko apunteak' batu ditu Jon Sarasuak liburu batean
- Soraluzeko TopaEgunean aurkeztuko ditu euskalgintzaren gaineko hausnarketak

ENEKO AZKARATE | ESKORIATZA

Euskalgintzaren gainean azkeneko urteotan egin dituen hausnarketak bildu ditu Jon Sarasuak (Aretxabaleta, 1966) bere azken liburuan. *Hiztunpolisa, Euskaltasunaren norabideaz apunteak* da izenburua eta Soraluzen aurkeztuko du zapatuan, TopaEgunaren barruan. Liburuaren gainean jardun dugu harekin Huhezín, Eskoriatzan, han baitihardu lanean.

Zergatik liburua eta orain?

Luzaroan jardun izan dut, nola-bait, euskalgintzaren inguruan. Kulturgile moduan edo soziolinguistikaren alorrean ikuspegi batzuk lantzen joan naiz eta leku desberdinetan barreiatu zaizkit ikuspegi horiek: hemen hitzaldi bat, testu bat, han ikastaro bat... apur bat era desordenatuan, buruan beste gaiak eta beste gauzak egiten nituen bitartean. Euskaltasunaren edo gure izaera kulturalaren eta eginkizunen gainean pentsatzea izan da, edo zelan ere, nire langaietako bat.

Eta liburuan batu dituzu pentsakizun edo hausnarketa horiek?

Bai, ze, han eta hemen ibili naizen arren, orain arte ez baitut inoiz eduki hori guztia liburu batera ekartzeko patxadarik. Bi arrazoi nagusigatik: hamabi bat urtean gai sozio-ekonomikoetan, auto-eraketaren ideien inguruan, zentratu nuelako gehiago lan jarduna. Hor ibili nintzelarik, astirik ez nuen izan. Bestetik, hizkuntzaren gaia, halere, ez dut sekula utzi eta azkeneko urteotan indar handiagoarekin heltzeko gogoz nengoen. Konturatu naiz hainbat ideia barreiatuta nituela eta dua lauzpabost urte erabaki nuen orain zela unea horri heltzeko, forma emateko eta idazteko.

Gauza berririk ere aurkituko dugu, orain arte jendaurrean esan bakoak?

Bai, badira kontzeptu, gai eta ikuspegi berriak. Hasieran uste nuena baino gehiago. Gauza arriskatuak ere bai tartean. Debaterako material arriskatu samarra bildu nahi izan dut gai batzuetan.

Material arriskatuaz diharduzunean, zer esan nahi duzu?

Begia jarri dut hizkuntza komunitatearen erdiko geruzan, zelanbait esatearren, geruza antolatuarenean. *Euskalgileei* begira idatzi dut. Hainbat puntu delikatu dago: erakunde publiko eta erakunde sozialen arteko funtzio banaketa; edo alderdi politikoen helburuen eta hiztun komunitatearen taupaden arteko dialekti-



Jon Sarasua, Eskoriatzan, Huheziko fakultatean, martitzenean. | ENEKO AZKARATE

"Helburua izan da debatea sortzea, ez jakintzaren talaiait idaztea"

"Alor askotan, baita euskalgintzan ere, estrategia mailako ahulaldian gaude"

ka... Gero liburua nahiko behera jaisten da eta berba egiten dut hedabideez, kulturgileez, nazioartekotasunaz, unibertsitateaz, hezkuntzaz... eta espero izatekoa da batzuei ez gustatzea planteatzen diren gauza batzuk. Baina uste dut idaztea zerbitzu hori eskaintzea dela, debaterako.

Aurreiritzi, egiteko modu edo ohi-tura batzuk zalantzan jarri nahi izan dituzu?

Bueno, hori esatea handinahi samarra izango litzateke. Ez dut ezer auzitan jartzeko helburu jakin bategatik egin. Doinu nagusia eraikitzailea da, eta eraikuntza horren zuhaitzak adar pila bat ditu. Nire barne bulkada nagusia izan da disko gogorra hustea. Burua apur bat libratzeko, beste gai batzuetarako ere. Ideia hauekin okupatua izan dut disko gogorraren parte bat eta hori atera, hustu, nahi izan dut. Irten den

horretan badaude zati astintzaile batzuk, badaude zati sakonagoak, baita energiak pizteko eta biltzeko doinua duten zatiak ere... Nagusiki, norabiderako egindako marrazkiak dira.

Norbait minduta senti daiteke?

Gerta liteke. Halere, ez dira testu gordinak edo probokatzen helburuarekin egindakoak. Era berean, ez ditut ideiak ezkutatu nahi izan lagunen arteko bakeagatik (mundu honetan ia denok baikara lagun edo ezagunak). Badauka boltajea. Eragile batzuk deseroso senti daitezke esandakoekin. Liburuak bi parte ditu: batetik, lehen bederatzi kapituluetan, zati inorganikoa deitu diodan horretan, euskaltasunaren geroa pentsatzeko oinarri batzuk jorratzen dira. Bigarren atalean, beste bederatzi kapituluetan, alde organikoan, antolatze edo antolakundeetarako ideiak aletzen dira: gizarte eragileak, hedabideak, kulturgintzakoak, erakundeak... antolatze ideiak. *Zer egin?* galderari begira dago gehiena.

Zer egin beharko genukeen?

Estrategia da helburu-kateak antolatze gaitasuna. Baina aurretik bisio edo norabide maila lantzea eskatzen du. Nora goaz? Uste dut gauza askotan etorkizun-ikuspegi mailako lausoaldi batean gaudela. Hori lausotzen denean estrategiak ahuldu egiten dira, nahiz eta plan estrategikoak egin. Gizartean alor asko, eta euskalgintza ere bai, estrategia mailako ahulaldi batean dago.

"Dentsitate guneak behar ditu euskarak, taupada eta sormena dutenak"

"Liburuak badauka boltajea eta eragile batzuk deseroso senti daitezke"

Euskaltasunaren norabideaz apunteak titulatu duzu liburua. Zergatik apunteak?

Ehunka testu zatirekin osatua da liburua, zati nahiko laburrak. Gauza asko dago, gai asko, gehiegi beharbada. Espero nuena baino gehiago. Gauzak apuntatzeko tonuan egin nahi izan dut, erraz irakurtzeko moduan. Eztabaida sortzeko helburuarekin, eta ez jakintzaren talaiait egindako zerbait balitz moduan. Horregatik deitu diet *apunteak*.

Ilunaldi estrategikoa aipatzen duzu. Ikuspegi ezkorra daukazu euskalgintzaren gainean?

Ez eta bai, baina aldarte eraikitzailean eginda dago. Proposamen eta proiektio dezente dago eta hori ezin da ezkortasun mota batetik egin. Era berean, testua bada kritikoa edo kezkatua. Bost hamarraldi egin ditugu, 50 urte, euskalgintza modernoaren aroan.

Horri daukan balioa eman behar zaio. Egin dena izugarria da, eta aitortzea sen onekoa da. Ikuspegi unibertsal batetik begiratuta, munduko beste hizkuntza gehienetatik, euskal hiztun komunitateak egin duena oso kontuan hartzekoa da. Baina ez dezagun egin mediku-diagnostiko okerra. Dagokigun osasun-diagnostikoa serioa da, arduratzekoa.

Zergatik?

Belaunaldi berrien joeretan eta mundutik datorrigun input uholdean euskarak ze igeri mota egingo duen ikusteko dago. Berrasmatu beharra dago gauza asko, eta mendeak galdera asko dakar. Hori sentitu daiteke modu dramatikoan edo tonu jolastiagoan.

Hizkuntzen hegemoniaz ere badiharduzu. Zer esan nahi duzu?

Dentsitate guneak ere behar dituela hizkuntzak. Hegemonia kontzeptuaren inguruan hiru begiratu egiten ditut, elkarren osagarriak. Horietako batean azpimarratzen da euskararen dentsitate guneak indartzeko beharra. Eta ez naiz ari dentsitate geografikoez bakarrik: hedabide bat, eskola bat, fakultate bat, kulturgintza sare bat... euskarak taupada eta sormena lortzen dituen guneak.

Politikoetan edo erakundeetan baino gehiago jendarte auto-eratuak indartzean jartzen duzu begia...

Politika eta *polistika* hitzen arteko joko bat egiten dut. Berez, politika da polisa, hau da, herria bere osotasunean pentsatzea: herrigintza. Baina politika hitza erabiltzen da izendatzeko alderdi politikoen joko estatuko boterea lortzeko eta administratzeko. Tranpatxo bat eginez, jolas bat, orrialde batzuetarako *polistika* hitza erabiltzen dut liburuan, herrigintza zabalagoa izendatzeko, eta beste joko politiko horrekin dialektikan jartzeko. Hizkuntzaren gaia, jakina, erabat *polistikoa* da, eta politikoa ere bai. Despolitizazioa ez, berpolitizazioa behar dugu, oinarri desberdinetan. Oso kontuz ibili behar dugu alderdi ikuspegi konkretu baten aldera identifikatzearekin euskararen aldarria. Euskalgintzaren taupada autonomia bere lekuan jarri behar dugu, aro berri honetan. Eta arlo batzuetan horretan ez gabiltza oso fin, gauzak eta ideiak nahasita dabil-tza, inertzia asko dago.

Elkarriketa osoa:
eskaneatu QR kode hau
poltsikokoarekin.




Amaia
Txintxurreta
Kantariko
aurkezlea



4. edizioa
Kantari

Garaiz zabiltza Eman izena!



Goiena Komunikazio Taldeak Debagoiengan KANTARI karaoke-ikuskizuna laugarren aldiz antolatu du.

Udazkenean egingo dugu KANTARI. Beraz, Debagoiengan bizi bazara, **2001. eta 2005. urteen artean jaio bazinen** eta euskal kantuak abestu eta dantzatzeko prest bazaude, animatu eta eman izena.

Gutxienez hiru laguneko eta gehienez bost laguneko taldeak osatu beharko dituzue. Abestiak zozketa bidez banatuko ditugu.

Izena emateko azkeneko eguna urriaren 2a izango da.
Bi modutara eman daiteke izena: telefonoz **943 25 05 05**
edo posta elektronikoz **idazkaritza@goiena.com**.

Parte hartzea doan da.
Ez da derrigorrezkoa Goiena Klubeko bazkide izatea.

Informazio gehiago: 943 25 05 05
<http://blogak.goiena.net/kantari/>

goiena

ZABALIK

EDUARDO
ZUBIAURRE
goiena.net/iritzia/



Gipuzkoa
noraezean

Duela gutxi Deusto Business School-eko dekanoarekin izan naiz; XXI. mendeko gizakiok Errenazimendu berri batean gaudela dio, non aurreko jarra, iritzi eta jokabideak ez duten zentzurik, norbanakoak benetako protagonistak garen eta balioa ezagutzatik, malgutasunetik, multi-kulturalitateetik eta erakargarriak izateko gaitasunetik sortzen den. Bestalde, industrian datozen aldaketez Tecnaliak uztailean egin zuen jardunaldian, auke-ra izan genuen Frantziako Nord-Pas de Calais-en eratzten ari diren ekimen publiko-pribatuari buruz jakiteko, energia berriztagarrien inguruan sustatu behar dituzten hainbat inbertsio, egitasmo eta lan-ildori esker hamarkada batean munduko erregio industrial aurreratuenetako bat bihurtzeko asmoa dute; Tecnalia eta Veolia euskal enpresak parte hartzen dute.

Mundua azkar aldatzen ari da; gipuzkoarrok zertan ari garen galdetzen diot nire buruari eta ezinezkoa gertatzen zait zuzen gabiltzanik erantzutea. Aldundian egitasmo ekonomikorik gabe, aurreko urteetan abian jarritako ekimenak geldi, enpresetan krisierengatik pairatzen ari garen zailtasunei inon gertatzen ez diren moduko lan harreman gatazkatsuak gehitzen zaizkie; eta politikari gehienen kritikak lehiakortasuna sustatzeko asmoz erabakiak hartzen dituzten enpresarien ordezkari zuzentzen zaizkie. Berandu izan baino lehen konturatuko gara okergabiltzala? Ezinezkoa dela lanpostu duinak eta ondo ordainduak, sarrera fiskal handiak eta iraunkorrak, ongi-zatea eta zerbitzu publiko zabal eta doakoak izatea, ahalegin pertsonala, bikaintasun profesiona, arriskuak hartzeko adorea, ekintzailetasuna, enpresa lehiakor eta egitasmo partekatua sustatu gabe?

Gaitasunak izanda, aurreiritzi antzuak eta barne beldurak gainditu ezinik, aurrera-penaren aukerak alferrik galtzen dituen herriak, bere buruari eta ondorengoei, txi-rotasuna, menpekotasuna eta emigrazioa besterik ez dio eskaintzen. Eta bada jadanik, gure buruari kontuak eskatzen hasteko garaia.

"Berandu izan baino lehen konturatuko gara okergabiltzala?"

Lomceri ez!
Inposaketei ez!

Iker Elexpuru, Garazi Garitaonaindia, Nerea Agirre, Mari Karmen Garrido, Oihana Aranburu, Maite Otxandiano, Alaitz Morras, Larraitz Herrero, Amaia Arrieta eta Eneritz Ugalde (Hezkuntzaz arduratutako Arrasateko lantaldea) Arrasate

Lomce-ren inguruan hamaika kezka eta eztabaida.

Informazio ugari, kontrako ahots asko. Zer gertatzen da gure herrian? Zer dugu esateko honen aurrean? Opor aurretik gaiaz kezkatutako

herritar talde bat elkartu eta gure kezka, ideia eta burutazioak konpartitzen hasi ginen.

Egungo hezkuntzaren egoeraz eta Wert-en aurre-proiektuak suposatu eta ekarriko lukeenaren inguruan informazioa, irakurketak eta eztabaidak konpartitu ostean, lege honi ezezkoa esan eta inposaketen aurrean planto egiteko arrazoi eta urraketa nagusiak mahai-gaineratu nahi ditugu, Lomcek suposatuko lukeen atzeraldia irudikatuz.

1-Helburu merkantilistak eta pribatizazioaren lehenestea. Helburu gisa ez da herritar bizitzarako prestakuntza eta garapen integrala aipatzen; hezkuntzaren helburu gisa, merkatuaren interes eta beharrei erantzuna ematea azaltzen da. Lomceren printzipioek, beraz, eredu neoliberal basatiaren ikuspegia islatzen dute.

2-Elitista. Emaizta eta botere ekonomikoan oinarritutako lehiakortasuna eta sailkapenak sustatzen ditu.

3-Hezkuntza eskubide eta printzipio inklusiboen urraketa. Curriculum bakarra eta bide paraleloak planteatzen dira homogeneotasunaren bidean, eta honek testuinguru ezberdinen eta existitzen den aniztasunaren kontra egiten du. Norberaren errealitatea ukatu eta murrizten du.

4-Segregazioa. Onartezina da parekidetasunean oinarritutako balore eta heziketari lotutako neurriek duten kutsu baztertzaila eta atzerakoa; esaterako, sexuen araberrako segregazioa diruz lagunduz.

5-Curriculumaren kontrola-hezkuntza eredu zentralista eta hegemonikoaren gailentzea. Herri gisa, gure herri, kultura eta hizkuntzaren ukazioa areagotzen du, Euskal Curriculumaren alde egindako lan eta ibilbidea aintzatetsi gabe.

6-Euskara. Hirugarren mailako hizkuntza bilakatzen du.

7-Erlijio katolikoaren inposaketa. Erljio bakar baten ideiak herritarrak batzen gaituzten balore etikoen maila berean jartzen du, beste erlijioak ere baztertuz.

8-Ebaluazio etengabeak eta kanpo-kontrola areagotzea. Ebaluazio sistema gogortuko da LH, DBH eta BH bukaeran, espainiar estatu guztian irizpide berdinak jarraituko dituzten frogak ezarriz.

9-Antolaketa hierarkizatu eta bertikala. Erabaki-guneen desagertzea eta hezkuntza-komunitatearen parte-hartze aukerak murrizten ditu. Eskola-kontseiluak aholku organo soilak bilakatuko ditu.

10-Masifikazioa. Ratioak handituko

GUTUNAK

dituzte; hau, batetik, hezkuntza laguntzaren behar handiena duten ikasleen kalterako izango da, hauek porrotera eta irakasleak lan baldintza gogorragoetara kondenatuz.

Oinarritzko hezkuntza eskubide eta guztiontzako hezkuntza eskubideak bermatuko dituen hezkuntza eredu eta hezkuntza politikak aldarrikatzen ditugu honen aurrean.

Gure ezaugarri eta beharrian propioei erantzunaz, orain arte egin dugun ibilbidea aintzat hartuz, hobetzeko ditugun alderdi eta erronkei helduz, gure herriak behar duen hezkuntza ereduari buruz eztabaidatu eta erabakitzeko eskubidearen alde egiten dugu.

Eta hezkuntza herri baten etorkizuna eraikitzeke zutabe garrantzitsuenetarikoa bada, Wert-en esku ezin dugula utzi uste dugu.

Beraz... Lomceri ez!

Euskal Herrian gure hezkuntza sistema propioa eraiki!

Urriaren 12an denok Bilbora!

Energia burujabetza
jardunaldiak

Arkaitz Irureta Arrieta

Elgoibar

Politikari eta enpresariak 4 urterako plan estrategikoak egiten ari diren bitartean, 20 urte barru prospektiba oso txarrean egongo gara energia arloari dagokionez.

Etorkizuna bermatu nahiko badugu, orain da ekiteko unea.

Horregatik, energia burujabetza helburu hartuta, gure kasa urratsak ematen hastea ezinbestekoa da.

Elgoibarren irailaren 28an bidea zabaldu nahi dugunon topaketa egongo da, eta zu ere gonbidatu nahi zaitugu gurekin batera parte hartzera.

Goizeko 9etan hasita honako puntuak jorratuko dira: *Energia Auzolan taldearen aurkezpena, Energiaren arazoa etorkizunean, Energia berriztagarriak eta efizientzia energetikoa (kontsumoa jaisteko instalatzaile baten aholkuak), Kooperatiba energetikoak Som Energia Gara eta GOIENER, Energia burujabetzarako traba den espainiar legedi energetiko berriaren azterketa eta Berriztagarrien mugak ingurugiroarekiko.*

Ondoren, egun martxan dauden proiektuei buruz hitz egingo dugu eta, bukatzeko, egitasmo lokalei laguntza emateko Basque OSEren aurkezpena entzungo dugu.

Energiaz beteta Elgoibarren elkar ikusiko dugulakoan, larunbatera arte.

San Migeletan ere, zapi
laranja lepoan:
elkartasunetik
konpromisora!

Itsaso Pagoaga

(Aretxabaletako LIBRE lantaldea)
Aretxabaleta

Urrian Euskal Herriaren kontrako beste eraso bat datorkigu. Gatazkaren konponbiderako prozesuak jasaten duen

hamaikagarren eraso. Oraingoan, 80 euskal herritar eta 110 taberna eta elkarte izango dira epaituak.

Alde batetik, 2002. urtean Garzonek irekitako operazioan atxilotutako 40 herritar eta 110 herriko taberna izango dira epaituak. Tartean, Arrasateko Irati taberna eta Bergarako eta Oñatiko Arrano tabernak. Besteak beste.

Bestetik, 2009an atxilotu eta torturatuak izan ziren 34 gazte eta hurrengo hilabeteetan atxilotutako beste 6 gazte ere izango dira epaituak. Denera, 40 gazte. Tartean, Irati Mujika amezketarra.

Garai *berri* hauen aurretik epaiketa politikoeke zentzu gutxi bazuten, gaur egun are eta zentzu gutxiago dute. Konponbide prozesuaren aurkako eraso hauek, eta eman diren pausoak eman eta gero, onartezinak dira.

Jendartearen elkartasuna eta konpromisoe ezinbestekoak dira. Konponbidearen aldeko pausoak emateko elkartasun ekimen ezberdinak antolatuko dira. Eta bertan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. Hori dela eta, aurtengo San Migel jaietan zapi laranja janzteko gonbita luzatzen dizuegu.

Elkartasunetik konpromisora!

Asier Guridi askatu!

Garazi Goitia

(Oñatiko Sorturen Kontseiluaren izenean)
Oñati

Oñatiko Sorturen iritziz, Asier Guridiren atxilotetak logika bati erantzuten dio: estatuek prozesua apurtzeko daramaten jarrerai, hain zuzen, horretarako beraien eskura dituzten baliabide guztiak horren zerbitzura jartzen dituztelarik.

Honela, Aieteko Bake Konferentziak eta ETaren erabakiak irekitako konponbiderako aukerei, ondoren euskal iheslari politikoeke Biarritzen eginiko agerraldian atxikimendua emateaz gain, proposamenak eta konponbiderako konpromiso zuzena egin zuten.

Espainiar eta frantziar estatuek proposamen hauei muzin egiten diete eta nahiago dute errepresio eta sufrimenduaren gupil zoroaren eskeman jarraitu gatazka politikoa dituen erantzukizunak ezkatatu nahian.

Madrilgo eta Parisko gobernuak zelai politikoa lokazten ari dira etengabe, konfrontazio giroa piztu nahian euskal gizartean, baina beraien jokabidearekin lortzen duten bakarra gatazkaren behin betiko konponbidea nahi duen herritarren gehiengoarengandik gero eta gehiago urruntzea da.

Dei egiten diogu Venezuelako herriari, torturatzaileak defenditzen dabilen espainiar eta frantziar estatuen eskaerei ez diezaiela men egin.

Euskal gizartearen gehiengoak apustu argia egiten du bakea eta eszenario demokratikoa eraikitzeke.

Oñatiko Sortuk bat egiten du gehiengoaren nahi honekin eta bere esku dagoen guztia egingo du momentu oro prozesuaren aldeko bere konpromisoe bururaino eramateke.

Herri honetan abian jarritako bake prozesua blindatzea guztiori dagokigu eta, beraz, ezinbestekoa izango da errepresioaren aurrean kalera atera eta mobilizatzea.

HERRIAK

BERGARA

Deba ibaia auzolanean garbitzeko deialdia egin dute urriaren 13rako

Epeletik Osintxurainoko tartea garbituko dute herritarrez osatutako 'brigadek'

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Auzolanean garbitu gura dute ibaia bergararrek, eta deialdia egin dute jendeak izena eman dezan. "Ahalik eta jende gehien batu gura dugu", adierazi du Uxue Zabaleta herritarrak.

Deba ibaia garbitzeko deialdia Mankomunitateak egin du eta asmoa da Eskoriatzatik Soralu-zerainoko ibai zatia garbitzea, Oñatira ere helduta. Urriaren 13a da jarri duten data.

Hiru gune

Bergaran pentsatu dute nola eta non egin. "Epeletik Osintxurainoko tartea garbituko dugu bergararrok. Horretarako, ibaia zati ezberdinetan banatu dugu eta taldetxo bakoitzak dagokion zatia garbitzeko ardura izango du. Baina guztion artean egin gura dugu", dio deialdiarekin bat egin duen Uxue Zabaletak.

Garbiketa lana ondo antolatzen hasteko, hiru puntu nagusi zehaztu dituzte: Labegaraietako kiroldegia, herriko plaza eta Osintxu. "Horrela, San Antoniotik Epele bitarteko zatia garbituko dutenak Labegaraietan elkartuko dira; erdigune, poligono eta Mekolalderainoko zatian ibiliko direnak San Martin plazan elkartuko dira eta Osintxu inguruko zatia garbituko dutenak, Osintxun bertan. 08:30ak izango da elkartzeko ordua, eta hantxe egingo dira, gero, taldetxoak eta bana-keta", azaldu du Zabaletak.

Bizikleta eta arropa

Elkartze puntuetan talde argazkia atera ostean, ibaian gora edo



Deba ibaiaren ertzean egin zuten deialdia herritarrek eta udal ordezkariak martitzen arratsaldean. | IRATI GOITIA

DATUA

3

ELKARTZEKO PUNTUAK

Labegaraietan, San Martin plazan eta Osintxun elkartuko dira, 08:30ean.

behera joango dira boluntarioak. "Jendea bizikletan etor dadila gomendatzen dugu. Ibaira puntu ezberdinetatik jaitsiko gara, eta, bidegorria erabiliz, bizikletekin berehala iritsiko gara jaitsiera

puntu horietara", zehaztu du Zabaletak.

Ibaia garbitzeko eraman beharreko materiala eta arropa dela eta, ez kezkatzeko adierazi dute deialdia egin duen taldeak, herritarrek eta udal ordezkariak osatzen duten taldeak. "Materiala, hau da, zaborra batzeko behar diren ontziak, garabiak... Udalak jarriko ditu. Herritarrok arropa eroso baina ez dugu eraman behar; suerta daiteke ibaira erori eta bustitzea ere; beraz, aldatzeko beste arropa bat eramatea ere, gaizki ez. Oinetakoak ere berdin, erosoak, eta, ahal dela, orkatiletan ondo lotzen direnak, bihurrituak saihesteko".

Izena eman behar da

Deialdia zabala da, herritar denei zuzenduta dago eta izenematea zabalik dago. Agorrosinen, kultura etxean edo udaltzaingoa eman behar da izena hilaren 30a aurretik. Posta elektronikoz ere egin daiteke, mezua bidalita erregarbitzeko@gmail.com helbidera. Garrantzitsua da, baina, izena aurrez ematea, aseguruia egin behar da-eta. 14 urtetik gorakoek eman dezakete izena eta adingabeek gurasoekin parte har dezakete. Lana egin ostean, 13:00etan mokadutxo bat hartzeko aukera egongo da herriko plazan herriko elkarte gastronomikoen eskutik.

Beste herri batzuetan

MANKOMUNITATEA Ur eta Errekaren Astea antolatu du urriaren 13tik 19ra Mankomunitateak eta erreka garbitzea antolatu diren ekitaldietako bat izango da. Bada, herri bakoitzak erabakiko du nola antolatu garbiketa eta zein ordu eta gunetan elkartu.

OÑATI Oñatin erakusketa, mendi irteera eta hitzaldiak ere antolatu dituzte, erreka garbitzeko deialdiaz gain. Urriaren 10etik 20ra bitartean egingo dituzte.

ARRASATE Arrasatek ere bat egingo du urriaren 13rako deialdiarekin. Erakusketa eta hitzaldia ere antolatu ditu.

GAINERAKOAK Bailarako beste herri batzuk ere ari dira eurek antolatutako ekitaldien egutegia prestatzen.

ARAZTEGIA Urriaren 19rako, Epele eta Mekolaldeko araztegiak bisitatzeko irteerak antolatu ditu Mankomunitateak. 10:30ean euskaraz eta 12:00etan gazteleraz.



Gosari bereziak

09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11


- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitarbeteak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA



Emausek Ekocenterra irekiko du eta lan-poltsa osatuko dute ikasleekin. | J.B.

Gizarteratze bidean dauden langabeei zuzenduta, ikastaroa

Hondakinen trataeraren ingurukoa da eta lan-poltsa osatuko dute Emausekin aritzeko

Z.V.D.M./U.M. | ARRASATE

Arrasateko Udalaren Enplegu Sailak hondakinen gaineko ikastaroa antolatu du, gizarteratze prozesuan dauden langabeei zuzenduta.

Lan-poltsa, Ekocenterrerako

Hondakinen trataeraren inguruko eginkizun ezberdinetarako prestatuko dituzte ikasleak. Modu horretan, hondakin zati-ki ezberdinak izaeraren zein jatorriaren arabera identifikatzen irakatsiko zaie. Hondakinen kudeaketaren ezaugarriak zeintzuk diren ezagutu zein seguratasun eta lan osasunari ere helduko diete, besteak beste.

Behin ikastaroa amaituta, lan-poltsa bat eratzea da asmoa. Hain zuzen ere, Emaus Gizarte Fundazio Taldeak egun garatzen dituen eta etorkizunean Arrasaten ASAM industria pabiloi zaharraren tokian irekiko duen Ekocenter berriaren irekierarekin garatuko duen ekintzetarako erabiliko da.

Ikastaroaren ezaugarriak

Doako ikastaroa da eta urriaren 11ra arte dago izen-ematea zabalik. 27 eskola-egunetan banatuta, 80 ordu iraungo du. Lan munduan txertatzeko zailtasunak dituzten pertsonen zuzen-

dukako ikastaroa da. Bertan parte hartzeko baldintzak ere badaude: langabezian egotea, Arrasaten erroldatuta egotea, gizarteratzeko hitzarmen bat sinatzeko baldintzak betetzea eta lan baimena izatea.

Aspaldiko elkarlana

Udalak eta Emaus Fundazioak aspalditik dihardute elkarlanean. Nafarroa etorbideko gizarteratze tailerrarekin eta dendarekin emaitza onak ari dira eskuratzen, bai sozialki, bai eta ingurumen ikuspegiari dagokionez.

Udal Gobernuak, gainera, Ekocenterraren aldeko apustua egin zuen eta Foru Aldunditik Emausi 440.000 euro aitortu dizkio proiektuarentzako.

DATUA

80

ORDU

Enplegu Sailaren ikastaroak 80 orduko iraupena izango du, 27 ikastaro-egunetan banatuta.

Erdigunean ere TAO sistema ipintzeko asmoa erakutsi du Udalak

Gertek enpresari zerbitzua esleituta, abendurako martxan ipiniko dute Uribarri-Loramendi gunean

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Martitzeneko ezohiko bilkuran, Uribarri-Loramendi inguruan epe laburrera ezarriko duten TAO sistema kontrolatzeko zerbitzua Gertek enpresari esleitu zion Udalak; lau urtez izango du horren ardura. Kontratuaren formalizazioaren berri Europako buletinean argitaratu behar denez, Udalak gune horretan TAO sistema urte amaieran ezarriko duela aurreikusi du.

Udal Gobernuaren bozeramaile Maider Morrasedi TAOren proiektuaren nondik norakoak ekarri zituen gogora: "Mugikortasun Plan orokorraren barruan kokatutako proiektua da. Plan beraren barruan egongo lirateke dagoeneko eginiko proiektu batzuk: esate baterako, alde zaharra oinezkoentzako gune bilakatzeta eta hiribusaren geltoki kopurua handitzea".

Sei hilabetez proba moduan

Uribarri-Loramendi gunean sistema berria martxan ipini eta sei hilabetez proba moduan egongo da. "Denbora horretan probatuta, neurri zuzentzaile batzuk beharko dira. Hau da, bertako bizilagunekin, komertzioekin eta



Erdigunean ere jarri gura dute TAO sistema bidezko aparkatzea. | Z.V.D.M.

unibertsitatearekin harremanetan ipini eta akatsak non dauden ikusiko genuke, konponbidea emateko.

Erdigunean ere bai

Arrasaten urte amaieran martxan ipiniko duten aurreneko gunea, baina, ez da Udalak herrian gura duen bakarra, eta aparkamendu erregulatuen funtzionamendua erdigunean ezartzeko asmoa ere badute.

Eta hasi dira proiektua lantzen, aditzera eman dutenez. "Abendurako idatzita egongo dela

uste dugu. Eta bertan jasoko dira, besteak beste, zenbat toki beharko den eta zenbat azpiguñetan egongo litzatekeen banatuta".

Udala hasi da dagoeneko egitasmoa lantzen, eta horretarako Ibai-Artereko kideekin egin du berba, esate baterako, gaiarekiko duten iritzia jakiteko.

Behin proiektua eginda, bere denbora beharko du proiektuak aurrera eramateko. "Uribarri-Loramendi gunean bezalaxe, fase ezberdinetatik pasatu beharko du proiektuak, aurrera atera ahal izateko".

Azken egubakoitza izanda, agerraldia deitu du Herrirak

Iraileko azken egubakoitza da gaur, eta, ohi duen moduan, agerraldia deitu du Herrirak. Herriko Plazan izango da, 19:30ean hasita. Modu horretan, 197/2006 doktrina eteteko eskatuko dute gaurko elkarretaratzearekin, eta, besteak beste, *Garratz*, *Kanto* eta *Gau-txori*-ren egoera salatu.

Gripearen aurkako txertoa emango dute gaur Santa Marinan

Gaur, egubakoitza, Santa Marinako erretiratuen elkartearen emango dute gripearen aurkako txertoa; astelehenean, berriz, Uribarrikoan; eta martitzenean, Etxaluzen. 12:00etatik 13:00ak bitartean. Gainera, anbulatorioan egunero emango dituzte. Horretarako, aurrez hartu beharko dute txanda interesatuek.

'Elysium' eta 'Gru 2' filmak, asteburuko Amaia eskaintza

Bi film eskainiko dituzte asteburuan Amaia antzokian: batetik, *Elysium* filma emango dute bihar, 19:30ean eta 22:00etan; eta domekan, 19:30ean. Hurrei zuzenduta *Gru 2* animazio filma eskainiko dute, 3D-n izango da eta bihar eta etzi ikusi ahal izango da, 17:00etan hasita.

JON

Prentsa eta janari denda

EGUNERO ZABALIK:
Astelehenetik ostiralera
07:00-13:30 / 17:00-20:30
Zapatuetan eta domeketan
07:00-14:00

ADI!

ZERBITZU BERRIA!



IBAI-GANen
produktuak
helbide berrian:

Erdiko kalea 9 ARRASATE
kioskoportalon@gmail.com
943 79 34 37

Kupoi hau ekarriz gero,
IBAI-GANen produktuetan

%10eko
deskontua*

* 2013ko urriaren 6ra arte baliagarria.
Erosketa bakoitzeko kupoi bat.



Hondakinen Mahaiko negoziazioak amaitzea erabaki du Udal Gobernuak

"Mahaiaren progresiorik eza" izan da erabakiaren arrazoi nagusia

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Udal Gobernuak Hondakinen Mahaiko negoziazioak bukatzea erabaki du. Adierazi dutenez, "mahaiaren progresiorik eza" izan da erabaki horren arrazoi nagusia; "tamalez, ez gara adostasunera iritsi", gehitu dute.

Joan den ekainean eratu zen Mahaia eta martitzenean batu ziren azkenengoz. Gobernu Taldea osatzen duten Bilduk eta Aralarrek, EAJk, PSE-EEk, Bergara Zero Zabor taldeak eta Bergara Garbia plataformak parte hartu dute bertan. "Mahaiaren hasierako helburua hondakinak biltzeko sistema adostea zen; izan ere, alde guztiok ikusten genuen gehiago birzikla-

tzeko beharra, eta abiapuntu komun honek animatu gintuen aurrera egitera", dio Gobernu Taldeak.

Ez dute lortu, ordea, bakoitzak ezartzen zituen baldintzak bilduko dituen sistemarik adostea: "Luzaro jardun dugu lanean, gaiaren inguruan benetako eztabaida sortu da eta alde guztiok gerturatze ahalegina egin dugu, baina ez dugu lortu bakoitzak ezartzen genituen baldintzak bilduko duen sistemarik adostea. Saiatu garen arren, behin eta berriz iritsi gara puntu batera non ezinezkoa izan zaigun aurrera egitea", azaldu dute.

"Hurbiltzen ahalegindu gara"

Udal Gobernu Taldearen prentsa oharrean haxe jasotzen da: "Hurbilketa egiteko asmoz, jatorriz proposatzen genuen atez ateko sistema egokitu eta sistema misto batera hurbiltzeko ahaleginak egin ditugu". Eta gehitzen dute: "Herriarrek bideratutako parte-hartze saioen ondoren, prest azaldu ginen hiru edukiontzi -urdira, horia eta beirarena- uzteko eta, mahaia sortu zenean, Bergara Garbiaren, EAJren eta PSE-EEren planteamenduetara hurbiltzeko asmoz, aurrekoez gain, edukiontzi marroia, organikoa biltzekoa, gehitzeko prest azaldu ginen, bai gu eta baita Bergara Zero Zabor taldea ere".

Ez dute adostasunik lortu, ordea: "Ikusi dugu beraien planteamenduetara hurbiltzeko gure ahaleginek, tamalez, ez dutela fruiturik eman. Gure ustetan, adostasunetara iristeko asko eman dugu; beste aldetik ez dugu, ordea, malgutasun bera aurkitu", esan dute.

Eztabaida politikotik aldendu

Eztabaida politikotik aldentzeko ahaleginak egin dituztela eta teknikariei protagonismoa ematea proposatu zutela ere esan dute oharrean: "Hain zuzen, opor aurretik adostu genuena zera izan zen: Mankomunitateko tek-

nikariei sistemen bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa eskatzea. Eta horrela egin genuen. Baina teknikarien txostenetatik eratorritako emaitzak aintzat hartzeko konpromisoa eskatu genuenean, berriz ere oztopoak izan ziren. Horrela, bilerak egiten jarraitu dugun arren, konturatu gara indarrak alferrik galtzen ari garela eta gure pertzeptzioa

izan da ez gabiltzala aurreratzen, eta abiapuntutik hurbilago gaudela helmugatik baino".

Horrez gain, Udal Gobernu Taldearen esanetan, "mahaiak biltzeko sistema adosteko izan duen ezintasunak Mankomunitatea osatzen duten herrientzat programatu zen dinamika oztopatu du"; izan ere, "begi bistakoa da inbertsio berriak egin behar

direla ahal bezain azkarren -esaterako, edukiontzi eta kamioi berriak-, eta hori ezinezkoa da erabaki zehatzik hartzen ez den artean", gehitu dute.

Etendako planifikazioari ekin

Azaldu dutenez, horregatik guztiagatik, hondakinen mahaian eramanen ari ziren eztabaida "bukatutzat" ematea eta "parte-hartze prozesuan adostu zen hondakin biltzeko sistemarekin aurrera egitea" erabaki dute; hau da, "papera, ontzi arinak eta beira orain bezala jasotzea -edukiontzietan- eta organikoa eta errefusa esekitokian biltzea". Horretarako, Mankomunitateko teknikariei eskatuko diete eten ziren planifikazio lanak berriz hasteko.

Bukatzeke, eta testuinguru berri horretan, herriarrei lasaitasun mezua igorri diete.



Bergara Garbiako, EAJko eta PSE-EEko ordezkariak, atzo, eguna, Irizar jauregian. | TXOMIN MADINA

EAJ, PSE-EE eta Bergara Garbia: "Ez zuten akordiorik nahi"

EAJ eta PSE-EE alderdiek eta Bergara Garbia plataformak ere eman dute euren iritzia Hondakinen Mahaiaren etenaren harira. Hain zuzen, prentsaurreko bateratua egin zuten atzo, eguna, eguerdian.

Agerraldian azaldu zuten, "azkenean, Bergarako Bilduk, aldebakarrez, Hondakinen Mahaia amaitu du eta harekin akordioa sinatzeko edozein aukera zapuztu du". Agerraldiko deitzaileen esanetan: "Ez dituzte aintzat hartu bosgarren edukiontzia alde gaudenon argudioak; hau da, Bergara Garbiarena, EAJrena eta PSE-EErena. Eta guztia herriarreganako itxura hobetzeko asmoz egindako saiakera izan da, erabakia hartuta zegoelako".

"Erabaki politikoa da"

Herrian dagoen "gizarte arazo bati buruzko erabaki politikoa" dela uste dute, "kontra azaldu diren herriarreganako inposaketa delako". Eta

azpimarratu dute: "Inposaketarik gabe eta ingurumen osasungarri baten aldeko gure konpromisoa babestuz, hemen gaudenon zilegitasuna berresten duten 4.691 sinadura bildu, leihotetan poltsak zintzilikatu eta bestelako mugimenduak egin dira".

"Ez dute akordiorik nahi izan"

Mahaiak iraun duen denbora "lanak aurreratzeko bakarrik" erabili dutela ere egotzi diote Gobernu Taldeari: "Hitz eman arren ez zuela atez atekoaren ezarketaren inguruan ezer egingo, negoziazio denbora euren lanak aurreratzeko erabili dute. Ez dute akordio batera irisi nahi izan eta existitzen ez den elkarriketarako jarrera saldu nahi izan dute".

Horren aurrean, "azkenik pentsatuta zutena egitea erabaki" dutela ere uste dute: "Hiru edukiontzi ezarri, beira, papera eta ontzi arinentzat, eta zintzilikarioak, organikoarendako eta gainerakoarendako". Baina

eurek argi daukate Udal Gobernuak proposatzen duen sistema "garestiagoa, deserosoagoa, antiestetikoagoa eta osasunarentzat kaltegarria" dela "eta aurretik jakin ezin ditzakegun ondorioak" ekarriko dituztela.

"Izaera demokratikorik ez"

Hiru taldeen arabera, "horrek guztiak agerian lagatzen du udal gobernariak ez dutela izaera demokratikorik, badakitelako herriar gehienak planaren aurkakoak direla". Eta gehitu dute: "Askotan eskatu dugu Bildu gobernuan dagoen Zumaia zein Azpeitian lortutako akordioetara iristea, baina ez dute gure eskaera onartu nahi izan. Hori horrela, "herriaren iritzia berretsi nahi izanez gero, konponbide erraza" duela ere uste dute: "Herri kontsulta". Hain zuzen, Twitter-erako traola-hitza ere sortu dute Bergarako galdeketa bultzatzeko: #bergarakontsulta.

'Impasse' egoeran zegoen

Bergara Zero Zaborren ustez, Mahaian parte duten guztiek "ahalegin handia" egin dute eta eurentzat ez da "ahalegin antzua izan". Hala ere, Gobernu Taldearekin ados daude "aspalditik *impasse* egoerara helduta" zegoela.

Bi arrazoi nagusi eman dituzte adostasunera ez iristeko: batetik, helburuetan adostasunik ez egotea: "Edozein sistema baloratzeko gertu egon gara, betiere, jasotako hondakin kopurua atez atekoarekin jasotzen denaren antzerakoa izanda, baina atez atekoaren kontrakoek ihes egin diote helburuak adosteari, euren ustez adostu beharreko bakarria batze sistema zelako". Jasotze sistemetan ere ez dira ados jarri: "Atez atekoaren kontrakoek aldetik beti egon da erresistentzia handia kontrol pertsonalizatuko sistemen kontra".

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

EAJko Udal Taldeak "zabor biltzetaren eskasia" salatu du

M.B. | BERGARA

"Zaborrontziak ez hustea eta kaleko hondakinen pilaketa" salatu du asteon EAJko Udal Taldeak prentsa ohar baten: "Hondakinen eta zaborren biltzetaren eskasia eta utzikeria biziaz igaro dira hainbat hilabete. Udako hilabeteetan biltzetarik eta zaborrontzien husterik egiten ez zela

ikusitako ahal izan dugu, eta, ondorioz, herriarrok usain desatseginak eta zerbitzu txarrak jasan behar izan ditugu, zaborrontziak gainezka eta zabor poltsak lurrean utzita".

Horren aurrean, EAJko zinegotziek salatu dute herriarrek tasak ordaintzen jarraitzen dutela, "geroz eta handiagoak, gaine-

ra, baina zerbitzuak okerrera" egin duela "nabarmen". Eta gehitzen dute: "Kamioi erdiak hondatu egiten dira, eta, ondorioz, egun horietan ez da zaborrik batzen. Bestalde, zenbait zaborrontzi ez dira garbitzen eta hondatzen direnak ez dira konpontzen eta, ontziren bat eramanez gero, ez da ordezkatzen. Material eta azpiegituren mantenu falta oso nabaria da eta egoera hori egunotan maiz errepikatzen ari da". Hori "birziklapena sustatzeko bidea ez" dela ere uste dute.



Hondakinak lurrean. | BERGARAKO EAJ

San Migeletarako dena prest, txantxikuaren zain

Egitarau osoa jasotzen du gaurko GOIENAn datorren gehigarri bereziak

IRATI GOITIA | OÑATI
Oholtzak, txosnak, kaleak giro-tuta... dena prest dago jaiei ongie-torria egiteko.

Urtero moduan, txantxikuaren jaitsierak emango die jaiei hasie-ra bihar, zapatua, 20:00etan. Eta horren ostean, ez da etenaldirik izango, askotarikoa izango da-e-ta eskaintza.

Danbor hotsak
Bada, nagusien danborradak hartuko ditu erdiguneko kaleak bihar gauean. 23:00etan hasiko du ibilbidea Bidaurretan eta

amaitu, berriz, Foruen plazan amaituko da.

Gaupaseroek eta mendizaleek igandean 8:00etan dute hitzordua argazki erraldoirako txosnetan.

Bandaren kontzertua
Domekan, San Migel egunez, meza nagusia izango da San Migel parrokian, koruak abestuta, 12:00etan. Musika gehiagoz gozatzeko aukera ere egongo da Lazarraga jauregiko lorategian, 13:00etan: Oñatiko Udal Bandak kontzertua emango du. Eta 18:30ean txistu-lari alardea egingo dute, sei urte-

ren ostean. Bestalde, umeendako ere egongo da gozatzeko aukera domekan: haur parkea izango da Etxaluzen. Beste hitzordu batzuk: pilota txapelketa, kontzertua Atzeko kalean eta *Infernuko haus-poa* ikuskizuna plazan, gauean.

Txantxiki eguna
Haur, gaztetxo zein gurasoenda-ko ekitaldi bereziak izango dira astelehenean. Hala, 12:00etan, urtean zehar jaiotako hurrei ongie-torria egingo diete udale-txean eta *Zuk ekarri, zuk jan!* bazkaria egingo dute.



Txantxikua txosnagunera iristen; aurtan ere hala hasiko dira jaiak. | GOIENA

Txosnak, giro oneko gune askea

Txosnetako egitaraua osatzen hamar kolektibo ibili dira: Oñatiko Herrira, Oñatiko Gazte Asanblada, Ernai, Oñatiko Emakume Asanblada, Fan Hemendik Batzordea, San Martingo Etxe Okupatuko Asanblada, AHT-rik Ez!, Mirentxin, Udana Kotxezaliak eta Narrarte Motorzailak.

Aurtan, lehendabizikoz, eraso sexisten aurkako protokoloa ezarri dute. Erasoa saihesteko eta horiei aurre egiteko tresna moduan erabiliko dela adierazi dute.

Bestalde, aurtan, sukaldetik ateratako dirua Berria Laguna taldearendako izango da.



Martitzenean Txosna batzordeak egin zuen prentsaurrekoa. | MIREIA BIKUÑA

Kanpotik datozenendako, gaztetxean lo egiteko tokiak egongo da. Hala, jendea animatzen dute jaietara Txosna batzordetik.

Jaietan ahalik eta zabor gutxien sortzea bultzatzen dute.

Jaiengatik izango diren aldaketak

KIROLDEGIA
Itxita egongo da egun osoz irailaren 29an eta 30ean eta urriaren 5ean, 6an eta 7an. Urriaren 8an goizez egongo da itxita, 14:00etan irekiko dute.

ZINEMA
Ez da zinemarik egongo datozen bi asteburuetan. Urriaren 11ko asteburuan itzuliko da eskaintza ume zein helduentzat. Eta zinekluba urriaren 17an.

TURISMO BULEGOA
Urriaren 7an, astelehena, itxita egongo da.

UDAL BULEGOAK
Itxita izango dira udal bulegoak irailaren 30ean, astelehena, eta urriaren 5ean eta 7an, zapatua eta astelehena.

ARROPA AZOKA
Jaiak direla-eta, aste honetan tokiz aldatuko dute zapatu goizetan egiten den arropa azoka. Horrenbestez, plazako frontoiko aparkalekuan egin beharrean, Santa Marina plazan egingo dute. Eta Herri Egunean ez da arropa azokarik egingo.



IRATI GOITIA

Guridiren atxiloketa salatu dute

Joan den asteko egubakoitzean Venezuelan atxilotu zuten Asier Guridi Zaloña oñatiarraren atxiloketa salatze-ko elkarretaratzeak egin dituzte aste honetan Foruen plazan, Oñatiko Sortuk deituta. Astelehenean egin zuten bat eta atzo, eguna, beste bat osoko bilkuraren aurretik. Hain zuzen ere, mozioa aurkeztu zuten atzoko osoko bilkuran.

Mosaiko erraldoia egingo dute Aloña Mendi elkartekoek bihar

500 lagun elkartu nahi dituzte Foruen plazan, denen artean kirol elkartearen ezkutua irudikatze-ko

I.G. | OÑATI
Aloña Mendi kirol elkartearen inguruan dabil-tzan guztiak batu nahi dituzte bihar, mosaiko erraldoia egiteko. "Gure helburua da Aloña Mendi elkarteak mugitzen duen jende guztia elkartzea eta kopuru handi hori irudikatzea mosaikoaren bitartez", adierazi digu antolakuntzan jardun duen Aratz Losadak.

500 lagun
"Ez da Aloña Mendiko kirolariei eginiko deialdia soilik; laguntzai-le, kolaboratzaile edo zuzendarit-zan dabil-tzan edo ibili diren guztiei egiten diegu dei. Aloña Mendirekin nolabaiteko harre-mana duten guztiei", zehaztu digu Losadak. Hala, herritar guztiak animatzen ditu zapatuan 12:00e-tan egingo den mosaikoan parte hartzera. 500 lagun elkartzea

espero dute. "Nik uste dut jende asko etorriko dela, baina badakit talde batzuek hasi dutela denbo-raldia dagoeneko; adibidez, fut-bolekoek. Beraz, ordu horretan izaten badute partidua, ezin izan-go dira etorri. Horregatik ani-matu nahi ditugu baita inguruan dabil-tzanak. Esaterako, beti lagun-tzen dabil-tzan gurasoak", esan digu Losadak.

Koloretako mosaikoa
"Ezkutua egitea zaila izango da, batez ere, forma ematea, baina saiatuko gara. Dagoeneko marraz-tu dugu paperean eskalan eta biharko ekitaldirako egingo dugu-na da hori lurrean marraztu. Ondoren, jendea gainean koka-tuko da, eta, dagoen tokiaren arabera, kolore bateko edo bes-teko paper zati bat izango du", azaldu digu Losadak.

Espainiako bandera jarri beharko dute udaletxean

Euskal Autonomia Erkidego-ko Auzitegi Nagusiko admi-nistrazioarekiko auzi salak eman du epaia, eta Espainia-ko bandera udaletxe-ko fatxa-dan eta areto nagusian jarri beharko da. Atzo izendatu zuten organo betearazlea oso-ko bilkuran, eta orain, bi hila-bete izango dituzte bandera jartzeko, Udalak egin duen irakurketaren arabera.

Gaur emango dute gripearen kontrako txertoa Olabarrietan

Hasi da gripearen aurkako kanpaina. Astelehenean Zubi-laga auzoan izan ziren osasun etxe-ko erizainak hango auzo-tarrei gripearen aurkako txertoa ematen. Gaur Olaba-rrietara auzoan izango dira, 14:30ean, auzoko lokalean. Txertoa hartu gura duenak osasun txartela edo nortasun agiria erakutsi beharko du.

Ibarra kiroldegiaren lehenengo urtea, "gogorra baina emankorra"

Bazkide asko egin ditu urtebeteen kiroldegiak; %20, herritik kanpokoak

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

2012ko irailaren 3an ireki zituen Ibarrak ateak aurrenekoz, eta urtebeteko ibilbideak emandakoak jakinarazi dituzte zuzendaritzako kideek.

Alde onak eta txarrak

"Gogorra izan da. Urtebete egin dugu eraikin berri baten, bere gauza on eta txarrekin. Esaterako, toki berria izatea erakargarria da, polita delako, edo instalazio berriengatik..."

Baina, era berean, martxan ipintzeko orduan zailtasun batzuk izan dituztela gaineratu dute: "Eraikina ere ezagutu behar da -makinak, igerilekuak, funtzionamendua bera, eta abar-, eta obra baten ondorioz sortzen diren arazoei aurre egin behar izan zaie. Eta, jakina, denbora behar da horretarako".

Bazkideen %20 kanpokoak

Krisiak laguntzen ez duen arren, poliki-poliki badoaz bazkide gehiago lortzen. "Jende askori eragiten dio krisiak, argi eta garbi. Dena dela, gure aldetik saiatu gara erraztasunak ipintzen, esate baterako, eskaintza bereziekin".

Horren adibide da urtebetea ospatzeko -eta, bide batez, bazkide berriak lortzeko- egindako azken eskaintza. "Hain zuzen ere, bazkide den norbaitek bazkide berri bat ekarriko balu, %25eko deskontua izango luke te guztiek".



Kiroldegiko rokodromora jende asko joaten da. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

DATUA

2.100

BAZKIDE

Gaur egun, 2.100 bazkide inguru ditu Ibarra kiroldegiak eta gehiago lortzea da epe motzera duten erronka.

koak, Aramaiokoak eta Eskoriatzakoak. Hala, nahiz eta herriko kiroldegia izan, "nolabait ibar osoarena ere badela" pentsatu gura dute.

Eskaintza zabala

Urtebete honetan den-dena ipini dute martxan eta jende asko mugitu dute eskaintzek: ikastaroak, gimnasioa, spa-gunea eta kanpoan eguzkia hartzeko Otalazelai solariuma...

Eta Ibarako rokodromoak ere inguruko jende asko erakartzen duela eman dute aditzera kiroldegitik. "Lehiaketak antolatu dira, ikastaroak... Askotariko zailtasunak ditu eta jendea gustura ibiltzen da paretan gora eta behera eskalatzen".

Urtebeteen herriko kiroldegia 2.100 bazkide inguru izatera iritsi da. "Gehienak aretxabale-tarrak diren arren, %20 Debagoieneko beste herri batzuetakoak dira; batez ere, Arrasate-

Dantzak, joaldunak, musika... ekintzaz lepo datoz San Migelak!

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Gaur hasiko dira San Migel jaiak eta domekara bitartean zer egin egongo da. Haurrentzako, gazteentzako eta helduentzako ekitaldiak antolatu dituzte, eta hiru egunean zehar aspertzetik ez da egongo.

Esate baterako, gaur, 19:30ean hasita, neska-mutikoentzako ikuskizuna taularatuko du Zirika Zirkus taldeak, Herriko Plazan. *Dantzateke* izeneko emanaldia ekarriko dute Aretxabaletera: "Antonello Fellini zinema zuzendari ospetsuak zuen herria aukeratu du urteko bideoklipa grabatzeko. Prest zaudete?". Hori adierazi dute Zirika Zirkuseko lagunek eta herriko neska-mutil guztiak dantzara eta ongi pasatzera animatu dituzte.

Trikitia, txalaparta, dantza...

Bihar, oster, baserriar janzteko eguna da, eta goizean,

esate baterako, kalera irteten diren guztiek musikaz gozatzeko aukera izango dute.

Besteak beste, Leizarra musika eskolako trikitilariak herriko kaleak alaituko dituzte, txalapartariak antzinako soinuak jantziko dute Durana eta Berangoko Simon Otxandategi taldeko joaldunak, berriz, kalean gora eta behera ibiliko dira, herritarren arreta bereganatzeko.

Arratsaldean, bestalde, Loramendik antolatuta eta ohiturari jarraituta, Beinke-Loramendi dantza saioa egingo dute. Durana kalean elkartuko dira, 19:00etan; eta bai aurren ikastaroan aritu diren 20 lagunek, bai eta aurretik ere dantza dakitenek bat egingo dute emaldi berezia egiteko asmoz.

Bada, San Migel jaietako egitaraua GOIENA honetako gehigarrian duzue.

'Janari-alergiak haurrengan' izeneko berbaldia egingo dute urriaren 1ean Arkupen (19:00)

Debagoieneko ESiren Osasun Ikasgelak antolatuta, berbaldia egingo du Miguel Angel Guiu mediku eta Alergia Pediatrikoko kontsultako arduradunak. Urriaren 1ean izango da, martitzenean, 19:00etan hasita, Arkupen. "Orain arte ezarri den tratamendu bakarria alergia eragiten duen janaria ekiditea izan da". Hala, Guiu janari-alergiaren oinarriko kontzeptuez, alergiaren eragileez, sintomez, diagnosiaren bidez, tratamenduaz eta tolerantzien indukzioaz egingo du berba.

Giza katea egingo dute urriaren 2an, Zuhaitz Errasti preso aretxabaleterra Parisen epaituko dutela-eta

Urriaren 4an, egubakoitzean, epaituko dute Zuhaitz Errasti preso aretxabaleterra Parisen eta herritar talde bat bertara joango da elkartasuna adieraztera. Aurretik, baina, urriaren 2rako, eguaztenerako, giza katea antolatu du Aretxabaleterra Herrirak, *Mitartetik plazara, Zuhaitz herrira* lelopean. 19:00etan irtengo da Mitartetik eta herritar guztiak deitu dituzte parte har dezaten.

Barreterapia saioa antolatu du Jaiki elkarteak eta dagoeneko ireki dute parte hartzeko izen-ematea

Urriaren 5ean, zapatuan, egingo dute barreterapia saioa kuartel zaharrean; 10:30ean hasita, hiru ordu iraungo du. Auria Diharce izango da gidaria eta helburua hau da: "Gordeta dugun barre sakona ateratzea; horretarako, mugimenduen eta jolasen laguntzaz gorputzeko tentsioak askatuta". Langileek 10 euro ordaindu behar dituzte; 8 euro langabeek. Izena emateko deitu 943 534 396 telefonora edo idatzi jaikielkartea@yahoo.es helbidera.



**UP
ENGLISH
SCHOOL**

Ingeleseko eskolak:

- Eskola-errefortzuak (maila guztiak)
- Azterketa ofizialak, ahozkoak, bestelakoak (adin eta maila guztiak)
- Egun osoan.

Loramendi 3 • ARETXABALETA
679 96 34 47
up.englishschool.ara@gmail.com



IURE EIZAGIRRE

Olabarria eta pentsioak

70 pertsona batu ziren *Bada etorkizunik pentsioetan?* berbaldian. Emilio Olabarriak egin zuen. Madrilgo Gorteetan EAJ-PNVko diputatua da hura. Gai serioa izan arren, Olabarriak ez zuen umorea alboratu berbaldian.

SAN MIGELAK

GOIENA TELEBISTA | MAGAZINEA | ARETXABALETA ETA OÑATIKO SAN MIGELAK
IRAILAK 30, 20:15 ETA 22:15

BABESLEA: ARETXARGI, INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena

Maidar Landak du Hezkuntzaren, Euskararen eta Gazteriaren ardura

Itziar Martinez ordezkatu du aurrerantzean Bilduko zinegotzi berriak

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Zinegotzi berria du Eskoriatzak: Maidar Landak Itziar Martinez ordezkatu du aurrerantzean; Euskara, Gazteria eta Hezkuntza sailen ardura izango du Bilduko udal ordezkari berriak.

Martitzenean egindako ohiko osoko bilkuran hartu zuen kargua. Batzarra amaitzean nabarmendu zuen "gogoz" ekingo diola zeregin berriari, eta, zinegotzi asteon izendatu badute ere, maiatza ezkerro dabilela udal teknikariekin elkarlanean. Horren harira, esku artean dituen hainbat proiekturen berri eman zuen: Euskarari dagokionez, Eskoriatzan gaztelania "asko" entzuten da, eta, euskara indartzeko egitasmoak jarriko dituzte martxan, etorkinekin, eta baita bertakoekin ere.

Bestetik, Gazteriari eta Hezkuntzari dagokionez, gogorarazi zuen herriko ikastetxeetako gura-



Maidar Landa, Igor Ezpeleta taldekidea ondoan duela. | MIRIAN BITERI

soekin batzarrak egin direla, eta dagoeneko egin direla horietan adostutako hainbat proiektu, hala nola Torrebasoko eta liburutegiko jolasparkeak. Horiek izandako harrerarekin "pozik" daudela

eta, hortaz, ildo beretik jarraitzeko asmoa dutela iragarri zuen. Bestetik, Huheziko gurasoekin topagunea sortzekotan dabilzala ere nabarmendu gura izan zuen zinegotziak.

Kargu hartzearekin batera, bestelako hainbat gai ere eztabaidatu zituzten osoko bilkura berean. Besteak beste, kirol jardueren zerbitzuan hiru aldaketa egitea adostu zuten: ikastaroetarako izen-ematea Udalak zuzenean kudeatzea; igerilekuko sorosleen ordutegia aldatzea; eta ikastaroetan jende gutxi izena ematen badu ere, zenbaitetan taldea osatzea eta aurrera egitea.

Mozioak aho batez onartuta

Bestalde, Ezker Anitza-IUK aurkeztutako bi mozio aho batez onartu zituzten. Lehenengoak, besteak beste, fracking teknika gaitzestea eskatzen zuen, eta Eskoriatza "frackingik gabeko eremu" izendatzea, osasuna, ingurumena eta natur baliabideak babeste aldera. Horrez gain, udalerrian eska litezkeen ikerketa eta erauzte-baimenak geldiarazteko bere esku dagoen guztia egitea adostu zuen udalbatzak. Bigarrenean, Siriako herriari elkartasuna adieraztearekin batera, elkarriketa mahaira itzul daitezen eskatzen zen, gatazkari irtenbide baketsua emateko asmoz. Suntsipen masiboko arma guztiak suntsitzearen alde ere agertzen zen.

Therasuit metodologia ezagutarazteko batzarra egingo dute

Zu Behar Zaitut elkarteak bilkura antolatzeokotan dabil Therasuit metodologia ezagutarazteko. Gasteizko Neurocorp klinikak emango ditu horri buruzko azalpenak; neurologia-patologiak tratatzen dituen enpresa horrek, Therasuit sistemaren bidez, gaixoen bizi kalitatea hobetzeko. Interesatuek 616 76 88 35 telefono zenbakira deitu behar dute.

Marcillara joango dira herriko erretiratuak urriaren 26an

Olazar erretiratuen elkarteak beste irteera bat gertatu du. Urriaren 26an Marcillako gaztelua bisitatuko dute, eta, bide batez, Montecierzo upeltetia eta agustindarren museoa ere ezagutuko dute. Urriaren 17ra arte eman daiteke izena, martitzenetan eta eguenetan, 11:00etatik 12:30era, elkartearen egoitzan.



MIRIAN BITERI

Izagirrek hondakinez jardun du

Hiri hondakinen gaineko hitzaldia egin zuen martitzenean Urnietako alkate ohi eta Errausketaren Aurkako Plataformako kide Mikel Izagirrek. Hondakinak kudeatzeko dauden sistemak alderatu zituen. Bestalde, asteon martxan jarri dute Ibarraundin hondakinen informazio bulegoa, honako ordutegian: astelehenetik eguenera 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara eta egubakoitzetan, goizez.

Hankamotx bertso-eskolan izena eman daiteke

M.B. | ESKORIATZA

Zabalik dago Hankamotx bertso-eskola berrian izena emateko epea. Urriaren 7ra arte eman daiteke, kultura etxean, eta eskolak urriko bigarren astean bertan hasiko dira.

Izen-ematea 50 euro izango da urtean eta epe bakarrean edo bitan ordaindu ahal izango da. Lehen hilabetea, gainera, debalde izango da, ikasleek bertso-eskola ezagut dezaten.

Bertso-eskolako bultzatzaile Xabier Arenatzak azaldu du taldeak adinaren arabera egingo direla. Batek 8 eta 16 urte arteko neska-mutikoak batuko ditu eta Arenatza bera izango da horren dinamizatzaile. Bestean, berriz, 16 urtetik gorakoak izango dira.



MIRARI ALTUBE

Liztor asiarra izan da Mendiolan

Mendiola elizatean ere agertu da liztor asiarra. Joan den egubakoitzean suhiltzaileak joan ziren hango Olabena baserrira liztor asiarren erlauntza kentzera. Baloi baten tamainakoa zen hura, eta, suhiltzaileen esanetan, lehenbailehen kentzea zen onena; are gehiago, kontuan izanda baserriko balkoi batetik gertu zegoela. Bada, iluntzean joan ziren, liztorrak lasaiago egoten direlako.



KONPONKETAK:

Txapa

Margoa

Mekanika

Hezkuntzarako beste aukera bat: Helburu akademia

I.E. | ANTZUOLA

Iraia Gabilondo antzuolar gazteak Helburu hezkuntza akademia ireki berri du. Aste-bete darama gazteei klaseak ematen Herriko Plazan duen lokalean, baina jada badu esperientzia, aurreko ikasturtean beste akademia batean ibili zen-eta.

Ikasleen lekuan jartzen saiatzen da, eta, gaizki egin-dako gauzak aipatzen diren moduan, ongi egindakoak azpimarratzea garrantzitsua dela uste du. Horretarako, ikasleen jarraipen pertsonalizatua egiten eta bakoitzaren egoera ezagutzen ahalegintzen da, adin txikieneko ikasleen kasuan batez ere.

Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasgai guztiak ematen ditu; Batxilergoari dagokionez, berriz, giza eta gizarte zientzietako irakasgaiak bakarrik.

Aurreko ikasturtean euskara ikasi zutenentzako laguntza

Udalak dirulaguntza emango die aurreko ikasturtean euskara ikasten ibili ziren herri-tarrei. Eskaria egiteko, derri-gorrezkoa da herrian errol-datuta egotea eta klaseetan %85eko asistentzia izatea. Langabeei eta erretiratuei matrikula osoa itzuliko diete eta gainerakoei, erdia. Eskaria udaletxean egin behar da urriaren 31 baino lehen.

Martitzenean itzuliko da Udal Liburutegia neguko ordutegira

Udako ordutegia apur bat luzatu du, baina martitzenean, urriaren lehen, itzuliko da Udal Liburutegia neguko ordutegira. Horrela, astelehenetik egubakoitzera 10:00etatik 12:30era eta 16:45etik 19:30era irekiko dute. Aurten, ordea, bada aldaketa bat; izan ere, martitzen goizetan eta egubakoitz arratsaldeetan itxita egongo da liburutegia.

Eraikin zaharrek ikuskapen teknikoa pasatu beharko dute

Eusko Jaurlaritzak 2012ko azaroaren 21ean onartu zuen EAEko eraikinen ikuskapen teknikoa arautzeko dekretua. Horren arabera, 1901. urtea baino lehenagoko eraikinek aurtengo abenduaren 31 baino lehen pasatu behar dute ikuskapena eta 1901. eta 1940. urte artekoek, 2014ko abenduaren 31 baino lehen.

Urrian hasiko dira Sanjosepeko horma egonkortzeko obrak

laz harri bat erori zen errepidera eta behin-behineko konponketa egin zuten

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Aste gutxi falta dira Sanjosepe kaleko horma egonkortzeko behin betiko obrak hasteko. Aurretik eginda zegoen azterketa geologikoa erabilita, hiru enpresari eskatu zien aurrekontua Udalak eta azken Tokiko Gobernu Batzordeak gune horretan aurreko lanak egin dituen Miramar Gunitados enpresari esleitu dizkio obrak.

Honela azaldu du Valen Moñuxek, Udaleko aparejadoreak: "Aurrekoa larrialdiko lan bat izan zen eta geologoek hormaren urtebeteko egonkortasuna bakarrik bermatzen ziguten. Aurrera begira beharrezkoa zen beste obra bat egitea eta orain egingo dugu behin betiko lana".

Miramar Gunitados enpresak egonkorrago bihurtuko du horma, presioarekin sartutako burdinari esker. "Garrantzitsuena da buloiak jarriko direla eta kanpo-



Behin betiko egonkortu behar duten horma, Sanjosepe kalean. | IURE EIZAGIRRE

ko haitza barrukoari guztiz lotuta geratuko dela", gaineratu du Moñuxek. Lanok 34.014,40 euroko aurrekontua dute.

Lanak esleitu berriak direnez, izapideak egiten ari dira oraindik,

baina obrek urrian hasi eta hiruzpalau aste iraungo dutela aurreikusten dute. Kaltetutako hormaren azpian errepidea eta oinezkoendako ibilbidea daude, eta, Moñuxek azaldutakoaren arabe-

ra, obrak egin bitartean errepideko bide bakarra egongo da itxita. "Agian, egunen batean biak moztu eta beste alternatiba batzuk aztertu beharko ditugu herrira sartzeko", dio. Izan ere, Lizarragara doan errepidea herri-rako sarbide moduan erabiltzen dute autoek zein kamioiek.

Harria jausita

Sanjosepe kaleko arazoa iaz abenduan atera zen argitara, hileko lehen egunean harri handi bat errepidera erori eta beste batzuk mendiaren aldapan geratuta. Lehen segurtasun neurri modura, bidea moztu eta zirkulazioa desbideratu egin zuten.

Geologoaren txostenak ondorioztatu zuen beste harri bloke batzuk jausteko arriskua zegoela, eta horma egonkortzeko obraren lehen fasea jarri zuten martxan. Miramar Gunitadosek pareta indartzeko hormigoia sartu zuen. Lan haiek 8.917 euroko aurrekontua izan zuten.

Ipurtikara bidea

Bestalde, inguruan egiten ari diren autobideko obrak direla eta, Ipurtikara doan mendi bidea itxita egongo da azarora arte.

Urteurrena, berriro elkartzeko aitzakia

I.E. | ANTZUOLA

Datorren astean izango da Antzuolako Gaztetxearen lehen urteurrena, eta, hasieran egin moduan, herriar guztien bilgune izango diren ekitaldiekin ospatzeko

asmoa dute gazteek. *Urtebete herrixa pizten!* leloarekin urriaren 5ean egingo duten ospakizuna antolatzen dabilta jada.

Hori izango dute egun handiena, baina ekintzak bezperan

hasiko dira; izan ere, urriaren 4an, guztien artean prestatutako afari parte-hartzailea izango da. Kuadrillak edo taldeka eman daiteke izena eta haietako bakoitzak plater bat prestatu beharko du: sarrerak, lehen platera, bigarren platera, postrea edo kopa. Platerak prestatzeko produktuekiko dirua Gaztetxeak berak jarriko du.

Afari parte-hartzailean parte hartu nahi dutenek bizkor ibili beharko dute, martitzenean amaituko da-eta izena emateko epea (urriak 1).

Bestalde, urriaren 5eko urteurreneko ospakizunean ere ez da jatekorik falta izango, herri bazkaria egingo dute-eta gaztetxe ondoan. Txartelak dagoeneko salgai daude 12 euroren truke.



laz, Gaztetxearen inaugurazioan egindako herri bazkaria. | GOIENA

Kalebarrengo iturriek ura dute, hiru asteren ostean

I.E. | ANTZUOLA

Duela hiru bat aste Larrebarrengo iturburuan arazo bat gertatu zen eta Kalebarrengo bi iturriak urik gabe egon dira ordutik hona. Udalak, zer gertatzen zen aztertu bitartean, oharrak jarri zituen Txomin garaje ondoko eta Zurrategi plazako iturrietan.

Hasiera batean, Larrebarrengo iturburua lehorte egin zela uste zuten udal ordezkariak, eta, bide hori aztertzen ari zirela, inolako neurriarik hartu aurretik, eguaztenean berriro ere ura irteten hasi zen lehen Kalebarrengo bi iturri horietan.

Finalista Egunak adin guztietako jendea batu du

Arrola Mendi Taldeak balorazio positiboa egin du joan den domekako Finalista Eguna dela eta. 27 lagunek egin zuten Antzuola-Arrola-Deskarga-Trekutz ibilbidea oinez eta beste seik mendiko bizikletaz. Gazteak, familiak eta helduak ibili ziren.



ARROLA MENDI TALDEA

Mendi ibilaldia egingo dute bihar, Aitor Arana gogoratzeko

Aitor Arana mendigoizale aramaioarra Peruko Huasara mendira (6.646 metro) igotzen ari zela hil zenetik, Orixol elkarteak urtero antolatzen du haren omenezko mendi ibilaldia. Bihar izango da; izena emateko nahikoa izango da 07:30ean kiroldegian agertu eta hamar euro ordaintzearekin. Ohiko ibilbidea egingo dute, 27 kilometrokoa.

Dirulaguntzak eskola garraiorako eta euskara ikasteagatik

Garraiorako laguntzak izango dira DBHko ikasketak –Institutukoak izan ezik–, Batxilergoko goi edo erdi mailako heziketa zikloak eta unibertsitateko ikasketak egiten ari direnendako. Euskara ikasteagatik ematen diren laguntzak, berriz, iaz euskara ikastaroa egin zutenendako izango dira. Udaletxera jo behar da hilaren 30a baino lehen.

Antton Aranburu eta bakartiak gaur Sastiñan, 20:00etan

Irailako egubakoitzetako zuzeneko kontzertuekin amaitzeko Antton Aranburu eta bakartiak ikusteko aukera egongo da gaur Sastiñan, 20:00etan hasita. Gasteizen bizi den Antton Aranburuk (Busturia, 1979) gidatuko du kontzertua eta askotariko doinuak entzuteko aukera egongo da: rocka, folka eta popa, besteak beste.



Hontzaextrem abentura parkeko arduradunak zuhaitzetatik egin beharreko ibilbideetako baten. | JON BEREZIBAR

"Euskal Herriko abentura parkerik handiena dugu"

Hontzaextrem du izena eta hilaren 27a ezkeror erabilgarri dago, Oleta inguruan

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO
Hontzaextrem izeneko abentura parkea ireki berri dute Aramaion eta inguruetan. Parkeko ardura-dunek administrazio-tramite guztiak Otxandion egin dituzte, baina parkearen eremuak historikoki Aramaiorenak izan diren lurak ere hartzen ditu. 2012ko azaroan hasi zen proiektua forma hartzen: "Parkeaz arduratzen

garen hiru bazkideak langabezia geunden. Beharrak aginduta eta Otxandion egindako herri galdeketa baten turismoa indartzeko beharra zegoela ikusita, abentura parke bat irekitzeko proiektua aurkeztu genuen. Ekimena egingarria zela frogatu ostean guri esleitu eta baso-eremua erabiltzeko baimena eman ziguten 20 urterako. Iaz azaroan izan zen

ESANAK

"Iazko azarotik, egunero hamar ordu egin ditugu lanean"

JOSU ABAONZA | ARDURADUNETAKO BAT

hori, eta, ordutik hona, egunero hamar ordu egin ditugu lanean. Gure eskuekin egokitu dugu parkearen %90", esan digu Josu Abaonza arduradunak. Irailaren 21ean ireki zuten. Inaugurazioan 100 bat lagun elkartu ziren eta bisita gidatua, batukada eta lurcha izan zituzten, besteak beste.

Hiru jarduera interesgarri

Aisialdia eta kirola bateratzen dituen parkea da eta adin guztietarako erabilgarri dago dagoeneko: "Euskal Herrian dagoen abentura parkerik handiena dugu eta bakarria pertsona urrituendako egokitua, bai urritu fisiko eta baita psikikoentzat ere". Gorpildun aulkian ibili behar dutenendako egokitzen dihardute, eta, "teknifikazio lan handia" eskatzen duenez, "epe labur edo ertainean" gertu izango dutela esan digu Abaonzak.

Hiru jarduerak osatzen dute entretenimendurako eskaintza: arku tiroketa da lehena eta 4 urtetik gorakoendako da; bigarren atrakzioa Italiako Alpeetatik datorren zuhaitzak eskalatzeko modu berezi baten oinarritzen da; eta azken blokean, askotariko ekintzak egin ahal izango dira zuhaitzetan zehar: "Bi ibilbide prestatu ditugu adinaren eta zailtasunaren arabera; lehena 4 urtetik 9 urtera arteko umeendako da eta bigarrena, berriz, 10 urtetik gorakoendako. Zubiak, tirolina... hainbat ekintza egin ahal izango dira". 15 lagunetik gorako taldeek erreserba egin beharko dute; gainerakoek nahikoa izango dute bertan agertzearekin; harremanetarako: 665 73 85 63.

Informazio gehiago: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



"Halako babesa sentitzea garrantzitsua da uneotan"

J.B. | ARAMAIO
Duela bi urtetik Aramaion bizi den Irati Muxika gazteari babesa adierazteko 25 lagun elkartu ziren martitzenean Sastiñan. Segiko kide izateaz akusatuta Auzitegi Nazionalean epaituko dute Muxika urriaren 14an, beste 39 gazte-

rekin batera. Muxika 2009ko azaroaren 24an atxilotu zuten: "Halako babesa sentitzea garrantzitsua da uneotan. Espetxean urtebete eta bi urte artean igaro ditugu, eta, milaka euroko fidantzak ordaindu ondoren –750.000 euro guttira–, guztiok baldintzapean

aske gaude orain: aldiro epaile baten aurrean aurkeztu beharra dugu eta gutako asko ezin gara Espainiatik irten", dio.

Dei berezia urriaren 12rako

Aramaiorako dei berezia egin dute urriaren 12rako, eta, presaketa lanei ekiteko "ideia berriak" biltzea helburu, batzarra egingo dute urriaren 1ean Sastiñan bertan (20:00): "Herriar zein talde guztiei gonbidapena egin nahi diegu parte har dezaten".



Urriaren 26an Bilbon egingo den manifestaziorako dei egin zuten. | I.M.



ALAIAK ERRETIRATU ELKARTEA

Giro ederra erretiratuen bazkarian

Alaiak elkarteko 100 bazkide elkartu ziren hilaren 22ko erretiratuen bazkarian, giro ederrean. Sari berezia eman zieten urte gehien dituztenei: Joseba Arregi, Juan Jose Astola, Mari Galdos eta Mario Jauregi.

Gaur hasi eta domekara arte San Migel jaiak ospatuko dituzte Etxaguen auzoan

J.B. | ARAMAIO
San Migel jaiak ospatuko dituzte Etxaguenen. Gaur, Mañukorta eta Beñat Ugartetxea bertso-lariekin afaria egingo dute (21:00) eta ondoren, opari ezkutuaren zozketa. Biharkoa izango da egun handia: meza (12:00), txikiteoa (13:00), mus txapelketa (16:30), umeendako jolasak (17:30), auzoko zezenekin egin

ohi den sokamuturra (19:00), DJ Patxiren saioa (22:30), su artifizialak (00:15) eta bolo txapelketa (00:30) izango dituzte. Domekan, berriz, meza (12:00), erretiratuendako lurcha (12:30), tute eta briska txapelketak (16:00) eta umeendako jolasak (17:00) egongo dira. Amaitzeko, "zezenen egoeraren arabera", sokamuturra egingo dute berriro.

ELGETA

Hamar baserritar eta bost artisau izango dira zapatuan baserritarren azokan

Intxortako igoyerak ikusmina sortu du aurten ere; 11:30ean jokatu da

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Herriko baserritarrek 10:30ean zabalduko dituzte postuak bihar, zapatua. Herrian bertan ekoiztutako produktuak ekarriko dituzte plazara salmenta onak egiteko itxaropenarekin. "Giro ona egoten da", adierazi du postua urtero ipini izan duen Pedro Mari Uberak. "Jendea ibiltzen da eta lekak eta tomateak, esaterako, oso ondo saltzen dira". Ortuak, aurten, gutxi eman duela ere aurreratu du Uberak. Aipatzen du, baita ere, baserritarrek gero eta gutxiago eta gero eta nagusiagoak direla. Udalak erosleak saritzea pentsatu du aurten, eta azokan produktuak erosten dituztenen artean bi otarre zozketa-tuko ditu, lehenengo aldiz.

Aditzera eman dutenez, eta zailtasunak zailtasun, hamar



Sesto baserrikoek iaz azokan ipinitako postua. | L.Z.

baserritar eta bost artisau izango dira azokan. Pili Arin, Lorea Ibeas, Sonia Miranda, Arrate Egurrola eta Igor Herce izango dira artisauak. Azken horrek,

gainera, burdina nola lantzen den ikusteko erakustaldia egingo du Xabat Leanizbarrutiarekin.

Intxortako igoera

Azokaren bueltan Intxortako igoera eta Txorimalo lehiaketa ere jokatu da bihar. Igoerak ikusmina sortu zuen iaz, eta bat baino gehiago ikusi dugu asteen entrenatzen. Lasterketa 11:30ean hasiko da. Parte hartzaileek 11:00etatik aurrera eman dezakete izena plazan.

Txorimaloek ere tartea izango dute azokan. Iaz egin zen lehiaketa lehenengo aldiz, eta lau txorimalok hartu zuten parte. Aurten ere saria jasoko dute txorimalo ederrenek.

Herriko plazan banatuko dituzte sari guztiak, 13:00 aldera. Bertan izango dira giroa alaitzeko Adolfo Jainaga eta herriko trikitilari taldea.



INTXORTAKO IGOERA, 11:30EAN Aurten ere bada ikusmina inork Jose Mari Arotzenaren marka (17.39) gaindituko duen. Lau parte hartzaile izan ziren iaz, eta hiru segundora gelditu zen Iñaki Egizabal.

LEINTZ GATZAGA

Astelehenean (irailaren 30) bukatuko da ehizarako eskaerak aurkezteko epea

Leintz Gatzagako Udalak enkantera atera du udalerriko ehiza esparrua

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako Udalak enkantera atera du udalerriko ehiza esparrua, eta astelehenean, irailaren 30ean (astelehena barne, 14:00ak aurretik) bukatuko da eskaintzak aurkezteko epea.

Leintz Gatzagako udaletxean egin behar da hori. Eta, hain justu, bihar, zapatua, udaletxea zabalik izango da 09:00etatik 13:00etara, informazioa jaso eta proposamenak aurkezteko.

Hiru ehiza jardun aterako ditu Udalak enkantera: usoa, oilagorra eta ehiza larria (basurdeak eta orkatzak).

Prezioak honako hauek dira: usoen 45 postuengatik, guztira, 55.539 euro (BEZa barne); oilagorra ehizatzeke zortzi txartel, 5.808 euro guztira (BEZa barne) eta ehiza larria (20 basurde eta 20 orkatz ehizatu ahal dira), 4.235 euro (BEZa barne).

Horiek gutxieneko prezioak dira. Hortik abiatu behar dute enkanterako aurkezten diren eskaintza ekonomikoak. Edozelan ere, enkantera aurkezten direnek egin ditzakete eskaintzak postu bakarrengatik edo postu guztienegatik batera, ehiza xehearen kasuan (usoa eta oilagorra).

Kasu horretan, oilagor txartel bakoitzaren prezioa 726 euro da. Eta uso postuei dagokienez, berriz,

hiru mailatan daude sailkatuta: lehen mailako postu bakoitzaren prezioa 1.815 euro da; bigarren mailakoena 1.089 euro da eta hirugarren mailakoena, 363 euro. Kasu guztietan BEZa sartuta dago prezioan.

Ehiza larriaren kasuan, berriz, eskaintza bakarra egin ahal da.

Interesa duen edozeinek aurkeztu ditzake enkanterako eskaintza ekonomikoak, enpresak izan, elkarteak izan edo partikularrak izan. Eta berdin du nongoak diren. Hau da, bertakoa izan daiteke, edo atzerrikoa. Halako ezaugarriak ez dituzte kontuan hartuko.

Gutun-azalen irekiera

Behin eskaintza guztiak batuta, eskaintza ekonomikoak jendarean zabalduko dituzte. Aurkeztutako dokumentazio guztia ondo badago, urriaren 1ean (martitzena) 16:30ean egingo dute hori.

DATUA

60

USO-POSTU

45 uso-postu atera dituzte enkantera; baina beste 15 ere badira, herritarrendako.

Asentzion La Belga azpiko bi lursail erostea onartu du udalbatzak

L.Z. | ELGETA

Bi lursailak hauek dira: bata, La Belgaren eta beheko lubakien artean dagoena; bestea, eskualdean gelditzen dena eta gainerako lubakiak dauden tokia. 10.665 metro koadroko azalera da, eta adostutako prezioa 16.003,40 euro. Udalbatzak aho batez onartu zuen erosketa operazioa martitzeneko osokoan.

77. urteurreneko ekitaldiak

Urriarekin batera abiaraziko ditu Udalak Intxortako frontea ezarri zeneko 77. urteurreneko ekitaldiak. Eguenean, *Elgeta memoria* izeneko aplikazio berri-tzailea aurkeztu zuten Espaloia kafe antzokian —ikus 4. orria—. Gainerako ekitaldiak hauek izango dira: Condor legioak

Gernikako suntsipenean izandako eraginari buruzko erakusketa eta hitzaldia, *Bergara 1936, gerra eta errepresioa* ikus-entzunezkoa, eta *Consejo de guerra contra el clero vasco. 1936-1944. La Iglesia vasca vencida* liburuaren aurkezpena. Domekan, berriz, hileroko bisita gidatua egingo dute. Urteurrena dela-eta doan egiteko aukera egongo da.

Kalteak Asentzion

Asentzion eragindako kalteak ere albiste izan dira asteen. Ezezagun batzuek apurtu egin dute Asentzion bertan dagoen informazio-panela. Ez da lehenengo aldia urteurrenaren bueltan horrelakoak gertatzen direna.

Udalak herritarren lehentasunak ezagutu gura ditu, datorren urteko aurrekontua prestatzeko

"Egoera ekonomikoa guztiontzako larria dela ezagututa, inoiz baino garrantzitsuagoa da lehentasunak ondo zehaztea", adierazi dute Udal Gobernu Taldetik. Hala, ekarpenak egiteko dei egin diete herritarrei, eta bi bide ezarri dituzte horretarako: urriaren 16an, 19:00etan, udaletxean egingo den batzar irekian parte hartzea edo proposamenak idatziz egitea, bai udaletxean dagoen postontzia erabilita, bai www.elgeta.org webgunea edo danonartian@elgeta.net e-posta helbidea erabilita.

1967ko kintoek bazkaria antolatu dute urriaren 5erako eta izen-ematea zabalik da Irama dendan

Kinto bazkaria egiteko data ipini dute 1967an jaiotakoek: urriaren 5ean, zapatuan, elkartuko dira Elgetako Maialde landetxean. Antolatzaileei komeni zaie zenbat izango diren alde aurretik jakitea. Horregatik, Irama dendan izena emateko eskatzen diete interesatu guztiei.

Etzi (domeka) egingo du Gurelek ikasturte hasierako batzarra

Ludotekan elkartuko dira, goizeko hamaiketan

U.M. | LEINTZ GATZAGA

Herriko neska-mutikoez ikasturtea hasteaz batera martxan jarriko da, baita ere, gurasoen Gurel elkarteak. Izan ere, aurten go jarduna zehazten hasteko batzarra egiteko, etziko egin dute hitzordua (domeka). 11:00etan ludotekan batuko dira.

Gaiak: elkarteari begira

Gai-zerrenda sakona izango dute aztergai gurasoek.

Hasteko, eta elkarteari berrari begira, Gurelen estatutuen berri-tapena eta elkartearen balantze ekonomikoa landuko dute. Horrekin batera, elkarte-ko batzordearen aldaketaren berri emango dute.

Abendura arteko ekintzak

Horrez gainera, bereziki, hementik eta Gabonak bitarteko ekintzak eta zereginak aztertuko dituzte. Besteak beste, hona-

koak: Domu Santu eguna (Halloween), *Gatzaga ezagutzen* izeneko txangoa egitea; Aitaita eta Amama Eguna; kontserba ikastaroa egitea, Gaztaina Erre Eguna ospatzea eta Olentzeroen etorrera.

Etxeko lanen erreformtzua

Abendura bitarteko ekimenekin segituz, etxeko lanen erreformtzua eta ludoteka ere izango dituzte berbagai domekako batzarrean.

Ludotekaren kasuan, datorren asteen hasiko duelako ikasturtea. Eta, hain zuzen, Gurelek gura du aztertu ze aukera eta interes legokeen neska-mutikoei etxeko lanei begira laguntza emateko zerbitzua eskaintzeko, ludotekan.

Horrez gainera, datorren urteari begira jarri eta datorren urteko ekintzak aurreikusteko asmoa ere badu Gurelek.

SASKIBALOIA

MUk ilusioa sortzen duen denboraldia hasiko du bihar

Aurrerapausoa egiteko denboraldia Zarautzen hasiko dute arrasatearrek

XABIER URZELAI | ARRASATE

Azken hilabeteen prestaketa lanean jardun ostean iritsi da lehiaren hasteko ordua. Eta Josu Larreategiren mutilek Zarautzen hasiko dute denboraldia (zapatua, 17:00). Taldearen bizkarrezurrari eusteaz batera, Kintana eta Zeziaga jokalariai taldera itzuli dira. Hala, ilusioa sortzen duen denboraldiaren aurrean dago MU, aurrerapausoa egiteko urtea izan daiteke-eta.

Larreategik berak klubeko webgunean aipatu duen moduan, "Zarautz eskarmentudun taldea da eta oso ondo dakite jokatzeko aukak diren. Barrutik min handia egiten dute, euren barruko jokalariai trebeak direlako". Arrasateko taldea, oster, ez dago oraindik onenean, baina entrenatzaile eskoriatzarra baikor dago, talde horrek "sentsazio onak" ematen dizkiolako.



Feliko Aialak oroigarria eta jokalariek sinatutako elastikoa jaso zuen. | OINTXE!

Feliko Aialari omenaldia

Bestalde, joan den domekan egin zuen Ointxe! klubak talde guztien aurkezpenean, eta, horretarako, partidu mordoan antolatu zituzten Iturripen. Nagusiek Tolosaren kontra jokatu zuten, baina Musakolan, Iturriperko zorua oso labain-

kor dagoelako, eta inork minik ez hartzeko. Azken partidu horren atarian une hunkigarriak bizi izan ziren, Ointxe!-k omenaldia egin ziolako klubeko presidente ohi Feliko Aialari. EBAr igo-tzeko borrokan ibili ziren sasoiaren izan zen Aiala presidente.



MURen elastikoa defendatuko duen taldea. | OINTXE



Aretxabaletako martxako karteletako erretratua. | ARITZ GORDO

MENDIKO BIZIKLETA

Bizikleta martxa eta enduro irteera batuko ditu Aretxabaletak etzi

X.U. | ARETXABALETA

Domekan, hilak 29, egingo dute Aretxabaletako mendiko bizikleta irteera (XC), eta hitzordu berean enduro irteera ere egingo dute. Labur esateko, bizikleta gainean trebezia oso handia dutenei zuzendutakoa da enduroko ibilbidea, eta XCn ibilbide errazagoa prestatu dute, nahiz eta antolatzaileek garbi utzi duten bai bata zein

bestea zailtasun fisiko eta tekniko handiko irteerak diren. Alegia, mendiko pista zabalak beharrezkoak, bide estuak eta malda politarekin.

Irteera 09:30ean izango da, federatuek 10 euro ordaindu beharko dituzte eta federatu ez direnek, 15 euro. Enduroko ibilbideak 24 kilometro izango ditu eta XCkoak, berriz, 34 kilometro.

FUTBOLA

Bergarak Beti Gazte hartuko du zapatuan etxean eta Aloña Mendik Zarautz domekan

X.U. | ARRASATE

Ligako hirugarren jardunaldian Bergarak eta Aloña Mendik jokatuko dute etxean. Mahoneroek Beti Gazte hartuko dute bihar, 16:30ean; orain arte liga ondoen hasi duen ordezkaria, Lesakakoak sailkapeneko lehenengo postuan daude-eta. Oñatiarrek ere ordu berean jokatuko dute, baina dome-

kan, hain zuzen, liga ezker hankarekin hasi duen Zarautzen kontra; azkenak dira.

Antzuolak kontrario gogorra izango du, bigarren dagoen Getariako, domeka arratsaldean (17:00). Eta Aretxabaletak Hernanin jokatuko du; azken urteotan talde indartsua izan dute hernaniarrek, eta aurrean ere

aurrealdean ibiliko dira seguru, nahiz eta, oraingoz, ez diren nahi bezain ondo hasi.

Erregional preferentean, berriz, Zestoan jokatuko du Mondrak bihar (16:00).

Mondrako neskek, domekan

Emakumezkoen bigarren mailan, Mondrak Mojategin jokatuko du domekan, San Juanen kontra (15:30). Arrasateko neskek denboraldiko lehen puntuak batzen ahaleginduko dira.

ATLETISMOA

Bidegorria erabiliko du Arrasate-Oñati lasterketak

Urriaren 12an egingo duten lasterketaren 30. edizioak Laixaneko lagunak omenduko ditu

TXOMIN MADINA | OÑATI

Urriaren 12an egingo dute 30. Arrasate-Oñati herri lasterketa, eta, azken urteetan bezala, korrikalariez gain, patinatzaileek ere hartu ahal izango dute parte. Hala, hainbat aldaketa izango dira Antxintxiketan Atletismo Taldeak antolatzen duen proban, Hanka Labankakoen eta Arrasate Kanpanzar Atletismo taldekoen laguntzaz.

Izen-ematea, esaterako, iaiz baino merkeagoa izango da: 13 euro beharrezkoak, 10 ordaindu beharko dituzte. Hori bai, alokairuzko txipa hartu gura dutenek 2 euro gehiago ordaindu beharko dituzte.

Bidegorria ere erabiliko dute

Beste berrikuntzetako bat ibilbidearekin lotuta dago. 11,6 kilometro izango ditu lasterketak, eta zati batzuetan, Arrasate eta Oñati artean dagoen

bidegorria erabiliko dute. "Iku-si dugu bidegorria tarte batzuetan oso ondo dagoela bai korrika egiteko eta baita patinetan ibiltzeko ere, eta, segurtasun kontuak direla eta, bidegorria erabiltzeko aukera polita zela pentsatu dugu", azaldu zuen aurkezpenean Antxintxiketan elkarteko Asier Osinagak.

Egunean bertan, gainera, lasterketa abian jarri zuten Laixan euskara elkartekoak omenduko dituzte.

Izen-ematea, aurrez

Lasterketaren bezperara arte, hau da, urriaren 11ra arte eman ahal izango da izena (www.kirolprobak.com) eta egunean bertan ezin izango da izenik eman. Patinatzaileak 17:00etan abiatuko dira eta korrikalariai bost minutu geroago, Portalotik. Oñatitik Arrasatera joateko autobusa egongo da.



Lasterketako antolatzaileak alkatearekin, aurkezpenean. | TXOMIN MADINA

MENDIKO BIZIKLETA


Mendieta, Axpe eta Burgi, podiumera

CDR Lizarralde taldekoak Pirinioetan izan ziren joan den asteburuan, Pirinioetako Enduro VTT Kopako hirugarren proban. Seniorretan Markel Mendieta podiumera igo zen eta gauza bera egin zuten junior mailan Julen Axpek eta Beñat Burgik.



JON ANDONI AXPE

Debagoieneko GREMIOAK



AROSZTEGIAK

AZKARATE AROSZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

e.arrasate@euskalnet.net

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behe

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

Arrasate

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

ION LEIHOAK

Arrasate

Debagoiena Industrialdea 11.Pab

Tel.: 943 79 11 35

Faxa: 943 773 120

<http://www.ventaion.com>

LOREZAINZTA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



Euskaltzaindiak Bilbon duen egoitzan aurkeztu zuten Bertsolari Txapelketa Nagusia 2013. | ARGAZKIAK: BERTSOZALE ELKARTEA / GALDER IZAGIRRE

Txapel preziatua eskuratzeko, bertsolariak lehiatzeko prest

- Domekan abiatuko da Bertsolari Txapelketa Nagusia, Villabonan
- Debagoieneko ordezkariak daude bertsolari eta epaimahai lanetan

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE
Domekan, irailaren 29an abiatuko da lau urtetik behin jokatzen den Bertsolari Txapelketa Nagusia. Aurtengoa, XVI. edizioa, Villabonan hasi eta abenduaren 15ean amaituko da, aurten hiru garrenez Barakaldoko Bilbao Exhibition Centerren.

Bertsozale Elkarateak antolatu duen zortzigarren txapelketan, 14 saio izango dira eta 43 bertsolarik, 14 gai-jartzailek eta epaile lanetan 16 lagunek hartuko dute parte.

Beste edizio batzuetan moduan, oraingoan ere Debagoienak izan-

go du txapelketan ordezkaritza. Lau bertsolari izango dira: Elgetako Ainhoa Agirreazaldegi; Aramaio Manex Agirre eta Aretxabaletan bizi diren Miren Amuritza eta Maddi Sarasua. Aretxabaletarra da, era berean, epaimahaiko kide bat: Mikel Fernandez de Arroiabe. Aurten, Debagoienean ez dute txapelketako kanporaketarik egingo.

Protagonisten ikuspuntutik
Bertso Txapelketa Nagusiaren atarian, Debagoieneko bertsolarien iritziak batu ditugu. Ainhoa Agirreazaldegi izango da taula

gainera igoko den lehena; bertso saioak kokatzerakoan, antolatzailleek lurraldetasuna zaindu dutela dio eta, orokorrean, aurten esanahi eta teknika aldetik landutako jendea dagoela, akaso gazteen freskura faltako dela gaineratuta. "Aurreko txapelketatik hona, aldaketa asko bizi izan ditut; hori horrela, tekniko ki baino gehiago, mamitik gura ko nuke nire ekarpena igartzea" dio elgetarrak. Manex Agirre aramaioarrak lehen aldia du Txapelketa Nagusian: "Umil-umil eta kanporaketa bakarrik helburu hartuta joango naiz ahal dudan

guztia egiten saiatuz". Aurtengo txapelketa interesgarri datorrela dio, parte-hartzaileak gogotsu ikusten dituelako, eta, Agirreren ustetan, freskura egongo da. Aretxabaletan bizi diren Maddi Sarasuarekin eta Miren Amuritzarekin lehiatuko da Agirre, Oionen. Aurkariak baino gehiago lagunak direla dio, eta gaineratu du saio horretan igarriko dela txapelketan eskarmentua dutenen eta lehenengoz parte hartzen dutenen arteko aldea. Gazteena da jatorriz Itsasukoa den Maddi Sarasua. Urduri baina era berean ilusioz dagoela kontatu digute Aretxa-

baletako familiakoek. Sarasuarekin ederto bat egiten duela dio Miren Amuritzak: "Ni orain lau urte nengoen moduan egongo da seguru, zortetik onena opa diot; ni, berriz, lasai eta gogotsu nago. Finalari begira aldaketak egon daitezkeela uste dut".

Goiena telebistan ere ikusgai
Goiena telebistaren bitartez ere jarraitu ahal izango da txapelketa, Tokiko telebistek EITBekin duten hitzarmenari esker. Era berean, salgai daude kanporaketarako eta finalerako sarrerak, Bertsosarrerak.eu atarian.

TXAPELKETAKO EGUTEGIA

KANPORAKETAK

Irailak 29, domeka
Villabona

Urriak 5, zapatua
Markina-Xemein

Urriak 12, zapatua
Hendaia

Urriak 13, domeka
Altsasu

Urriak 19, zapatua
Legazpi

Urriak 26, zapatua
Oion

FINALAURREKOAK

Azaroak 9, zapatua
Gernika-Lumo

Azaroak 10, domeka
Tolosa

Azaroak 16, zapatua
Oiartzun

Azaroak 17, domeka
Murgia

Azaroak 23, zapatua
Elizondo

Azaroak 24, domeka
Donostia

Azaroak 30, zapatua
Maule-Lexarre

FINALA

Abenduak 15, domeka
Barakaldo

Bertsolari Txapelketa Nagusiko debagoiendarrak



AINHOA AGIRREAZALDEGI
Elgeta, 1978.

Bertsolaria.
Euskal Filologian eta Alemaniako Filologian lizentziaduna da. Gaur egun, helduen euskara irakaslea da. Bertsozale Elkarteko Ikerkuntza arduraduna ere izandakoa da. Hirugarren aldiz parte hartuko du Txapelketa Nagusian; Legazpiko kanporaketan izango da.



MANEX AGIRRE
Aramaio, 1982.

Bertsolaria.
Euskara teknikaria da. Arabako Kuadrilla arteko Bertso Txapelketa irabazi zuen Aramaio taldearekin eta 2011. urtean, berriz, Arabako txapela eskuratu zuen. Eskarmentuduna bada ere, lehen aldiz hartuko du parte Txapelketa Nagusian; Oiongo kanporaketan izango da.



MIREN AMURITZA
Berriz, 1990.

Bertsolaria.
Hamabi urterekin hasi zen bertsoan, Berrizko Eskolan; egun, aipatutako eskolako arduraduna da, eta baita Aretxabaletako Lekaixoka bertso eskolako kidea ere. EHko Eskolarteko Txapelketa irabazi zuen 2008an. Bigarren doza Nagusira; Oionen izango da.



MADDI SARASUA
Itsasu, 1995.

Bertsolaria.
Ikaslea da. 11 urterekin hasi zen Uztaritzeko bertso-eskolan, eta Baionako lizeoko bertso-eskolan ari da orain. Laugarrena izan zen 2012ko Xilaba txapelketan. Bertsolari Gazteen Xapelgoa eskuratu du. Lehenengo aldiz joango da Txapelketa Nagusira; gazteena da. Oionen izango da.



MIKEL F. DE ARROIABE
Aretxabaleta, 1972.

Epaimahaikidea.
Birritan izan da Arabako Kuadrilla arteko Bertso Txapelketan epaimahaikide eta Arabako Bertsolari Txapelketan beste bitan. Bada, Txapelketa Nagusiko epaimahaikide izateko proposatuta, ilusioz eman zuen baiezkua. Askok ikasten ari dela aitortu du.



Olatz Pagaldai. | GOIENA

Olatz Pagaldai
Aktorea

"3D-n grabatzea esperientzia interesgarria izan zen"

I.G. | ARRASATE

Donostiako Zinemaldiaren inguruan ekintza ugari antolatzen dituzte, eta, tartean, Donostiako Zinemaldi Alternatiboa Groseko Kortxoenea gaztetxean. Bertan, *Morritson eta Gartzia* film independentea eman zuten. Olatz Pagaldai aktore eskoriatzarrak hartu du bertan parte. Gu harekin izan gara filmaren gainean berbetan.

Nolakoa izan zen grabazioa?

Oso ona, esperientzia polita izan zen. Berangoko eta Getxoko inguruetan grabatu genuen iaz maiatzean. Azken teknologiak erabili zituzten grabazioetarako; izan ere, 3D formatuan grabatu zen eta oso interesgarria izan zen hori ikustea. Ni filmeko zati txiki baten bakarrik azaltzen naiz, eta, beraz, ni azaltzen naizen sekuentzia guztiak egun berean grabatu genituen. Uste dut gainerako guztia bi astean filmatu zutela. Aurretik, baina, gidoia landuta eta moldatua zuten; izan ere, *Morritson eta Gartzia* antzezlanak da eta filma egiteko moldatu zuten.

Antzezlanean, baina, bi pertsonaia bakarrik daude?

Hori da; nik ez dut antzerkian parte hartzen. Euskarri zinematografikorako, baina, ez zuen bi pertsonaiaekin funtzionatzen eta beste bat gehitu zuten; horixe da nik egiten dudana papera.

Ze gai jorratzen du filmak?

Gatzia (Jon Urraza) bikote barik eta etxe barik gelditu den sortzaile alternatiboa da. Horren ondorioz, lo egiteko lekua behar du eta Morritsonen (Leire Olaran) eta bere bikotekidearen etxera joko du. Haiek hipotekatuta bizi dira etxebizitza txiki batean. Bada, Gartzia presentziak Morritsonen eta bere bikotekidearen (Olatz) arteko bikote erlazioa ezegonkortu egingo du. Esango nuke komedia dramatiko delako.

Kantarin izena emateko garaiz daude oraindik bailarako gaztetxoak

Izena emateko bideak: 943 25 05 05 edo 'idazkaritza@goiena.com'

GOIENA | ARRASATE

Kantarin parte hartzeko izena eman dute dagoeneko Debagoieneko 506 gaztetxok. Ikastetxeetan banatu genituen izena emateko orrien bitartez eman dute izena horiek. Eta ikastetxeen bitartez izena emateko epea amaituta, orain beste bi modutara eman dezakete gaztetxoek izena: 943 25 05 05 telefonora deituta edo *idazkaritza@goiena.com* helbidera idatzita.

Urriaren 2ra arte eman ahal izango dute izena 2001. eta 2005. urteen artean jaiotako 8 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoei, hiru eta bost pertsona bitarteko taldeak osatuta.

Kantarin parte hartzea guztiz doakoa da eta ez da derrigorrezkoa Goiena Klubeko bazkide izatea.

Kantuen banaketa

Zozketa bitartez banatuko dira abestiak eta gaztetxoek gurasoei iritsiko zaie mezu bat posta elektronikora edo mugikorrera, jakinarazten zein kantu izango duen alabaren edo semearen taldeak. Urriko lehenengo hamabostaldian bidaliko diete mezu hori.



Aurreko aldian, Kantariko abestia kantatzen eta dantzatzen. | GOIENA

Mezua gurasoei

Mezu horretan zehaztuko zaie gaztetxoek nola ikasi beharko duten kantuaren letra eta koreografia. Kantariko blogean daude abestien letrak, eta baita koreografia bideoak ere. Kantu bakoitzak bere dantzako pausoak ditu eta gaztetxoek bideo horren bitartez ikasi beharko dute koreografia. Edo kantuari eurek asmatutako dantza jarri nahi badiote, gaztetxoek aukera izango dute nahi duten moduan dantzatzeko.

Baina garrantzitsua da letra eta koreografia ondo ikastea. Bada, bideo eta letra guztiak helbide honetan dituzue: <http://blogak.goiena.net/kantari>.

Gaztetxoekin entsegu labur bat ere egingo dugu ikuskizun egunaren aurretik. Entsegu hori izango da gaztetxoek aurretik etxean ikasi dutena errepasatzeko, ez da izango dantza bertan ikasteko. Eta helburua da gaztetxoek agertokia ezagutzea ikuskizunaren egunean lasaia ego-

teko. Gurasoei bidaliko zaie mezuan jakinaraziko da entsegu tokia eta ordua. Ikuskizunaren eguna eta ordua ere mezu horretan zehaztuko diete gurasoei.

Informazio gehiagorako

Edozein zalantza izanez gero, sartu <http://blogak.goiena.net/kantari> helbidera. Edo bestela, 943 25 05 05 telefonora dei dezakezue zuen kezkak argitzeko.

Animatu eta hartu parte Kantariren laugarren edizioan!



Amaren eskuak filmaren aurkezpena Zinemaldian. | HARITZ DENDATEGI

'Amaren eskuak' filma aurkeztu du Mireia Gabilondok Zinemaldian

I.G. | ARRASATE

Euskal zinemaren gaua izan zen martitzenekoa Donostiako Zinemaldian. Bertan aurkeztu zen Mireia Gabilondo bergararren *Amaren eskuak* filma, eta han izan ziren zuzendaria eta protagonistak.

Arrakasta izan zuen

Txalo zaparrada handia jaso zuen Gabilondoren lanak Victoria Eugenia. Zuzendari bergararrak esan zuen lantalde handia dagoela filmaren atzean, ez egile bakarra. Irizar saria jasotzeko lehian da *Amaren eskuak*, beste hiru filmekin batera.

Karmele Jaiok idatzitako liburu batean oinarritzen da eta ama-alaba batzuen harremana kontatzen da. Amak alzheimerra du eta amaren eta alabaren arteko harremana nola aldatzen eta sakontzen den erakusten du filmak.

Asteburu honetan ikusgai izango da zinemetan Gabilondoren lana.

Juan Bautista Berasategi

Zinemira saria jaso zuen Juanba Berasategik gau berean. Hunkituta jaso zuen. Saria bere ogibideko profesionalei eta lagunei eskaini zien eta batasuna eskatu zien sektorekoei.

Bergarako elektronika topaketa izango da asteburuan, lehen aldiz: musika, tailerrak eta gehiago egongo dira

Bergarako Seminarioan Labegaraietako kiroldegian zegoen estalkia jarri dute. Hala, Seminarioko gunea jolasgune eta kultura ekintzak egiteko toki bezala berreskuratu nahi dute. Karpa asteburu honetan estreinatuko dute DJ jaialdiarekin. Zehazki, Bergarako elektronika topaketen lehen edizioa egingo da asteburuan. Elektronika topaketetan izango dira, besteak beste: Makala, Kino Internacional, Korrupted Brothers eta Munlet. Bostetatik aurrera izango dira kontzertuak, baina goizean zehar ere izango dira aukerak: binilo salmenta, proiektzioak eta musika tailerrak. Jaialdia hiru tokitan izango da: Zabaotegi aretoan, Seminarioko karpian eta Bergarako gaztetxean. Kogollo Party Krew ibili da antolakuntza lanetan eta adierazi dute Euskal Herri mailan lehendabizikoz egingo dela horrelako jaialdi bat.

Korrontzik eta Oinkari Dantza Taldeak 'Infernuko hauspoa' ikuskizuna eskainiko dute domekan

Dantza eta trikiti doinuak uztartzen dituen *Infernuko hauspoa* ikuskizuna eskainiko dute Korrontzik eta Oinkari Dantza Taldeak Oñatin jaien egitarauaren barruan, hilaren 29an, domeka, 22:30ean, Foruen plazan. Garai bateko eta gaur egungo trikiti piezak dantza tradizionalaz eta berritzailez nahasten dituen emanaldia da eskainiko dutena. Guztira, 40 lagun inguru taularatzen dira eta orain dela hiru urte elkarlanean kaleratu zuten DVD baten oinarritzen den ikuskizuna da.

Badatoz Kooltur Ostegunak: Maritxu Kajoi bezperan, urriaren 3an, ekingo diote ikasturteko eskaintzari

Kooltur Ostegunak gertu daude ikasturte berriari ekiteko. Lau garren edizioa izango da oraingoa eta urriaren 3an, Maritxu Kajoi bezperan, abiaraziko dute, Capsula taldearen kontzertuarekin, hain zuzen. Ondoren etorriko dira: The Hot Wok urriaren 10ean, Bide Ertzean urriaren 17an, Super Sweet Featurin the Who urriaren 24an eta Correos urriaren 31n. Kontzertuak Arrasateko gaztetxean izango dira, ohi bezala, eta gaueko hamarretan hasiko dira. Sarrera bost euro da.

ENTSEGUAK ETA IKUSKIZUNAK

ARETXABALETA

Entsegua:

Urriak 12. Arkupe.

Ikuskizuna:

Urriak 19. Arkupe.

BERGARA

Entsegua:

Azaroak 3. Zabalotegi.

Ikuskizuna:

Azaroak 9. Zabalotegi.

OÑATI

Entsegua:

Azaroak 30. Gaztelekua.

Ikuskizuna:

Abenduak 14. Gaztelekua.

ARRASATE

Entsegua:

Urtarrilak 11. Kulturate.

Ikuskizuna:

Urtarrilak 18-19. Amaia.

SAN MIGELAK 2013

OÑATI
JAIETAN!



IRATI GOITIA



*ONDO PASAU
SAN MIGELAK!*



gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1 - OÑATI
Tel.: 943 71 63 22 - Faxe: 943 78 15 51

SANMIGELAK 2013 | OÑATI



*Oñatiko Udalak
jai zoriontsuak
opa dizkizue*



AGURRA

MIKEL BIAIN
Oñatiko alkatea

Gora San Migel
eta Errosaixoak!

Oñatiarrok,
Iritsi dira berri-
robe San Migele eta
Errosaixo Jaixak, urte
dania batutako tristura,
kezka ta nekian zakua
etxian jareteko garaixa,
oporosteko aldapia goxa-
ketako garaixa, herriko
kaliak poztasun eta zorio-
nez beteteko garaixa...

Askotarikuak dia
aurten be jai
egitarauian aurkituko
dittuzuen ekitaldixak
eta hemendik eskerrik
beruenak gure herriko
jaixak gero eta parte
hartzailiaguak,
herrikoiaquak eta non
tamainora josittakuak
izan daittezen gogor
lanian ibili zain danori.
Biba zuek!

Hitz honein
bittartez, herriko jaixak
gure artian pasaitterik
eukiko ez daueinak be
gogora ekarri gura
nittuke, besarkada bero
bana bialdu eta egun
berezi honeittan gure
goguan izango dila
adierazi.

Gozatu daigun
jaixak, gure
ingurukoekiko eta
ingurumenarekiko
errespetuz, etorkizunak
garai oparuak ekarriko
dittuala pentsauaz, eta
itxaropenari atia eraitta
jareta, itsutu barik,
kontsumuari, zaratiari
eta bestelakuei
tamina hartuaz.

Gora San Migel eta
Errosaixo Jaixak!

JAIETAKO EGITARAUUA

EGUBAKOITZA

27

18:00-20:00 Aire libreko 11. margo
lehiaketako eta margo ikastaroetako
ikasleen lanen ERAKUSKETA
Kultur Etxeko erakusketa-gelan
(urriaren 7ra arte).

20:00 Euskal preso eta iheslarien
eskubideen aldeko KALE BILKURA

plazan, Oñatiko jai batzordeek
antolatuta.

22:00 ROCK KONTZERTUA
txosnagunean, HERSTURA
taldearekin.

23:00 Eraso sexisten aurkako
KAZEROLADA, txosnagunetik.

► Hori eta gero: ROCK
KONTZERTUA txosnagunean,
POTTORS, KLITO eta BAGAUDA
taldeekin.

ZAPATUA

SAN MIGEL AOZARATZAREN EGUNA

28

09:30 San Migeletako 11. GOLF
TXAPELKETA Irelore Golf Eskolan
(urriaren 7ra arte).

09:30 OÑATI BEGI BISTAN argazki
ERAKUSKETA, plazako arkupeetan,
urriaren 7ra arte. Jaien amaieran,

lan guztiak zozketatuko dituzte.

12:00 MOSAIKO ERRALDOIA
plazan, Aloña Mendiren eskutik.

17:00 Oñatiko PILOTA
TXAPELKETAREN finalaurrekoak,
frontoi zaharrean.

17:30 Poxpolo eta Konpainia
pailazoen eskutik,
POXPOLOTAKONPAINIA.COM
ikuskizun berria Portuko plazatzxoan.
Eguraldi txarra egingo balu, Santa
Ana antzokian.

18:30 Euskal Herriko txistulariekin
TXISTULARI ALARDEA plazan.

20:00 TXANTXIKUAREN
JAITSIERAekin jaien hasiera.

20:05 PINTXO-JANA
txosnagunean.

20:15 DISKO FESTA, plazan.

23:00 DANBORRADA NAGUSIA
herriko kaleetan zehar, Oñatiko
Musika Bandak lagunduta. Amaiera
plazan izango da, Danborradaren
Martxa eta San Migeletako
ereserkiarekin.

00:00 Euskal preso eta iheslarien
eskubideen aldeko
MANIFESTAZIOA plazatik abiatuta,
Herrira mugimenduak deituta. ►



Banderadunak udaletxeko balkoian; plazan, danborrada. | JAGOBA DOMINGO

Ondo pasa jaixak!!

HOTEL ***
Torre Zumeltzegi

Torre Zumeltzegi 11
20560 Oñati
Tel.: 943 54 00 00
www.hoteltorrezumeltzegi.com



JAN ETA LO EGIZU KONDE BATEN MODUAN ERDI AROKO DORRE HONETAN

► Gero, DISKO FESTA plazan.

01:00-04:00 TESTING
txosnagunean Ailaket elkartearekin.

02:00 KARAOKEA txosnagunean.

DOMEKA SAN MIGEL EGUNA

29

08:00 ARGAZKI ERRALDOIA
gaupasero eta mendizaleekin,
txosnagunean.

08:05 TXOKOLATADA
txosnagunean.

09:00 Txistulari bandaren
GOIZ-ERESIA.

11:00 Herri mailako PLATER
TIRAKETA, Txopekua tiro zelaian
(armak edukitzeko baimena eta
Federazioaren lizentzia eskatuko
dizkiete parte-hartzaileei).

12:00 MEZA NAGUSIA San Migel
Parrokian, koruak abestuta.

12:00 Oñatiko Musika BANDAREN
KALEJIRA.

12:00-14:00 HAUR PARKEA,
Etxaluzen. Eguraldi txarra egingo
balu, Zubikoa kiroldegian.

13:00 Oñatiko Udal Musika
BANDAREN KONTZERTUA,
Lazarraga Jauregiko lorategian.
Eguraldi txarra eginez gero,
Udaletxeko arkupetan.

► Egitaraua:

A San Miguel (martxa) - L. Recife
Konp. Antonino Ibarondo

Okola (pasodoblea) - Iñaxio
Ibarondo Ugarte

El tambor de Granaderos (obertura)
- Ruperto Chapi

Euskeria (rapsodia) - Mariano San
Miguel Urcelay (oñatiarra)

Abba Gold - Konp. Ron Sebregts

Fiesta de las trompetas - Roy
Anderson

Zuzendaria: Iñaxio Ibarondo

17:00 San Migeletako 20. PILOTA
TXAPELKETAKO pilota-partiduak

Zubikoa kiroldegian. Finalak
(jubenilak eta afizionatuak).

► Gero, txosnetako PILOTA
TXAPELKETAKO finalak.

► Euria eginez gero, bi txapelketak
Zubikoa kiroldegian jokatuko dira.

17:00-20:00 HAUR PARKEA,
Etxaluzen. Eguraldi txarra egingo
balu, Zubikoa kiroldegian.

18:00 PIKOR antzerki taldearen
eskutik, *ATSOAK DANTZAN* kale
antzerkia plazan.

19:30 Fito y los Fitipaldis taldearen
omenezko kontzertua LOS FITO Y
TU tributo taldearekin, Atzeko
Kalen.

22:30 KORRONTZI eta OINKARI
dantza taldearen eskutik,
INFERNUKO HAUSPOA dantza eta
musika ikuskizuna plazan.

ASTELEHENA TXANTXIKI EGUNA

30

11:00-14:00 Haur, gaztetxo eta
gurasoentzat EKITALDI BEREZIAK
(ludoteka, tailerrak, lehiaketak...) plazan.

12:00 *ATSOLOERRA*: urtean zehar



Baserritarren postuak, Herri Egunean. | JOSETXO ARANTZABAL

jaiotako HAURREI ONGIETORRIA
Udaletxeko Batzar Areto Nagusian.

13:00 VOCES DE LA RIBERA jota
taldearen kontzertua, Lazarraga
jauregiko lorategian.

14:00 *Zuk ekarri, zuk jan!*,
gaztelekuan UMEEKIN BAZKARIA.

17:00 MARSEL MAGOA,
Gaztelekuan.

17:00-19:30 SOKAMUTURRA
plazan, Kale Barrian eta Atzeko
Kalen, Arno ganadutegiko
zezenekin.

18:30 ESENCIA DE JALISCO
mariatxiaren kalejira.

20:00 Esencia de Jalisco
mariatxiaren KONTZERTUA,
plazan.

EGUBAKOITZA 4. EGUN MOREA

4

12:00 KALIAN GORA, KALIAN
BEHERA: kale berriak inauguratzen.

14:30 BAZKARI FEMINISTA
txosnagunean.

16:30 OLINPIADA MOREAK.

18:30 TRANSMARIBOLLO kalejira,
batukadak animatuta.

19:00-21:00 Gaztelekutik abiatuta,
GAZTETXOEKIN TALDE JOLASAK.

20:00 Euskal preso eta iheslarien
eskubideen aldeko
ELKARRETARATZEA plazan,
HERRIRA mugimenduak
antolatuta.

20:30 KARIBEKO FOLKLOREA:
dantzak txosnagunean.

21:00-22:30 Gaztelekuan, *ZUK
EKARRI, ZUK JAN* GAZTETXOEN
AFARIA.

22:00 KARRIKALDIXA:
SASKARRAK, GAITZE,
BURUHILKETA eta JAUNARTZIA
taldeekin kontzertuak kalean zehar.



Ume eta helduak, kaleko giroaz gozatzen. | JOSETXO ARANTZABAL

ZURICH AUTOK eskaintzen dizu:

BALORAZIO PACKA:

Autoaren lehen hiru urteetan, berriaren % 100eko balioa mantenduko da lapurreta, kalte eta sute kasuetan, baita laugarren urtetik aurrera baloraziorako portzentaje bereziak ere

BABES PACKA:

Gidabaimena galduz gero, derrigorrezko ikastaroaren diru-itzulketa 500 euro izango da, gehienez.

ASISTENTZIA PACKA

Istripua edo lapurreta izanez gero, ordezkotako autoa 14 egunean erabiliko da, gehienez ere.

FLEXIFRANKIZIA

Sistema berri horrekin, frankizia urtean %10 murriztuko da automatikoki, ezbeharririk izaten ez bada.

GAINERA...

Zure seguruarekin familia osoarendako zerbitzu ugari izango dituzu.



ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon kalea 5 behea
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 30 09
Faxa: 943 78 31 36
Polts.: 620 77 66 20

22:30 BERTSO JAIALDIA, Zubikoa kiroldegian. Bertsolariak: JON MAIA, AITOR MENDILUZE, ARKAITZ ESTIBALLES, AMETS ARZALLUS, ALAIA MARTIN eta AGIN REZOLA.

ZAPATUA
HERRI EGUNA

5

09:00 Txistulari bandaren GOIZ-ERESIA.

10:30 Unibertsitate inguruan:

► Herri mailako behi erakusketa.

► Herri mailako ardi, ahari eta bildots lehiaketa.

► Asto erakusketa.

► Behor eta zaldi erakusketa.

► Euskal Txerri eta Oilo erakusketa.

► Pottoka erakusketa.

► Gazta lehiaketa.

► Herri mailako fruitu eta barazki lehiaketa.

► Lore eta landare erakusketa.

► Artisau erakusketa.

► Herri mailako ardi, ahari eta bildots lehiaketa.

11:00 Oñatiko Jose de Azpiazu Musika Eskolako TRIKI-PANDERO

eta SOINUJOLEEN TALDEA, TXISTULARIAK ETA TOLOSAKO GAITEROen KALEJIRA, herriko kaleetan zehar ibiliko dira.

12:00 27. SAGARDO-DASTATZEA, plazan. Abaltzisketa: Zalbide; Aduna: Aburuza, Zabala; Aia: Izeta; Asteasu: Sarasola; Astigarraga: Astarbe, Bereziartua, Etxeberria, Larrarte, Lizeaga, Petritegi, Sarasola; Ataun: Urbitarte; Azpeitia: Añota; Donostia: Barkaiztegi; Hernani: Otsua-Enea, Altzueta, Akarregi, Larre-Gain, Itxas-buru; Ikaztegieta: Begiristain; Legorreta: Aulia; Tolosa: Isastegi; Urnieta: Altuna; Usurbil: Saizar; Zerain: Otatza.

13:15 Lehiaketetako SARI-BANAKETA.

14:00 Antixeneko Gaztetxean BAZKARIA, txosnaguneak antolatuta.

14:30 HERRI BAZKARIA, Zubikoa kiroldegian.

17:00 Herriko GAZTETXOEKIN HERRI KIROLAK, plazan. Eguraldi txarra egingo balu, Zubikoa kiroldegian.

18:00 Profesionalen HERRI KIROLAK JAIALDIA, plazan. Eguraldi txarra egingo balu, Zubikoa kiroldegian.

► Ondoren, AI ENE trikitilari TALDEAREN ERROMERIA, plazan.

18:30 LAJA, NARBAIZA eta LUTXURDIO trikitilarekin ERROMERIA, Atzeko Kalen.

19:00 Ekitaldia, HERRIRA mugimenduak antolatuta.

19:30 Parrokian F. ESNALEN SALBEA, Parrokiako Koruak eta Oñati Abesbatzak abesturik.

22:00 JOSELU ANAIK eta TRIKIDANTZen KONTZERTUA, txosnagunean.

22:30 AI ENE trikitilari TALDEAREN ERROMERIA, plazan.

DOMEKA
ERROSAIXO EGUNA

6

09:00 Txistulari bandaren GOIZ-ERESIA.

12:00 Parrokian MEZA NAGUSIA, Parrokiako Koruak abestuta.

12:00 Oñatiko Musika BANDAREN KALEJIRA.

12:00 MOTOR KLASIKOEN ERAKUSKETA, txosnagunean.

12:00-14:00 HAUR PARKEA, Etxaluzen. Eguraldi txarra egingo balu, Zubikoa kiroldegian.

13:00 Oñatiko Musika BANDAREN KONTZERTUA, plazan.



Koadrila bat, mozorrotuta iazko Errosaixo Bixamonean. | OIHANA ELORTZA

► Egitaraua:

Camino de rosas (pasodoblea) – José Franco Ribate

Euskal Rapsodia – Felix Cortabarria

A children's suit – Andre Waignein

Ris Ras (rebista) – Luna y Penella

Zuzendaria: Iñaxio Ibarrondo

17:00 ARKU TIRAKETA ERAKUSTALDIA, San Martinen.

17:00 PATATA TORTILA TXAPELKETA, txosnagunean.

17:00-20:00 HAUR PARKEA, Etxaluzen. Eguraldi txarra egingo balu, Zubikoa kiroldegian.

19:00 GIBELURDINEK taldearen eskutik, KONTZERTUA, Atzeko Kalen.

20:00 DVD ORKESTRAREKIN DANTZALDIA, plazan.

20:30 BALKOITIK BALKOIRAKO bertso-saioa IKER ZUBELDIA eta BEÑAT GAZTELUMENDI bertsolariekin, Kale Zaharrean.

21:00 BIDEO EMANALDIA txosnagunean: 'TORTURA OÑATIN'.

22:45 Scura Splats taldearen eskutik, *Cavallfoc* PIROTEKNIA IKUSKIZUN IBILTARIA. Korreoseko eraikinean hasita, unibertsitate etorbideetik plazaraino; bukaera ekitaldia, plazan.

► Gero, DVD ORKESTAREKIN DANTZALDIA, plazan.

ASTELEHENA
ERROSAIXO BIXAMONA

7

09:30 SOKAMUTURRA izango da plazan. ARNO ganadutegiko zezenekin.

12:00 Oñatiko Musika BANDAREN KALEJIRA.

14:30 PAELLA-JANA, txosnagunean.

17:30-19:30 SOKAMUTURRA plazan, Kale Barrian eta Atzeko Kalen, ARNO ganadutegiko zezenekin.

18:00 ROCKALEAN taldearen bertsio KALEJIRA IBILTARIA.

14:30 *DI-BERTSIOAK* txosnagunean, herriko musikarien eskutik.

20:00 Haitzama taldearekin DANTZALDIA, plazan.

23:00 Haitzama taldearekin DANTZALDIA, plazan.


MARTITZENA

8

► Egun osoan, BARRAKAK euro 1 kostatuko dira.



Mutila sokamuturrean, Foruen plazan. | ARRITXU BARRUSO



MEKALKI
S. Coop.

MEKANIZATUETARAKO ZERBITZU OSOA

*Ondo ibili
San Migeletan !!*

Zubillaga industrialdea 13
Tel.: 943 78 19 11
Faxa: 943 78 29 90
e.maila: mekalki@mekalki.es
<http://www.mekalki.es>
OÑATI

Animazio bereziarekin irtengo da aurtengo danborrada

Talde bat irtengo da parte-hartzaileak eta ikus-entzuleak animatzeko

AMAIA TXINTXURRETA | OÑATI

San Migel egunaren bezperako danbor hotsek emango diete hasiera Oñatiko jaiei, beste urte batez. Ohiko lau konpainiez gain, aurreko urtean estreinatu zen Txosna Batzordeko konpainia ere irtengo da aurturten.

Danborrada animatua

Aurtengo berritasuna izango da danborrada animatzen irtengo den talde bat egongo dela: "Danborrada animatua izango da aurtengoa. Talde bat irtengo da, bai barruan doan jendea eta baita kanpoan dagoen jendea ere animatuz", adierazi digu danborradaren antolakuntza lanetan ibiltzen den Mikel Aranburuk.

Gainontzekoan, ez da berritasun handirik. Konpainietako kapitainei dagokienez, danbor-jotzaileen eta barril-jotzaileen kapitaina Anjel Egaña izango da, azken urteetan egin izan duen moduan; sukaldariena, Iñaki Igartua; kantineretan zuzenda-



Foruen plaza jendez lepo, bai danborradan parte hartu zutenekin baita ikusleekin ere, iazko danborradan. | GOIENA

ritza estreinatuko du Olatz Intzak; eta Txosna Batzordea hainbat kapitainek gidatuko dute. Dantzariak, elkarreetako banderak, bandako eta trikitxaranga-ko musikariak, zaldunak, sukaldariak, gastadoreak... haiek ere alaituko dute danborrada.

Joan den urtean estreinatutako *Txispun* kantua ere joko dute. Eta sukaldarien karrozaz gain, Txosna Batzordeko epaieketa politikoen kontrako karroza eramango dute. Aldarrikapen ugariak banderak ere eramango dituzte konpainia horretakoek, eta guztiak kolore berdeko *Herri-tik herrixandako* kamisetak jantzita irtengo dira.

Ohiko ibilbidea egin ostean, bukaera San Migel kantuararekin emango diote Foruen plazan. Aurreko urtean plaza jendez lepo bete zen eta antolatzaileek espero dute aurturten ere plaza bete-betea egotea, "bai danborradan parte hartuko duten kideekin eta baita ikus-entzuleekin ere".

DATUA

450

LAGUN

450 lagun inguru irtengo dira danborradan. Inoizko danborradarik jendetsuena izango da, horrenbestez, aurtengoa.



ARKAUZ
MUEBLES
ARETXABALETA

ETXE MOBEL
ALTZARIAK
ARRASATE



ARKAUZ
COCINA INTEGRAL
ARETXABALETA **FAGOR**
banatzaile ofiziala

ARKAUZ
ELECTRODOMESTICOS
ARETXABALETA **expert**
banatzaile ofiziala



Arkauz zure etxea da.

GRUPO ARKAUZ
ARETXABALETA 1950-2013 ARRASATE

60 urte baino gehiago



Iazko jaietan Udal Musika Bandak Lazarraga lorategian eskainitako kontzertua. | JOSETXO ARANTZABAL

Instrumentuak gertu dituzte jaiak girotzeko

Udal Bandak herriko txokoak girotuko ditu jaietan: San Migel egunean kontzertu berezia eskainiko dute

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Dagoeneko hartu dute martxa Oñatiko Udal Musika Bandako kideek. Joan den zapatuan haurren danborrada izan zuten eta domekan, nazioarteko artzain-

txakurren txapelketaren harira, kalejira eta kontzertua. Baina musikarien lana hasi besterik ez da egin, San Migel jaietako aste bukaeran eta Errosaixotan hainbat ekitaldi izango dituzte-eta.

Kontzertua lorategian

Betiko moduan, San Migel bezperan nagusien danborrada girotuko dute Oñatiko kaleetan. *San Migel, De Udana a Zubillaga, Erretreta, Despierta Juven-*

tud... piezak joko dituzte, besteak beste. Iaz bezala, aurten ere Lazarraga lorategian egingo dute San Migel eguneko kontzertua.

A *San Migel* martxak zabalduko du kontzertua eta ondoren, *Okola, El tambor de Granaderos, Euskeria, Abba Gold* eta *Fiesta de trompetas* joko dituzte. *Okola* Iñaxio Ibarrodo zuzendariaren pieza bat da: "Arantzazun, Arenduitik aurrera joanda dagoen lekua da Okola", dio. *Euskeria*, aldiz, Mariano San Migel oñatiarrak konpondutako obra da: "1935ean hil zen Madril-en San Migel", azaldu du Ibarrodo. *Abba Gold* piezarekin jendea dantzan jarri gura izango dute bandako kideek.

Domekan 13:00etan izango da kontzertua Lazarraga lorategian: "Eguraldi txarra egingo balu, udaletxeko arkupeetan egingo litzateke kontzertua; baina, San Migel eguneko egitaraua eskaini beharrean, Errosaixo eguneko egitaraua joko genuke", nabarmendu du Ibarrodo. A *San Migel* martxaz gain, *Camino de Rosas, Euskal Rapsodia, A children's suit* eta *Ris Ras* eskainiko lituzkete. Kasu horretan, urriaren 6ko kontzertua izango litzateke lorategian.

Errosaixo eguna eta Bixamona

San Migel eguneko kontzertua bukatuta, Errosaixo egunari begira jarriko dira Udal Musika Bandako kideak. Urriaren 6an,

KONTZERTUAREN EGITARAUA

'A San Migel': Martxa

Konp.: Antonino Ibarrodo.

'Okola': Pasodoblea

Iñaxio Ibarrodo.

'El tambor de Granaderos': Obertura

Ruperto Chapi.

'Euskeria': Rapsodia

Mariano San Migel.

'Abba Gold'

Konp.: Ron Sebregts.

'Fiesta de las trompetas'

Roy Anderson.

ZUZENDARIA: Iñaxio Ibarrodo.

domekan, udaletxeko arkupeetan eskainiko dute emanaldia (13:00). Horren aurretik, eguerdiko hamabietan, kalejira egingo dute herriko kaleetan.

Jaiak bukatzeko, Errosaixo Bixamon egunean kalejira egingo dute, 12:00etan. Azkeneko urteetan ohiko bilakatu den moduan, Udal Musika Bandako kideak moztarrotuta aterako dira kalera. Eguna berotzen hasteko modu egokia!



Magia, antzerkia eta gehiago, umeendako

Etxaluzen egoten den umeen jolas parkea birritan dator aurten ere, jaietako domeka bietan

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Herriko jaietan adin tarte guztietarako gustukoak izango diren ekitaldiak sartzen ahailegindu da, beste behin, Udala eta txikienak ere izan ditu kontuan. Haiek ere izango dute, beraz, non gozatu edo zer egin aurtengo San Migel eta Errosaio jaietan.

Pailazoak, Portu plazan

Ohiko tokietan ez ezik, espazio berriak ere estreinatuko dituzte txikienek. Esaterako, Portu taberna pareko plaza. Han izango dira Poxpolo eta Konpainia irailaren 28an, zapatuan.

Aurtengo jaiak ofizialki hasi baino lehenago izango da hori: 17:30ean, hain zuzen ere. Umerez, kolorez eta kantuz beteta etorriko dira Poxpolo eta Konpainia. Ikuskizun berriarekin, gainera. Portuko plazatxoan egingo dute, doan, herriko ume, gaztetxo eta haien gurasoendako. Antzerkiaz

Eguraldi txarra eginez gero, aterpean egingo dituzte ekitaldiak

gozatzeko aukera paregabea, dudarik gabe. Eguraldi txarra eginez gero, Santa Ana antzokian egingo dute ikuskizuna umeen lagunek.

Jolas parkea, birritan

Umeen jolas parkea ere urtero jasotzen du jai egitarauak. Baita aurtengoak ere.

Bi asteburutan ospatuko dira aurten jaiak, eta jolas parkea ere birritan etorriko da: irailaren 29an eta urriaren 6an; domeka bietan, hain zuzen ere. Gainera, bi egunetan, goizean eta arratsaldean egongo da zabalik haur parkea eta irekia izango da, doan izango da. Ohiko bihurtu den moduan, Etxaluzeko parkean jarriko dituzte haur parkeak: puzgarriak eta bestelako jolasak egongo dira han, besteak beste. Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegian muntatuko dituzte jolasak.

Bestalde, irailaren 30ean, haur, gaztetxo eta gurasoendako ekitaldi bereziak egingo dituzte Foruen plazan. Esaterako, ludoteka, tailerrak eta lehiaketak.

Magoa eta barrakak

Marsel magoa ere herriko txiki eta gaztetxoak liluratzen joango

da gaztelekura hilaren 30ean. Jendea txunditurik uzten saiatuko da bere magia eta trukeekin. Haur eta gazteak ez ezik, haien gurasoak ere gonbidatuta egongo dira, noski.

Barrakak izaten dira txikiak erakartzen dituen urteroko beste ekitaldi bat. Urriaren 8ra arte izango dira eta egun horretan euro bat kostako dira.



Umeendako jolas parkea. | GOIENA



Joan den urteko Atsolorra ekitaldia. | GOIENA

135 ume txiki aurten Atsolorran

Bigarren urtez egingo dute aurten Atsolorra ekitaldia. Hau da, azken urtean herrian jaio diren umeei ongietorri ekitaldia. Hain zuzen, joan den irailetik aurtengora, 135 ume jaio dira Oñatin, eta guztiek jaso dute gonbidapena Atsolorrara joateko. Irailaren 30ean izango da, 12:00etan, udaletxean. Atsolorraren ohituraren jatorria azalduko die alkateak txikien gurasoei. Horren ondoren, umei zapi bana jarriko diete eta talde argazkia aterako dute.

urrats
Podologia Zentroa

Ondo pasa San Migelak!

Bidebarrieta 20 OÑATI Tel.: 943 53 36 37
Ordutegia: 09:30etik 13:30era - 15:30etik 20:00etara

egaralur

Bidebarrieta 17 behea
Tel.: 943 78 07 15 • Faxa 943 78 08 62
20560 OÑATI
www.egaralur.net

Ondo pasa jaixak!

- > Eraikuntza lanak
- > Industrinabeen eraikuntza
- > Obra Zibila - Urbanizazioak
- > Industriegune eta etxebizitzaren promozioa
- > Etxebizitzaren eraikuntza




Karla Santos, 17 urte.



Sara Mantxola, 13 urte.



Iban Ugarte.



Nagore Redin, 14 urte.

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

San Migel jaietako egitarauaren azala irudikatzeko lehiaketak bi zati ditu: 18 urtetik gorakoak eta adin horretatik beherakoak. Lehenengo mailako –helduena– irabazleak bere irudia jai egitarauan ikusiko du eta 500 euroko saria jaso du.

Haur eta gazteen atalera aurkeztu direnen artean bestelako sariak banatuko dituzte: opariak eta lanaren argitalpena. Hori horrela, hementxe dituzue ikusgai guztiak.

Kultura Sailak oraindik ez du zehaztu nork egin duen lanik onena. Datozen egunetan elkartuko da irabazlea aukeratzeko.

Herriko artista gazteenen proposamenak egitaraurako

Askotariko teknikak erabilita, 18 urtetik beherakoek sei lan aurkeztu dituzte

Askotariko teknikak

Ondoko lanetan ikusten den moduan, eta lehiaketako baldintzek zehazten zutenaren arabera, askotariko teknikak erabili dituzte: batzuek margoekin egin dute lana eta beste batzuek, akuarelekin. Collage bat ere badago proposamenen artean, eta baita koloretako paperak eta bitxiak erabili dituen ere. Proposamen ezberdinak, helburu bakarrarekin: herriko jaiak irudikatzea.

Guztiek *Oñatiko jaixak 2013* testua sartu dute, eta San Migel eta Errosario jaietan ohikoak diren protagonistak erabili dituzte: txantxikuak, sokamuturra, dantzariak, txantxikua, taloak, Herri Eguna...

Herriko artista gazteenek erakutsi dute euren dako jaiak zer diren.



Ainhoa Redin, 11 urte. | IRUDIAK: OÑATIKO UDALA



Izar Mendiola, 9 urte.

Proposamen asko, helburu bakarrarekin: herriko jaiak irudikatzea



RPS:174/13

M^a Angeles Mendizabal
AHO SENDAGILEA
H Ondo pasa jaixak!

- Implantologia konbentzionala
- Gidatutako implantologia (punturik gabe)
- Odontologia estetikoak
- Periododontzia

Arantzazuko Ama 2C-behea
 20560 Oñati
 Tel.: 943 71 60 71
 mendikorta@euskaltel.net

Ondo pasa jaixetan!



Kale barria 20 • Errekalde 8
 OÑATI
 Tel.: 943 78 01 54

Denetariko doinuak San Migel jaietan

Foruen plazan, txosnagunean eta Oñatiko hainbat txokotan musikaren oihartzuna entzungo da

EGUBAKOITZA

27

Herstura, Pottors ta Klito eta Bagauda

Txosnagunean | 22:00etan

San Migel jaietan txosnetako kontzertuekin hasteko, herriko bi talde igoko dira taulara: Herstura eta Bagauda, Zarauztik etorriko diren Pottors eta Klito taldearekin batera.

Herstura oñatiarrak izango dira eguneko izen ezagunena. Post-hardcore bezala definitu izan dute laukotearen musika; eurek, ordea, Dut, Tool edota Lisabö taldeekin identifikatzen dute euren burua. *Herstura* aurkezpen diskoa duela urte pare bat inguru aurreko ondoren, berriz ere etxekoan aurrean joko dute kantu horiek defendatzeko.

Pottors ta Klitok eta Bagaudak ere emango dute zeresana. Bagaudak, talde gaztea izan arren, Eskandinavia inguruko punk-rock indartsua egiten dute. Pottors ta Klito taldeak, ordea, feminismoa eta punka defendatuko du.



Herstura oñatiarrak. | KEPA ARANBURU

IGANDEA

29

Los Fito y Tu

Atzeko kalean | 19:30ean

Atzeko kaleko kontzertuen txanda igandean helduko da, eta ez edonolako taldearekin, gainera; izan ere, Madrilgo Los Fito y Tu izango da gunea estreinatzeko ardura izango duen taldea.

Fito y los Fitipaldis eta Platero y Tu talde ezagunen kantuak ekarriko dituzte Oñatira. Espainiako Estatuan barrena hiru urtean hainbat kontzertu eskaini ondoren, Oñatin egongo dira Fito y los Fitipaldis taldeen kantu ezagunenak eta altxor ezkutuak interpretatzen. Tartean, baina, Platero y Tu taldeen kantuek ere izango dute tartetxo bat. Beraz, Fito Cabrales musikariaren zale direnentzako aproposa.

Korrontzi eta Oinkari

Plazan | 22:30ean

Agus Barandiaran trikitilariak 2004an sortu zuen Korrontzi folk taldea, folk euskalduna alderik alde entzun zedin. Bada, oraingo honetan, Korrontzi musika taldeak Oinkari dantza taldearekin bat egin du *Infernuko hauspoa* ikuskizuna sortzeko.

Belarriekin zein begiekin gozatzeko ikuskizuna dela argi utziko dute igandean. Barandiaranen trikiti soinuaren agintean, berrogei dantzari plastikotasuna eta edertasuna transmititzen saiatuko dira Oñatiko plazan, oholtzako magia herritarrei transmititzeko irrikan.

ASTELEHENA

30

Esencia de Jalisco

Plazan | 20:00etan

Mexikora bidaiatzeko txartela eskainiko du Esencia de Jalisco mariachi taldeak. Jaliscotik Oñatira etorriko dira Teresa Castellanosen gidaritzapean, ranchera eta boleroak interpretatzera.

Zortzi emakumez osaturiko taldea da, eta, plazako kontzertuaren aurretik, kalejira egingo dute arratsaldean.

EGUBAKOITZA

4

Saskarrak, Gaitze, Buruhilketa eta Jaunartzia

Kalean | 22:00etan

Karrikaldixa antolatu dute aurtengoan, jaiak herriko kale guztietara heltzeko asmoarekin; bada, egubakoitzean, lau taldek

 **MAPFRE**

 **ALTUBE
ZERBITZUAK**




Ondo
pasa
jaixak!

Portu kalea 5 • 20560 Oñati
Tel.: 943 78 12 65 • Faxe: 943 78 07 85

Jai dotoreak izan!

ileak
marikarmen ile apaindegia

san lorentzo 9 a - behea
tel.: 943 71 60 46
OÑATI



Pottors ta Klito. | JOSEBA BARRENETXEA



Esencia de Jalisco mariachi taldea. | ESENCIA DE JALISCO



Gibelurdinek gipsy punk-folk taldea. | GIBELURDINEK

girotuko dituzte Oñatiko txokoak.

Saskarrak punk-oi! taldea Txantreakoa da. Laukotea. *Eraikitze*ko *suntsitzen* maketa kaleratu zuten duela urtebete, eta Fridays Crew eta Last Strenght taldeen zaleek ederto gozatuko dute Saskarrak-en emanaldia.

Azpeititik Gaitze taldea etorriko da punk-hardcore musika defendatzera. Gaitze, Karkaba eta Fridays Crew taldeetako kide batzuen proiektu berria da; beraz, ez dira hasiberriak.

Haiekin batera, Buruhilketa eta Jaunartzia taldeek ere kontzertua eskainiko dute kalean.

ZAPATUA

5

Ai Ene

Plazan | 18:00etan

Gazteen artean, erromeria musika estilo zaharkitu bezala ikusten duenik badago. Ai Ene plaza taldea, ordea, kontrakoa argi uztera etorriko da Oñatira. Bos-

kotea Donostiako Eneritzek, Zestoako Eiderrek, Hernaniko Josunek, Andoaingo Adrianek eta Tolosako Iñakik osatzen dute, hain zuzen ere.

Esan bezala, talde gaztea izan arren, musika munduan bizitza erdi eman dute; besteak beste, euskal kantu txapelketetan edo trikia eskuetan txikitatik herriz herri hazita. Bada, trikitia eta panderoa oinarri dituen taldeak hainbat euskal talderen kantuak joko ditu Herri Eguneako arratsaldea girotzeko.

Joselu Anaiak

Txosnagunean | 22:00etan

Zer izango lirateke San Migel jaiak erromeriarik gabe? Ba halakorik gerta ez dadin, Euskal Herriko erromeria talde handienetakoa izango da txosnetan Herri Egunean.

Jaietako egun handian, Joselu Anaiak izango dira gauean, kantu propio eta euskal musikako klasikoekin. Ruiz de Gordoa anaiak urteak daramatzate herri, hiri eta auzoetako jaiak alaitzen; aski ezaguna da helburua ondo baino hobeto lortzen dutela.

IGANDEA

6

Gibelurdinek

Atzeko kalean | 19:00etan

Gizarte eredu honek helarazten digun musikaren aurrean, herrien nortasunaren, aberastasun kulturalaren eta gure sustraien defentsarako borroka tresna da musika. Manifestu horrekin aurkezten du bere burua 2011. urtean sor-

tutako Giberlurdinek laukote bizkaitarrak.

Gipsy punk-folk zerrikoa bezala definitu dute euren musika; hau da, euskal instrumentuak erabiliz, munduko hainbat musika egiten dute. Giberlurdinek taldeak, besteak beste, *Sua* filmaren soinu banda egin du.

Kaleko musikariak, nomadak direla aldarrikatzen du laukoteak, eta, hain zuzen ere, kaleko musikari onenen antzera, giro aparta jarriko dute.



Haitzamako musikariak Zurriolako hondartzan. | HAITZAMA

ASTELEHENA

7

Di-Bertsioak

Txosnagunean | 18:00etan

Azken urte hauetan ohitura bihurtu da Di-Bertsioak kontzertua. Oñatiko hainbat musika taldeetako kideak egun batez rock izar bihurtzen dira, eta talde ezagunen kantuak propio egiten dituzte.


Aurreko urte hauetan Foo Fighters, Sorotan Bele eta Bizardunak taldeen bertsioak entzun baziren, aurten ere sorpresaren bat prestatuko dute Oñatiko musikari amorratuek.

Haitzama

Plazan | 20:00etan

Euskal erritmoak erritmo karibetarekin nahasteari ekin zion duela urte batzuk Haitzama taldeak; beraz, *erromeria taldea* izena txiki geratu zaie.

Talde arrasatearrak Erro-saixo Bixamon egunean dantzan jarriko ditu oñatiarrak.



DASTATEGIA OKINDEGIA

Errementari plaza 6 - Tel.: 943 78 30 59
OÑATI

Guztia etxera eramateko!

- Oilaskoak
- Pizzak
- Prestatutako jaki goxo-goxoak

Ondo pasau
San Migelak!

GIORGIO ARMANI



Ondo pasa jaixak!

itziar optika

Kale barria 32 • Tel./Faxa: 943 71 82 88 • itziaroptika@wanadoo.es

Nerea Zubia | Kultura zinegotzia

'Zuk ekarri, zuk jan', familientzako bazkaria

Gaztelekuan egingo dute eta norberak eraman behar du jatekoa



Nerea Zubia, Kultura zinegotzia, jaietako zapi berriarekin. | I.G.

IRATI GOITIA | OÑATI

Aurtengo jaietako berrikuntzen artean dago *Zuk ekarri, zuk jan* familientzako bazkaria irailaren 30ean eta gazteendako afaria urriaren 4an. Nerea Zubiak, Kultura zinegotziak, eman dizkigu azalpen guztiak.

Zein berezitasun izango ditu familientzako bazkari honek?

Bazkaria berezia da ume eta familiei eskainitakoa delako eta norberak eraman behar duelako jatekoa. Hortik dator leloa: *Zuk ekarri, zuk jan*. Mahaiak eta aulkiak egokituko dira gaztelekuan, eta musikaz giroa egongo da bazkaria. Ondoren, Marsel magoaren emanaldia egongo da.

Zenbat lagunentzako lekua egongo da gaztelekuan?

Kabitzen diren beste, 200 lagun ingururendako. Aurten lehen urtea izanik, ez dakigu ze erantzun izango duen. Beraz, ez dugu txartelik-eta jarri lekuak izendatzeko, sartu ahala norberak har dezala tokia. Baina betetzen bada eta ez badago guztientzako tokirik, beste lekutxoaren bat egokituko dugu. Ateak 13:30-14:00 aldera zabalduko ditugu. Hain zuzen ere, Foruen plazan haur

parkea izango da goizean zehar eta hori amaitzean jendea gaztelekurantz bideratuko dugu.

Zein helbururekin antolatu duzue bazkaria?

Umeei protagonismo berezia eskaini nahi genien. Egia da haur parkearena oso errotuta dagoen kontua dela, baina ikusi dugu adin jakin bateko haurrei barrakak eta haur parkea direla eskaintzen zaien bakarra. Hala, umeen eguna osatu eta pisu handiagoa eman nahi izan diogu. Helburua da haurrek komunikatzeko, erlazionatzeko eta jolas egiteko beste gune edo espazio batzuk sortzea. Esaterako, iazko berrikuntza izan zen haur jaioberriei harrera egitea udaletxean. Aurten, bazkaltzeko eta erlazionatzeko gunea

eskaini nahi genien familiei, eta hortik egin dugu bazkariaren eskaintza.

Izena ere jarri diozue umeen egunari; egun hori sendotzeko helburuarekin bat dator hori?

Bai, egitarauko egun gehienek dute izena eta umeen egunari ere jarri nahi genion. Hala, pentsatzen jarri eta *Haurren Eguna* etortzen zitzaigun burura, baina haurren eguna beste bat da Oñatin, Haur

"Gazteendako afaria eskainiko da formatu berean urriaren 4an"

Diseinu berridun zapia jaietarako

Zapi berriak kaleratuko ditu aurtengo jaietarako Udalak. Irudiz Komunikazioak egin du diseinua. "Guk irizpide batzuk argi genituen: adin-tarte guztiek erabiltzeko modukoa izan behar zuela eta denboran iraunkorra", adierazi digu Nerea Zubiak.

3.000 zapi atera dituzte eta euro baten truke salgai daude dagoeneko kultur etxean, udaletxean eta turismo bulegoan. Zapiak saltzeko interesa duten merkataria eta ostalariek nahi beste eskuratu ahal izango dituzte, baina eskaera bi toki horietako baten egin beharko dute.


Dantzarien Eguna, hain zuzen. Azkenean, Txantxikiaren Eguna bezala izendatu dugu.

Gazteei ere zuzenduko diozue eskaintza bera.

Bai; urriaren 4an gazteendako afaria izango da gaztelekuan formatu berean. Kasu horretan, baina, mahai eta aulkiez gain, alkohol bako edariak ere banatuko dira. Gainera, hezitzaileak izango dira afaria dinamizatzen eta alkohol gabeko koktelak egiten erakutsiko diete gazteei. Familientzako bazkariaren kasuan, norberak eraman beharko du edaria: ardoa edo gustukoena duena.

Nondik hartu duzue ideia?

Aipatu nahiko nuke Arrasatetik hartu dugula ideia.



LIZARRALDE

KIROLAK



ARRASATE
Foruen Enparantza • San Andres auzoa
Tel.: 943 79 91 47

OÑATI
Olakua 16
Tel.: 943 78 29 86



**PODOLOGIA
OSTEOPATIA
FISIOTERAPIA**

Ondo
pasa
jaixak!



Erika Caballero Calvo
Koleg. zbk: 1406

Itsaso Aranzabal Ibabe
Koleg. zbk: 266

OREKA ZENTROA
Tel.: 943 78 05 89 - Olakua Auzoa, 1C Behea - Oñati
www.orekazentroa.com

Beti bezain beteta dator Herri Eguna

Herri bazkaria Zubikoan izango da eta txartelak salgai daude hainbat tabernatan, 19 eurotan

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Urtero legez, Herri Egunak itxura ona dauka; izan ere, ekitaldiz beteta dator.

Ohi bezala, Unibertsitatearen inguruan, Foruen plazan eta Zubikoan izango dira eguneko hitzordu jendetsuenak.

Herri mailako lehiaketak

Unibertsitatearen aurrean, esaterako, herriko produktu eta animalien lehiaketak egongo dira. Sei, guztira: ardi, ahari, bildots, barazki, fruitu eta gazta lehiaketak, hain zuzen ere. Guztiak, hori bai, herriko baserritarrek, abeltzainek eta ekoizleek ekarriko dituzte. Herrian egindako eta hazitako produktu eta animaliekin lehiatuko dira.

Lehiaketatik kanpo, baina, ikusteko eta erosteko beste makina bat produktu ere egongo da. Tartean, loreak eta landareak. Animaliei lotuta, bestalde, asto, pottoka, euskal txerri eta oilo erakusketa egongo dira. Nekazarien Elkarteko kideak dabilta guztia antolatzen, Udalaren laguntzarekin.

Gipuzkoako 26 sagardogile

Institutu aurrean jartzen duten herriko taberna Ezker Abertzaleak

kudeatuko du aurten ere, eta taloak, hirugiharra eta edatekoa zerbitzatuko dituzte.

Unibertsitateko klaustroan, berriz, artisauak egongo dira aurten ere; 20 artista, guztira. Horietatik sei oñatiarrak izango dira.

Bestalde, Foruen plazan sagardo dastatzea egongo da, beste behin. Gipuzkoako 15 herritako 26 sagardogilek euren sagardoak ekarriko dituzte. Edalontzia hartu eta sagardoa edateko aukera.



Foruen plazan jendetza batzen da sagardo dastatzea egiteko. | JOSETXO ARANTZABAL



Herriko gaztagileentzako gazta lehiaketa izango da aurten ere. | JOSETXO ARANTZABAL

Elkarteak zabalik egongo dira goizean zehar, salda eta txorizoa hartzeko

Oñatin ere badira sagardogileak eta joan den urtean euren sagarrak eta sagardoa ekarri zituzten herritarrei eskaintzeko. Parrokia atzealdean egon ziren. Aurten, baina, ez dira egongo.

Herri bazkaria

Herri Egunean, Zubikoako kantxa izaten da herritar askoren jantokia. Hantxe egin ohi da herri bazkaria eta hantxe egingo da aurten ere. Menua herriko produktuekin egindakoa izango da: pasta-entsalada, Oñatiko okela gisatua, Oñatiko artzainen gazta eta Jakioneko irasagarra (menbrilloa), kafea eta kopa. Txartelak 19 eurotan daude salgai taberna hauetan: Izarraitz, Arrano, Boga, Olakua eta Oñati.

Bazkalostean, herri kirolak izango dira aurten ere. Foruen plazan egingo dira, eta, eguraldi txarra eginez gero, kiroldegian. Arratsaldeko lehen orduan, 17:00etan, gaztetxoak arituko dira herri kirolean. 18:00etan, berriz, profesionalen txanda izango da.

Egun osoa kalean pasatzeko moduko eguna da Herri Eguna. Goizean zehar salda eta txorizoa eskainiko dute aurten ere herriko elkarte gastronomikoei; ateak zabalik izango dituzte.



- Gasa
- Berogailuak
- Pellet eta egurrezko estufak
- Eguzki plakak
- Energia berritzaileak

- Sukaldeak
- Bainurako behar duzuen guztia
- Elektragailuak

Ondo
pasa
jaixak!

Kale Zaharra 17
Tel.: 943 71 82 49 • Mugikorra: 635 74 62 26
e-posta: e.inurritegi@gmail.com

Ondo
pasa
jaixak!!



Bidebarrieta • OÑATI • Tel.: 943 78 34 44



Iaz errege-erreginen familiaren errepresentazioa egin zuten oñatiar batzuek, luxuzko itsasontzi eta guzti. | GOIENA.



Martetarrak ere ibili ziren iaz Oñatiko Errosaixo Bixamonean. | GOIENA



Ijito familia ere egon zen, urdaiazpiko eta guzti. | GOIENA

Errosaixo Bixamon Egunean, mozorroak

Mozorroa jantzi eta karrozekin kalera irteteko prest egongo dira txantxikuarrak datorren astelehenean

IMANOL BELOKI | OÑATI

San Migel jaiei amaiera emateko, Errosaixo Bixamon Eguna ospatuko dute urriaren 7an Oñatin. Astelehen berezi horretan, jaiei amaiera emateko hainbat mozorro eta karroza egongo dira ikusgai Oñatiko kaleetan.

Egunaren izena Bixamona izan arren, festarako gogo itzelaz egongo dira txantxikuarrak, jai handia ospatu izan da-eta beti

egun horretan. Jaiei amaiera bikaina emateko, bixamona gainditu beharko dute egun osoko festari eusteko, eta halaxe egiten dute urtero-urtero kuadrillek eta jaizaleek, orokorrean.

Paregabeak dira oñatiarrak mozorroak prestatzen, lan izugarria hartzen dute-eta dena gertu uzteko egun horretarako. Beste urte batzuetan ikusi beza-la, traje kuriosoak egiten dituz-

te: Espainiako errege-erreginak, ijito familia osoa, estralurtarrak espazio-ontzi eta guzti, guardia zibilen manifestazioa... Bada, aurten ere, gogo biziz daude txantxikuarrak batzuen eta beste mozorro kurioso eta dibertigarriak ikusteko. Horrela, umorez betetako egun ederra pasatzeko eta jaietako azken egunaz gozatzeko asmoz irtengo dira kalera.

Mozorro-sokamuturra

Mozorroak eta karrozak ez dira egun horretako erakarpen bakarra. Bixamon Egunerako egitarauan beste ekintza hauek daude: 09:30ean, sokamuturra izango da Foruen plazan, Arno ganadutegiko zezenekin; 12:00etan, Oñatiko musika bandak kalejira egingo du; 14:30ean, txosnagunean paella-jana izango da; 17:30etik 19:30era, ohitura den moduan, berriro soka-


muturra izango da, Kale Barrian eta Atzeko kalean, Arnoko zezenekin, eta zezenak adina ikusgai izaten dira zaleak, mozorro eta guzti ibiltzen dira-eta sokamuturrean; 18:00etan, Rockalean taldearen bertsio kalejira hasiko da eta ordu berean, txosnagunean, Di-bertsioak saioa, herriko musikarien eskutik; bukatzeko, 20:00etan eta 23:00etan, Haitzama taldearekin dantzaldia, plazan.



Marcelo Walter Borlle
Odontologoa, Koleg. 390

**Ondo
pasa
San
Migel
jaiak!**

Bidebarrieta 7 behea
20560 OÑATI
Gipuzkoa
Tel.: 943 71 88 63



LIZKER

Tel.: 943 71 80 52

AHOLKULARIAK

Aholkularitza fiskala

•
Lan aholkularitza

•
Kontabilitatea

•
Zerga aitorpena

Ondo pasatu San Migeletan!

**Errementari plaza 2-3 behea
OÑATI**

Errosaixo gaua argitzeko, su-ikuskizun ibiltaria

Scura Splats konpainiak 'Cavalfoc' antzezlan ekarriko du Oñatira

TXOMIN MADINA | OÑATI

Sus Scrofa tribukoek sua galdu dute, eta ez dakite nola egin. Baina tximista batek sua ekarri die, eta, euren herrixkara itzultzean, festa handia egingo dute. Bidean, baina, hainbat oztopo gainditu beharko dituzte; euria eta piztia basatiak, esaterako.

Horixe da Scura Splats konpainia castelloarraren eskutik Errosaixo egunean 22:45ean hasiko den *Cavalfoc* piroteknia ikuskizun ibiltariaren argumentua. Izan ere, ikuskizun soila izateaz gain, antzezlan ere bada.

Sei aktorek hartzen dute parte bertan piroteknia gidatzen, musika alai eta dibertigarriak lagunduta. Sua zezensuzkoen txinparten tankerakoa da eta, besteak beste, begi handi baten edo zezen baten itxura duten egiturek botatzen dute.

Amaiera, Foruen plazan

Ikuskizuna Korreosko eraikinean hasiko da, eta 400-500 metro egin

Guztira, sei dira piroteknia gidatzen parte hartzen duten aktoreak



Cavalfoc ikuskizuneko hainbat une. | OÑATIKO UDALA



ostean, Foruen plazan amaitu. Bertan izango da azken su festa handia. Duela urte batzuk ere egon ziren Oñatin Scura Splats-koak *Flit* izeneko ikuskizunarekin, eta konpainako zuzendari Joan Ragaren esanetan, Foruen plaza leku bikaina da festa amaierarako: "Handia da; beraz, ikusi bakarrik gura duenak urrunetik ere ikus dezake, eta parte hartu gura duena barruraino sartu ahal izango da".

Jendearen parte-hartzea

Izan ere, horixe da ikuskizunaren beste ezaugarrietako bat, horrela gura duten ikusleek su azpian sartu eta parte hartu ahal izango dutela. Ragaren esanetan, dena kontrolpean izan ohi dute: "Guk kaosaren ordena da nolabait ere sortzen duguna, eta horrekin, festan parte-hartzea eta alaitasuna eragin".

Ikusleentzako gomendioak

Cavalfoc piroteknia ikuskizunean jendearen parte hartzea bultzatu gura badute ere, horretara animatzen direnek hainbat gomendio jarraitu beharko dituzte, segurtasuna ziurtatzeko. Janzkerari dagokionez, burua estalita eroatea komeni da, baita zikintzea inporta ez diren txaketa eta praka bakeroak eta ketik babesteko zapia jartzea ere.

Horretaz gainera, piroteknia manipulatzeko ari direnekiko errespetua eskatu dute konpainiakoei.



Ondo pasa jaixak!

OÑATI GARAJEA
Zure zerbitzura

Goribar auzoa 9 • 20560 • OÑATI
Tel.: 943 78 13 50 • garageonati@euskalnet.net

MIZKE



Kale Zaharra 3. Oñati. Tel.: 943 78 28 14.
mizke@euskalnet.net www.mizke.com



**Aker • Izarraitz • Living Caffè Txurruka
Urtiagain • Zotz • Boga • Ongi etorri • Zurrust
Oñati • Arkupe • Olakua • Garoa • Soraluze**

SAN MIGELAK 2013

ARETXABALETA
JAIETAN!



- Azokan, baita ganadua ere
 - Herri bazkaria, 'Libre'
 - Munduko kantuak
 - Herri kirol ikusgarriak
- + JAIETAKO EGITARAU OSOA**

Aurten, produktu ekologikoen 19. azoka egingo dute San Migeletan, Durana kalean. Argazkian, iazko postuetako bat.

JULIO CALLEJA

EZKONTZA ERREPORTAJEAK
ESTUDIOKO ARGAZKIAK
www.fotobegira.com



ILARGI PLAZA, 1

ARETXABALETA

☎ 943 53 49 45



Gemes

Irudi aholkulariak

Ilargi plaza 2
Tel.: 943 79 99 18
ARETXABALETA

SPA

- Thailandiarra
- Pindas
- Txokolaterapia
- Harribitxiak
- Zelulitisaren aurkakoak



ARETXA AUTOAK

1982. urtetik Atxabaltarron artean. Eskerrik asko, guztioi!



350 m² - Elektrizitatea eta mekanika - Txapa eta pintura - SEAT, Volkswagen eta Audi autoetan espezialistak



Ondo pasau Jaixetan!

Basabe poligonoa A-2-4 - ARETXABALETA - Tel.: 943 71 00 68 - Ordutegia: 09:00 - 13:00 / 15:00 - 19:00
E-posta.: taller@autosaretxa.com - www.autosaretxa.com

AGURRA

ANA BOLINAGA
Aretxabaletako alkatea



Mugitu dugu fitxa berriz

Esatzen ei da ba "antzaratik antzarara, berriz nire txanda da", ba horixe berori: Andramaixetatik San Migeletara berriz gure txanda da. Fitxak mugitu ditugu eta aurten ere, kantu afaria, erraldoiak eta buruhandiak, azoka, abesbatza, txalaparta eta trikitilariak, herri bazkaria, mus txapelketa eta herri kirolak... ez dadila inor etxean gelditu fitxa mugitu gabe. Puntu-puntu iritsiko dira aurten ere horrenbeste apreziazten ditugun San Migelak. Garaiz ailegatu gaitezen aurtengo zitara, eta

bihedanmoduen baserritar jantzita, horixe zor diogulako egunari berari. Apaindu ditzagun balkoiak ikurrinarekin eta astindu ditzagun mihiak "euskaratik euskarara".

Berriro be San Migelak guregana, // festetaz goza dadin inguratzen dana // ta falta direnei besarkada bana.

"Astindu ditzagun mihiak 'euskaratik' euskarara"

JAIETAKO EGITARRAUA



Aretxabaletako trikitilariak iazko saioetako baten. | JULIO CALLEJA

EGUBAKOITZA

27

18:30 ERRALDOIAK eta BURUHANDIAK Aretxabaletako gaitariekin batera.

19:30 ZIRIKA ZIRKUS taldearekin Dantzateke Herriko Plazan.

21:00 KANTU AFARIA Durana kalean.

ZAPATUA

28

10:00 DIANA Aretxabaletako txistulariekin.

10:00 ARTISAU eta NEKAZARITZA EKOLOGIKOAREN XIX. FERIA ➤

Ondo pasa San Migelak!!



EGUZKIGRAF
Inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxe: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

*zure
zerbitzura*

Durana kalean eta I. GANADU
FERIA Arlutz kantxan 14:00ak arte.

10:00 Tril emakume taldearen TALO
TXOSNA goizean zehar Pagaldai
tabernan.

11:30 Leizarra Musika Eskolako
TRIKITILARIAK kaleetan zehar.

11:30 KANTUZ KALEAN. Basotxo
elkarteko abesbatza kantuan ibiliko
da herriko kaleetan Arrasate eta
Eibarko erretiratuen elkarteetako
abesbatzekin batera.

12:45 TXALAPARTA Durana kalean.

13:00 Simon Otxandategi taldearen
JOALDUNAK Durana kalean.

14:30 HERRI BAZKARIA Iturrigorri
frontoian.

19:00 *Beinke-Loramendi* DANTZA
EMANALDIA Durana kalean.

20:00 AI ENE taldea Herriko Plazan.

► 20:00-21:30 eta 22:30-00:30

00:00 Drogen *testing*-ak AI LAKET!
elkartearen eskutik Mitarte kalean.

DOMEKA

29

11:00 DIANA Aretxabaletako
gaiteroekin.

13:00 HERRI KIROLA Herriko
Plazan.

► Trontza eta txinga proba eta
lokotx-batzea: Irati eta Ainhua.

► Aizkolariak: 8 kana-erdiko



Zirika Zirkus taldearen emanaldia, Oñatiko plazan, iaz. | GOIENA



Nekazaritza ekologikoaren azokako postu bat. | JULIO CALLEJA

aizkoran eta 15 itzuli korrika:
Aitzol Atutxa eta Jon Rekondo.

► Harri-jasotzailea: askotariko
harrieekin ibiliko da Iñaki Perurena.

16:00 21. San Migel MUS

TXAPELKETA Herriko Plazan.
(Izen-ematea 15:15etik 15:45era).

19:00 Mikel Deunaren kontzertua
Aretxabaleta ABESBATZAREKIN
Herriko Plazan.

IOSU
harategia • taberna



Urdaitegia-gozotegia • Kroasantegia • Gertatutako janariak

Mitarte 1 Tel.: 943 77 03 08

HERRIKO PLAZAKO DENDARI ETA TABERNARIEN PARTETIK...

**Aupa, San
Migelak!**





Iazko azokan sasoiko barazki freskoak saltzen ziharduen postu bat. | MIRARI ALTUBE

Nekazari eta artisauez gain, ganadua ere bai

Durana plazak hartuko du nekazaritza ekologikoaren XIX. azoka eta artisauen feria 10:00etatik aurrera

IMANOL GALLEGO | ARETXABALETA

San Migel azoka hazi egin da. Ohiko produktuez gain, aurren, Arlutz taberna osteko kantxan ganadua egongo da: "Lehen aldia izango da; horregatik, herriko baserritarrak baino ez ditugu

gonbidatu", dio Inma Miguelek, Kultura teknikariak. Berrikuntza horrekin, azoka giroa herrian zehar zabaltu nahi izan dute. "Ganaduarekin azoka osoagoa lortuko dugu", azpimarratzen du Kultura teknikariak.

Produktu ekologikoak

Ohiturari eutsiz, ortuak presentzia berezia izango du azokan. Barazkiak, frutak, ogia, esnea... Durana kalean aukera zabala egongo da. Urtero legez, ez dira produktu izarrak falta izango:

okela eta gazta ekologikoa. Eta, horren aukera zabala izanda, aukeraketa egiteko zailtasunak izango dituzte, seguruenez.

Bada, Debagoienak ordezkari ugari izango ditu, eta pintxo biologikoak eta produktu originalak ekarriko dituzte Durana kalera.

Gure ordezkariez gainera, Nafarroatik etorritakoak ere egongo dira azokan.

Artisauen lanak

Artisauek eskuz egindako lanak ekarriko dituzte Durana kalera: bitxiak, larrugintza, artilezko jertseak... Euskal Herri osotik 30 artisauek etorriko dira Aretxabaletara, eta, euren produktuak saltzeaz gain, zenbait kasutan, nola egiten dituzten ere ikusteko aukera egongo da.

San Migel azoka, labur

20 POSTU EKOLOGIKO

Durana kalean egongo dira guztiak, eta, urtero bezala, produktu guztiak ekologikoak izango dira. Sasoiko produktuez gain, manufakturatutako xaboi, ezti.. ekologikoak ere salduko dituzte.

30 ARTISAU

Durana kalean eta plazan egongo dira. Larrugintza, artilea.. eskuz egindako produktuak izango dira guztiak.

BERTAKO GANADUA

Lehen aldiz, Arlutzeko kantxara herriko baserritarrek ganadua erango dute.

GERTUKO PRODUKTUAK

Debagoieneko nekazariak presentzia handia izango dute, produktu eta ekoizle gehienak ingurukoak izango dira-eta.

IKAS BIDAIAIRAKO DIRUA

Arizmendi Ikastolako gazteek datorren urtean egingo duten ikas bidaiako zati bat ordaintzeko zenbait produktu ere salduko dituzte.

Herriko Plazan, jakiak salduko dituzten artisauei egingo zaie lekua: pastelak, txokolatea, ezti...

Azoka bukatzean, parte-hartzaile guztiak herri bazkarira joango dira.



Ondo pasa San Migelak!



Belorrieta 6-7 • 20550
Tel.: 943 79 95 64



Gurea



TABERNA

Gora, San Migelak!

Durana 32 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 20 64





Iaz Herrirak antolatutako herri bazkaria, Iturrigorri frontoia beteta. | GOIENA

Datozen epaiketak salatzeke bazkaria

'Libre' lelopean egingo dute bazkaria: patatak errioxar erara, oilasko errea eta postrea izango dira

IURE EIZAGIRRE | ARETXABALETA

Azken urteetan moduan, herri bazkaria izango dute bilgune aretxabaletarrek jaietako egunik luzeenean. Goiza azokan pasa ostean indarrak berreskuratu eta atseden apur bat hartzeko lagungarri izango zaie, eta azokan parte hartutako artisauen konpainia izango dute, gainera.

Aurtengo bazkarian ez da berrikuntzarik izango, eta ondorioz, sabela ondo betetzeko asmotan batuko diren baserritarrez jantzitako herritarrez beteko da berriro ere Iturrigorri frontoia. Aurten ere 450 pertsonendako lekua aurreikusi dute eta gehienez ere, 500 pertsona har ditzake bazkarian. Txartelak herenegunera arte (irailak 25) egon ziren salgai 17 euroren truke herriko zenbait tabernatan.

Herri bazkariko menua azken edizioetako bera izango da: patatak errioxar erara, oilasko errea eta postrea. Eta aretxabaletarrek jaten duten bitartean, trikitilariak bazkaria girotuko dute. Hori bai, aurten ez da batzuetan egin izan den bazkalosteko kantaldirik aurreikusten. Baina, trikitilarien eta bertaratutakoen gogoz, ziur ez dela alaitasun eta girorik falta izango.

Epaiketen aurka

Aurreko urtean presoen alde egin zuten San Migel jaietako herri bazkaria. 2013an, berriz, preso hartzeko arriskuan dauden hamarnaka euskal herritar izango dituzte gogoan. Izan ere, datozen asteetan egingo diren epaiketen aurka Euskal Herri osoan egiten ari diren ekitaldiekin bat egingo du biharko bazkariak.

Aurten ere berrerabilgarriak

Iaz Herrirak antolatu zuen herri bazkaria eta lehen aldiz Zero Zabor politikaren aldeko apustua egin zuen. Aurten, datozen asteetan egingo diren epaiketen aurka sortutako lantaldea arduratuko da bazkariaren eta haiek ere bat egingo dute jarrera horrekin.

Ondorioz, aurten ere berrerabilgarriak izango dira bazkarian erabiliko dituzten baso eta platerak. Bazkalostean, antolatzaileak arduratuko dira garbitzeaz eta eskolako sukaldean egingo dute lan hori.

tan egingo diren epaiketen aurka Euskal Herri osoan egiten ari diren ekitaldiekin bat egingo du biharko bazkariak.

Libre lelopean egingo dute herri bazkaria eta datozen asteetan Madrilgo Auzitegi Nazionalan egingo dituzten bi epaiketa salatuko dituzte: 35/02 prozesua eta 40 gazteren kontra egingo dutena. Guztira, 76 euskal herritar epaituko dituzte.

Epaiketok politikoak direla eta auzipetuak politika egiteagatik eramango dituztela epailearen aurrera salatuko dute.

943 53 27 39

20550 Aretxabaleta

Durana kalea, 20



*Aupa,
San Migelak!*



Ilargi plaza 6 Aretxabaleta
Tel.: 943 53 34 96













San Migeletan danok, ni, hi, ha,
alkarrekin dantzan eta kantuen,
etorkizunari begira, itxaropenez,
pakia lortu guran gurien.

Gora San Migelak!
Gora Aretxabaleta!
Gora Euskal Herria!

aretxabaletako

aralar

Munduko kantuak, Copreciren omenez

Aretxabaleta Abesbatzak kantu eta dantza erakustaldia egingo du irailaren 29an, 19:00etan

ZURIÑE V.D.M. | ARETXABALETA

Ekintza ugari antolatu dituzte San Migel jaietarako eta musikak eta kantuak tokia izango dute egun hauetan. Urtero bezalaxe, Aretxabaleta Abesbatza kalera irtengo da festarekin bat egin eta ahots ederrak aireratzera.

Herriko Plazan –euria eginez gero, Iturrigorri pilotalekuan– izango da emanaldia, hilaren 29an, 19:00etan hasita. Eta ekimen berezia izango da, Copreciren 50. urteurrena aitzakia hartuta, ospakizun moduan antolatu dutena.

Copreciren omenez

Urtarrila ezker ibili dira abesbatzako kideak domekako hitzordua prestatzen. "Gutako batzuek lantegiarekin lotura zuzena daukate, proposamena egin zuten eta ideia garatzen hasi ginen".

Hala, hainbat tokitako kantuak interpretatuko dituzte Aretxabaleta Abesbatzako 38 kideek. "Lan-

tegia presente dagoen tokietatik, bina. Eta gainera, zenbait kasutan, dantzekin lagunduta egongo dira abesti horiek". Hala azaldu du Nuria Fernandez de Arroiabe abesbatzako lehendakariak.

Hori horrela, Euskal Herriko, Txinako, Mexikoko, Brasilgo, Txekiako eta Turkiako abestiak entzuteko eta folklore horiek dantzekin gozatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek, besteak



Aretxabaleta Abesbatza jaietan kantatzen. | SANTI BALANTZATEGI



Basotxoko kideak kantuan irtengo dira. | BASOTXO

Basotxokoek ere hainbat kantu intonatuko dituzte

Irailaren 28an irtengo dira Basotxoko kantuzaleak euren ahotsekin kaleak girotzera. Ez dira bakarrik egongo, Arrasateko eta Eibarko lagunak bertaratuko dira eta. Eguerdian eta

bazkalordura arte askotariko doinuz jantziko dute Aretxabaleta. *Agur Xiberua, Amak ezkondu ninduen, Baldorba, Eperrak, Habanera, Ikusi Mendizaleak eta Txoria*


Txori abestuko dituzte, besteak beste.

Bazkalostean kantuan eta festaz gozatzeko jarraituko dute Basotxoko 25 lagunek eta horien gonbidatuek.

beste. "Euskal dantzak herriko gazte talde batek egingo ditu eta sabel-dantza egiteko, esaterako, Gisela kolonbiarra etorriko da Gasteiztik eta erakustaldi ederra egingo du".

Lan handia eta emaitza polita

Urte hasiera ezker dihardute San Migel jaietako ikuskizuna prestatzen. "Ez da lan erraza izan. Txinako zein kantu interpretatu pentsatu ondoren, partiturak eskuratu eta nola ahoskatzen den ikasi behar izan dugu. Baina merezi duela uste dut. Horregatik kantatuko dugu guztiok batera: *Zorionak, Copreci!*".



Mobiliario
ARENAZA altzariak

Bizkaia kalea 1 **ARETXABATETA**
Tel./Faxa: 943 79 08 07
mobiliarioarenaza@hotmail.com

■ **Altzariak**

■ **Diseinua**

■ **Apainketa**

*ondo ibili
jaixetan!*



zenbaki

aholkulariak-abokatuak

Zure enpresa elkarrekin eramango dugu aurrera

**LAN ZERBITZUAK
ZERBITZU FISKALAK
KONTABILITATE ZERBITZUAK
ABOKATUAK**



Basabe Industrialdea Pab. FO - 10. bulegoa • 25 Postakutxa • 20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 21 12

www.zenbaki.es

ALDERDI EGUNA 2013 ★
IRAILAren 29a Igandea, FORONDAN. 12:00etan ★

**AM
BASQUE** ★ ★ ★ ★ ★

anda pash!!!

ARETXABALETako HERRI ERAKUNDEA
Durana kalea 23, behea
eajaretxab@euskalnet.net
943 795 743

**eaj
pnv**

Herriko kiroleetan, goi mailako ikuskizuna

Puntako kirolariek hartuko dute parte, hainbat modalitatetan, domekan, Herriko Plazan, 13:00etan

JOKIN BEREZIARTUA | ARETXABALETA
Herri kirolak gustuko dituenak goi mailako ikuskizuna izango du domekan Herriko plazan (13:00). Etorriko direnen zerrenda ikusita, herriko kirolez zuzenean gozatzeko ohitura handirik ez dutenek ere ikuskizuna bermatuta dute. Aizkolariekin hasita,

Aitzol Atutxa eta Jon Rekondo arituko dira nor baino nor gehiago. Urrezko Aizkoraren barruan sei onenen artean daude Atutxa eta Rekondo eta beraz, puntako aizkolaria gazteak dira biak: "Atutxa Euskal Herriko txapelduna izango da laster, seguru. Jon Rekondo ere oso aizko-

lari trebea da, etorkizun handikoa", adierazi du Fausto Mugerza koordinatzaileak. Zortzi kanaerdiko modalitatean lehiatuko dira eta Mugerzak aurreratu duenez, bertikalean ere egingo dute lan. Aurten, nobedade moduan, emakumeek izango dute presentzia gizonezkoak nagusi diren kirolean. Izan ere, Irati eta Ainhoa trontza, txinga eta lokotx biltetan lehiatuko dira. Irati Astondoa zeanuriarra joan den abuztuaren 24an egin zen bereziki ospetsu; Joakin Garmendia anoetarrarekin 1.200 euroko apustua egin zuen, segarekin belar gehiago nork moztuko. Garmendiak 68 urte ditu eta Astondok 22, baina esperientzia nagusitu zen gaztetasunaren aurrean.

Iñaki Perurenaren erakustaldia
Ikuskizuna borobiltzeko, aurkezpenik behar ez duen Iñaki Perurena harri-jasotzaileak erakus-



Irati Astondoa, segan, abuztuaren 24an egindako apustuan. | UZTARRIA.COM



Aitzol Atutxa aizkolaria gaztea jo eta ke lanean. | ARAITZFOTOPERIODISMO.BLOGSPOT.COM -



Iñaki Perurena, duela gutxi egindako erakustaldi baten. | TXOKOMAITEABIBLOGSPOT.COM

taldia emango du: "Dagoeneko ez du pisu handiko harririk jasotzen baina oso ospetsua da eta ikuskizuna ematen du doan lekura doala", esan digu Mugerzak. Askotariko harriak altxatuko ditu Perurenak. Ikuskizuna aur-

kezten Jose Mari Lejardi *Gabixola* arituko da; bertsolaritza munduan famatua da *Gabixola*, urte askoan aritu da eta gai-jarzaile lanetan. Haren hitz-jarioak behar den moduan girotuko du ikuskizuna.

Ondo pasatu
San Migelak!



*Zure txikiarentzako behar duzun guztia:
arropak, puerikultura, baserritar jantziak...*



Santakurtz 27 ARETXABALETA amaiaumedenda@hotmail.com



Azken etxebizitzak!!

**Etxe tasatuak
baino merkeago!!!**

ORTUZAL PROMOCIONES S.L

943 76 11 18

943 79 40 00

619 71 82 78

ARETXABALETA

AUKERA EZIN HOBEA

ETXEBIZITZAK:

2 logela

2 bainugela

Sukalde hornitua

Ganbara bikaina

ITURRIZAR KALEA

ABENDUAREN 31 BAINO LEHENAGO

160.000€

(BEZa ez dago barne)

GARAJE NORTE

Opel MOKKA berria



19.100 €-tik hasita

**AUTO MARKA GUZTIAK
KONPONTZEN DITUGU.**



GARAJE NORTEn (OPEL zerbitzu ofiziala)

ZURE FIDELTASUNAK SARIA DAUKA MIOPEL.ES WEBGUNEAN

"SIEMPRE OPEL"ek zure fidelotasuna saritzen du 4 urte baino gehiagoko autoentzako deskontu garrantzitsuekin * . www.miOpel.es webgunean izena eman eta Opel zerbitzuaren kalitateaz gozatu.



Wir leben Autos.

www.miOpel.es

Siempre
cuidamos lo que fabricamos | Opel

BASABE POL. A 1-3. pab. • 20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 71 20 03

* Deskontuak www.miOpel.es webgunean izena emanda dauden Opel autoentzako aplikagarriak. ** Autoaren adina lehenengo matrikulazioaren datan oinarritua. Deskontu baliagarriak 4 urtetik aurrerako Opel autoentzako bakarrik. *** Deskontua Tailer Mekanikoak egindako lan guztietan aplikagarria. Osagarriak eta pneumatikoak ez daude barne. Eskaintza hau ez da beste promozio batzuekin bateragarria. 2013ko abenduaren 31ra arte baliagarria. General Motors España SLUK programa hau alda/ken dezake.

	ZURE AUTOAREN ADINA **	DESKONTUAK PIEZETAN TAILER MEKANIKOAN EGINDAKO LANETAN ***	DESKONTUA ESKULANEAN
+	4 URTE	% 10	% 10
+	8 URTE	% 15	% 15
+	10 URTE	% 25	% 25

SAN MIGEL JAIAK 2013

ARETXABALETA

irailak 27 · 28 · 29



Aretxabaletako Udala

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Sagasti auzoan, 90 metro koadroko etxebizitza salgai: hiru logela, egongela handia, bi bainugela, balkoi bat, terraza bat, despentsa bat eta guztiz jantzitako sukaldea. Berogailua, igogailua eta garaje itxiarekin. 617 00 37 30 edo 68711 07 21

Oñati. Bidebarrieta kalean etxebizitza salgai. 68 metro koadrokoa. Egongela, sukaldea, komuna eta bilogela. Prezio oso onean. 626 68 41 12

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Erguin kalean etxebizitza ematen da errentan, ikasleentzat. Hiru logelakoa. Jantzia, bizitzera sartzeko moduan. Uztailera arte. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606 86 71 97.

Bergara. Osintxun etxebizitza jantzia ematen da errentan. Interesatuok deitu telefono honetara: 943 76 21 39

Oñati. Etxebizitza ematen da errentan San Lorentzon. Lau logela eta bi bainugela. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 650 56 62 06

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan. Hilean 400 euro ordain ditzaket gehienez ere. Biedohiru logelakoa. 671 84 71 71

Debagoiena. Bi pertsonendako etxebizitza behar dut errentan. Deitu telefono zenbaki honetara: 699 26 86 62

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Erguinen, unibertsitate ondoan, logela errentan ematen da. 165 euro hilean. Asier. Deitu telefono zenbaki honetara: 634 40 11 36

2. GARAJEAK

204. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Garajea hartu nahi dut errentan Zarugalde edo Bizkaia etorbide inguruan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 652 74 03 08

3. LOKALAK

301. SALDU

OÑATI

Ile-apaindegia eskualdatzen da, erretiroagatik. 618 44 51 59

304. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Gazte talde bat lokal bila. 679 27 55 14

Lokal bila. Arrasateko erdigunetaik urrun ez dagoen lokal baten bila gabilta. Lokala 27 pertsonentzako izan beharko litzateke. Gutxi gora behera 40-60 metro koadrokoa. 15 urteko neska arduratsuak gara eta ez dugu arazorik sortuko. 688 80 24 40

4. LANA

402. ESKAERA

Arrasate. 55 urteko emakume euskalduna, arrasatearra, umeak edo nagusiak zaintzeko gertu. 943 79 60 89

Arrasate. Emakume euskalduna goizetan plantxa eta etxeko lanak egiteko gertu. Deitu 699 54 17 27 telefonora.

Arrasate. Emakumea gertu umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, nagusiak zaintzeko zein ospitalean gauak egiteko. 943 25 05 72 edo 658 70 56 94

Bergara. Haur Hezkuntzako irakasle ikasketak dituen neska euskalduna umeak zaintzeko gertu. 615 76 29 25

Bergara. 49 urteko emakumea edozein lan egiteko prest. Esperientziaduna. . 606 24 79 09

Bergara. Arratsaldetan nagusiak zainduko nituzke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 665 75 41 32

Bergara. Emakume esperientziaduna umeak eta nagusiak zaintzeko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 610 34 97 88

Bergara. Emakume euskaldun arduratsua, puerkultura ikasketak dituen, umeak zaintzeko gertu. Arantza. 688 65 30 62

Bergara. Emakumea gertu nagusiak zaindu eta garbitasun lanekegiteko. Esperientziaduna. 626 86 35 92

Bergara. Lan bila nabil. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 943 76 52 39

Bergara. Lana egingo nuke nagusiak zaintzen edo garbiketalaran egiten. Esperientziaduna. Maite. 650 177487 edo 943 76 48 46

Bergara. Neska arduratsua ordukako lan bila, nagusiak zaintzen edo garbitasunak eta abar egiten. Deitu telefono honetara: 631 43 38 95

Bergara. Psikopedagogia eta Haur Hezkuntza ikasketak dituen neska euskalduna goizez zein arratsaldez umeak zaintzeko gertu. 669 64 64 27

Debagoiena. Gizonezkoa edozein lan motatan eta edozein ordutegitan lan egiteko prest. 610 12 49 64

ZURE IRAGARKIAK

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguztazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragariko ditugu. Hortik aurrera, ez da onartuko aldaketarik edo iragarria bertan behera uzterik. GOIENAK ez du iragarkien ondoko operazioen erantzukizunik.

Debagoiena. 50 urteko emakume arduratsua, espainiar nazionalitateaduna, umeetanagusiak zaintzeko, garbitasun lanak egiteko zein denetarioko etxeko lanak egiteko gertu. Eskarmentua daukat arlo horietan. 943 79 77 54 edo 646 63 75 03

Debagoiena. Mutila gertu lanerako. Garbitasunak egiten, nagusiak zaintzen eta abar. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 610 12 49 64

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko eta baita baserriko lanak egiteko ere. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izanda ere. 699 09 46 26

Debagoiena. Mutila lanerako gertu: tabernatan, sukaldean, nagusiak zaintzean eta abar. 631 05 34 15

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Esperientziaduna eta lege-agiriak ditut. Oscar. 632 12 40 16

